

TRABAJOS DE LA ACADEMIA VASCA

Euskaltzaindia-ren lanak

PRESENTACION

Comenzamos a publicar algunos trabajos de la Academia vasca, en el hueco que gentilmente nos cede este BOLETIN, yendo en primer lugar el estudio del P. Villasante, culto vascofílo franciscano de Aránzazu, que lo leyó con ocasión de su ingreso en Euskaltzaindia y que lleva el título de «Lengua literaria vasca a base del labortano clásico».

El hecho de publicarlo, y lo mismo respecto de otros trabajos que saldrán en esta sección de este BOLETIN de la Sociedad Vascongada, no significa que la Academia adopte una postura resuelta a favor de su tesis, de la que es sólo responsable el autor.

Pero como esta cuestión ha sido difundida por unos y criticada por otros recientemente, creemos muy oportuna la publicación de este trabajo, pues casi todos los escritores están de acuerdo en dar importancia a la necesidad de una lengua literaria uniforme, así como también a la urgencia de la inclusión en el diccionario vasco, de una porción de términos de orden cultural y urbano en la forma que han adoptado otras lenguas cultas, es decir, tomándolos del griego y del latín, sin traducirlos. No para improvisar ahora de repente una lengua de cultura vasca al estilo de la española o de la francesa, sino más realísticamente, valga la palabra, para ir adaptando el euskera a la necesidad de la conversación culta de la gente letrada, simplemente.

Pues, como insinúa el autor del trabajo, es una quimera pretender atropelladamente en unos meses, recobrar el camino perdido en siglos enteros.

Así pues, muchos escritores vascos están conformes en el fondo de la cuestión, y la misma Academia; y no dejan de valorar la calidad del documentado trabajo del académico de Aranzazu, que aporta datos y razonamientos de mucho peso para su tesis, constituyendo su redacción en el estilo de Axular un verdadero tour de force para quien cultiva un dialecto tan diferente de éste.

Otra de las razones que nos mueven a publicarlo es que está escrito en euskara; pues estas discusiones domésticas, que a veces nos dejan al descubierto, mejor es que se restrinjan lo más posible, y a los enterados.

Creemos que las bizantinas discusiones alrededor de este ya viejo tema nada aclararán la cuestión; y entre lo ya leído, sin embargo parecen aceptables para muchos escritores los siguientes conceptos:

1.º La necesidad de iniciar el aprendizaje de un estilo de lengua literaria uniforme, que bien pudiera ser el de Axular, adaptado a actuales exigencias en algún punto.

2.º Este estilo o idioma literario se refiere exclusivamente a lo escrito.

3.º Este estilo literario no pretende, ni debe ser obstáculo a que se sigan cultivando como hasta ahora los dialectos vascos, y sobre todo el llamado gipuzkera osotua (pues uno no puede escribir sino en el euskara que sabe) el cual no ha sido extraño a la influencia de ese lenguaje de los escritores axularianos, desde Lizardi, Ormaechea, Iñunaga, etc. Al propio tiempo que se sigue escribiendo en los dialectos vivos (y si se sigue haciendo con éxito, será señal de que el idioma vive en la calle, problema éste que no se debe desdeñar), muy loable parece el intento de dedicarse los que escriben a leer y a aprender en esos escritores olvidados, lamentablemente desconocidos. Sin que haya ninguna incompatibilidad en que un escritor cultive el gipuzkera por ej. y a la vez aprenda el estilo de Axular, para escribirlo cuando lo domine.

4.º No parece factible el poder infundir el estilo de Axular a los escritores, por arte de unas reglas y una gramática. Parece muy difícil escribir en el estilo que lo hace el Padre Villasante, y sin duda este escritor ha pasado muchas veladas leyendo a esos autores; y aun así otros no logran servir al lector el manjar bien condimentado. ¿No será mejor, pues, que mientras lo lleguen a dominar, escriban en el estilo que saben?

5.º Lo primero que es preciso, pues, es tirar algunas copias del Guero, sin correcciones claro está, aunque en grafía actual. Y lo mismo respecto a trozos selectos, cuando menos, de otros autores axularianos.

6.º Después sería conveniente acordar unas normas entre lexicógrafos, respecto a la forma de adaptación en el diccionario vasco de esas voces cultas greco-latinas, de los sufijos de derivación, etc., elaborando un pequeño lexicon, restringido a las voces que usa el vulgo letrado (dejando de lado las voces especializadas) y oyendo el consejo de lexicógrafos vasco-franceses igualmente.

Vamos a terminar esta larga presentación; pues no pretendemos anticiparnos al P. Villasante; antes bien hemos querido con esta explicación, incitar a seguir leyendo el trabajo del autor, al que encuentre al principio obstáculo en su nuevo estilo y en la grafía; en la seguridad de que después experimentará un placer, al apreciar la belleza y la hondura del trabajo del erudito franciscano.

Solamente el hacer familiar la lectura de esos autores que se citan, será ya una beneficiosa consecuencia del plan de Villasante; hasta tanto no surja un escritor de genio que se imponga por el grande interés de su obra y por su cautivador estilo, que es lo que ocurrió en parte con Axular; y que es la forma de implantarse una lengua literaria, como dice Villasante.

Sin duda es un acierto del autor, la elección del escritor urazubiarra como modelo, coincidiendo en esto con Vinson, Schuchardt, Urquijo, Alfredo de Lafitte y otros vascófilos, que al escribir algo en vascuence eligieron ese mismo estilo, que nunca deja de cautivar a los que lo frecuentan.

A. Y.

LITERATUR - EUSKARA

LAPHURRTARR KLASSIKOAREN
GAIN ERATUA

Jaunak:

Itzal handiko elkhargo hunerako hautetsia izan nintzela jakin nuenean, nere naspil ta mataza etzan tipia izan; eta bereziki, zuen aitzinean eta hainbertze jenderen ikhushmenean agertu beharko nuela gogoratzen zitaitan guztietan. Nere eskerron ta ezagutzaren agiriak Euskaltzaindiari bihurtzen eta erakhusten luzatuko banintz, hizkera hotz eta idor batekin mintza bertzerik eginen eznuke. Ongi dakusat eta orok dakite, Euskaltzaindia dugula egun, gure herri mai-tearen ondasunik baliotsuena jagon eta begiratzeko bizi den baltzu, lagunarte eta elkhargoa. Elkhargo hau, beraz, gure herriarentzat simbola bat bezala bihurtu da, euskararen gaztelu eta dorrea bilhakatu da. Bertze aldetik, herriz, ni berhunen galtzarreat ekharria izaitea, neholatan ere irabazi ez merezi eztutanaz geroztik, eztut omen, sari edo deduzko izendatze bat bezala hartu nahi.

Aitzitik, Euskalherri osoaren aitzinean egun bizkarreratu dudan zor handi eta responsabilitate larriaren berri ongi dakit. Lanerako deithua izan naizela badakusat. Zuen dei huni, bada, baiezko emaiten saiaturen naiz. Vokazino bati erantzutera behartuak gagozen bezala erantzuteko ahalak eginen ditut. Egungo zor hauk atheratzeko kezka ta ardura izanen dut, nere etorkizuneko neke-lan-izerdiak euskarari eskainiaz, gure mintzo maite hunen laborantzari nere bizitza lotuaz. Emanen ahal deraut goiko Jaunak hartarako kemen ta adore!

Euskaltzaindiak, sorthu zen egunetik hunerat, egungo hunen antzeko hautatze ta sarrera hitzaldi asko ezagutu ditu. Egun arte, ordea, Azkue Jaunaren itzala ukan du bethiere beregain, hark erakharri derauko begitarte. Axularren hitzak aldaturik, "zure gerizan doha, zure itzalaren azpian benturatzen da" erran lezakeon Azkue Jaunari gure Akademiak ere. Gaur, ordea, lehenbiziko aldiz hautatze hunetan ohartzten da Jaun handi haren hutsunea. Hainbertze maite zuen bere Akademia, humezurtz geratu da, zuzendariz gabetua.

Eta herriz ere Axularren hitzak dathorzkit gogora: “Bai ordea joan zara, lekhuz aldatu zara, hemengo aldia egin duzu”. Joan zaiku bai Azkue jauna, ez ordea guretzat irakaspen ederrak utzi gabe; batez ere euskarari osotoro eskainia eta emana izan den bizitza baten irakaspenera. Bizitza bati eskatu zaiketon neurria baldin nehorik ezpainetaraino ta are gainez egiteraino bethe ta mukurutu ba’du, Azkue jauna izan dugu hori. Exemplantate—irakaspen, hori harr dezagula euskaltzain guztiok gure urhatsak zuzentzeko argi gidari bat bezala. Gure Zuzendari zenak euskararen alde egin duen lan ikaragarria ez noa ni orai ukitzera. Horr dira bere liburuak, batez ere bere Hiztegi nagusia, “euskeraren onaren iturri” (1). Hemen du, bada, Euskaltzaindiak, bere ospe handi bat ezezik, bere ondotik dathozten gainerako lankideontzat eredu ta bide-erakhusle bat ere baita.

Azkue jaunaren gorasarreko hitz hoiaren ondoren, goazen orai artez zedarriztatuzera eta zuzenki gure hitzaldirako hautu dugun alhorra bereizi ta mugatzera.

Eta lehenbizi, baldin gauza guztietan azken jo-muga ta helburuari oharitu beharr bazeaio, gure Euskaltzaindia zertarako sorthua izan zen begien aitzinean edukitzea ezta alpherrik izanzen, gure gaurko hitz eta lanak elkhargo hunen helburuaren araura zuzenduak joan ditezten. Euskara, gure herriaren ondasunik eta altxorrik handiena dugun hau, zaindu eta bizirik athera, eta xede gorengo hori atzeman ahal izaiteko hartu beharr lirateken ardura ta erabakiak hartzeko, huna hemen gure Euskaltzaindia zertarako jarri izan zen, huna hemen gure betebeharr handia.

Gure mintzo maite hau lurr jota, hilaginean edireiten dela ezin uka dezakegu. Beraz, nola bizirik atera, zein bide ibili beharr den hortarako, nondik norat jo beharr dugun jakitea, hunek izan beharr du egungo oren hunetan gure kezkarik handiena. Euskarak egun bizitzeko, irauteko, zeren premia ta beharra duen ikusi ta ahal den neurrian premia hunen erremediatzeko lanean saiatu.

Izan ere, hizkuntzak, gizonak bere gogorapen ta bururakizunen kanporatzeko dituen lanhabes, tresna edo instrumenta batzuek bertzerik eztira. Eta lanhabes hoik, mintzo denak, bere premi ta behar-kizunek galdegiten duten neurrian eta barne-gogoak ahalik eta hoberean adierazteko gauza izan ditezten amoreagatik, moldatzen, egokitzen ditu; bere irudi-antzeko bihurtzen dituela erran genezake. Euskara mendez-mende laborari-arrantzale batzuen hizkuntza bat bertzerik izan ezta.

Beraz, kultura-arazoetarako eta herri landu baten behar-kizunen expresatzeko gerturik ez egoitea, ezta miresteko. Gure laborari-

(1) Ormaetxea (N.), «Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra»; Euskal-Esnalea, 1927, orrialdean.

arrantzaleek beren tresna ta lanhabes hau egunoroko arazo eta beren mailako bururakizunak aditzera emaiteko ederki asko egoki dute, baina Euskalherriko gainerako gizarte-mailak, gainerako jende-suertek ez tute bertze horrenbertze egin; erdaraz balia ohi dira beren barne gogoen expressatzeko: handiki, jakintsu, ikaslari, hiri handitako jende xehea bera pre, eta jakina, euskara, ezertarako ezten tresna bat bezala, arbuiaua, beztererat egotzia edireiten denaz geroztik, han datza, gero ta gehiago herdoila lotzen zaiola, eta azkenik, gauzak doazten martxan, laborari ta arrantzaleak berak ere, lotsaturik, tresna hori utzi beharrean aurkhitzen dira.

Egia mingarriak, baina egia borobillak eta ahantzi behar ez tirenak. Egun eskolak, kulturak ta aurrerapenak ekharri dituzten zer guztiak, realitate berriak, non-nahi den sarthu dira ta erdal soinekoz jantzirik ethorri zaizkigu; beraz, egungo premi-arazo-beharkizunen expressatzeko egokiago, esku-errazago ageri zaiku erdara; baina hunen errua euskaldunek dugu, ez euskarak; Axularrek erranen luken bezala. Lanhabesak ibiliaren ibiliz zorrozten eta egokitzen baitira. Ibil dezagun, bada, guk ere euskara, ahoz lehenbizi, baina izkribuz ere bai, liburu, periodismu, eskola-gaietarako; nahiz jakintsu nahiz jende arruntak, eta hala, sentitu gabe ta ia nola eztaigula, beraz bezala, gure lanhabes hau landurik eta egungo arazoetarako gerthurik, egokiturik genduke.

Huhetarako, ordea, arau, argi ta zuzenbide batzuen beharra ta premia denok somatzen dugu. Gauzak dagozen bezala utzirik, guztiok dakigu norat goazen. Eta zuzenbide hoik nondik hel ditezke? Hain zuzen ere horretarakoxe dugu Euskaltzaindia. Bertze hizkuntzetan, gauzak sendo ta ongi ezarririk dagozela, Akademiak ez ohi dute ia bertze egitekorik, sarthu diren hitz, errakera ta forma berrien (balidin erro sakonak egin ba dituzte) ontzat eman eta onestea baizik. Gure artean, berriz, gauza guztiak egiteko dagozela, hizkuntza guztia beharrean dadukagula, zerbait gehiago igurikitzen du gugandik Euskalherriak, gure begira dadukagu herria, bere hizkuntza zaharra egungo premiak galdegiten duten maillan jartzeko eginkizun handi hunetan. Arau batzuk, zuzenbide ta argi batzuen eske dadukagu. Eta guk zuzenbide hori emanen ezpa generanuko, gure betebeharra ezkenduke behar bezala bethoko.

Egun arte euskara laborari-arrantzale batzuen hizkuntza bat izan dela erran dugu. Beraz, dagoen bezala, zibilizaziozko hizkuntza landuen, ondoan jarriz gero, anhitz gauzaren, faltan aurkhitzen dela erran beharrik eztago. Laborari-arrantzaleek izan ohi dituzten arazo, harr eman ta beharrikizunetarako behar dena ba-du. Baina egun euskara bi hizkuntza landu handi ahurpegi eman beharrean edireiten da, heekin aitzinez-aitzin gudukatu beharrean, eta baldin bi erda-

ra hoik nagosituren ezpazaizkio, beharr-beharreko dugu euskarari harmen emaita, indarrgailuz hornitzea, ahal den neurrian heiekin berdin dadin, heien abantailak beregana ditzan, bertzeek baino kon-dizino txarragoko zelako azpiko athera ez dadin.

. Orai bada hizkuntza landu heiekin elkarr jotzean, euskara bi gauzatan inferioritate agirian edireiten dela nabari da. Eta hori erraitean ezlut gauza herririk aiphatzen. Campion jaun euskaltzain zena hortaz ohartu baitzan. Bi hutsune heietarik lehenbizikoena lexikon-aldetik du euskarak. Huna hemen Campion beraren hitzak gai huni buruz. Euskararen gibelaldi ta behera-aldi hunen sustrai sakon ta atzen-kausak ikhuskatzean, hunela mintzo da:

“La pobreza creciente del vocabulario euskérico, comparado al de las lenguas vecinas del euskera. Nuestra lengua patria, en su estado actual, no puede expresar castizamente todas las ideas que los idiomas cultos expresan. Necesitamos cientos y aun miles de neologismos. El euskera los formará de su propia sustancia, sin acudir al griego, como es costumbre inveterada de los idiomas europeos”.

Eta beherago:

“...dicho dialecto [guipuzcoano], como los demás, es el habla de labradores y pescadores, el habla del vulgo; le faltan cientos y miles de vocablos poseídos por las lenguas cultas, que las clases directoras necesitan” (2).

“El que sea indispensable establecer una lengua literaria y oficial apenas necesita demostración. Basta recordar lo que suele pasar en los pueblos que carecen de ella: la unidad de habla va disminuyendo cada día más, mientras van apareciendo subdivisiones dialectales infinitas que se apartan cada vez más unas de otras, y ofrecen al mismo tiempo menor resistencia a la invasión de elementos extraños” (2).

Entzun dugenez, Campión jaunak benetazko hutsune hunen erremediatzeko hitz berrien moldatzea, euskal sustraiez eratutako hitzen asmatzea propositzen du. Izan ere, sasoi batean (ta orai ere ez gutik) euskaraz euskal jatorrizko hitzak soil-soilik erabil ditez-kela uste ukhan dute; aburu hori, ordea, zein okherr ta gure hizkuntzarentzat kaltegarri bilhakatu den guztiz frogatua ta agirian emana izan dela derizkiot. Erbestetik datorzkigun gauza berriak, izena ere erbesteko izaitea komunzki gerthatu ohi da; gauzarekin batean izena ere zergatik hartu ez, non nahi zabaldurik bada behintzat? Kultura-gaietan ere terminologi orokarr bat hedatu da Europako hizkuntza landu guztietan; nahiz indoeuropeotarr hizkuntzen enborreko

(2) «Informe de los señores Académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la lengua vasca sobre unificación del euskera»; Bilbao, 1920, pp. 17, 19.

izan, nahiz izan ez, kultur-terminologi greko-latindarra onetsi ta beretu dute hizkuntza guztiok.

Beraz, kultur-hitzok guk ere euskarara zergatik aldatuaren ezitugu, izen berri guti-gora-beherakoak asmatzen ibilli gabe? Guk asmatu-izenak ez tute izanen ez bertzeen erran nahi tinkoa, ez kutsu berarizkoa; anhitz mendetako kulturak izen heiei indarr bere moduko bat, jario ta gizentasun berezko bat iratxeki bai teraue; beraz, ezin utziak dira. Kultur-hitz hoik hartzeko ateak hertsiaz euskarari eskutatik harmen edekitzea bertzerik egiten ezteraukogu, mila idea egoki ta tinko ezin expressatzeko herstutasunean uzten dugu, bizidun bati bizigailua debekatuz hiltzera behartzen dugu.

Linguistek erakustera eman dutenez, nehongo hizkuntzak, bizitzeko beharr dituen elementa guztiak ezitu bere baitan bilhatzen; ingurutik, kanpotik etxeratu beharr izaten du asko edo guti. Euskarak, konposizino ta derivazino bitarfez asko ba dezake ere, lekhua franko ta premi ez tipia du oraindik kanpoko hitz hekien errezibitzeko. Bertze aldetik, nahiz eta oinetatik bururaino erdal hitzez josita agiri, hizkuntza batek eztu horregatik bere norberatasuna galtzen, hizkuntzaren gora-behera guztia ezpaitago vokabulari edo hiztegian, morfologian baizik.

Alde huntatik, bada, atheak hertsia beharrean, zabaltzera jo beharr gendukela derizkiot. Kultur-hitz hoik, ordea, euskarara aldatzean, nolako arauak gorde beharko othe dira? Ezta ahantzi beharr, huni burüz, *Campion Jaunak* erran deraukun hura: "...vocablos... que las clases directoras necesitan". Kultur-hitz hoik jakintsuenak dira batez ere, beren arazo ta beharrkizunen expressatzeko beharr zirela-ta hizkuntzan sarthu baitziran, gero gainerako jendeak erabili ta ahotan hartuko baditu ere.

Hizkuntza landu orotan gerthatzen da hau. Hitz asko izan ohi dira jakintsuek hizkuntzara ekharritakoak; frantsesez "mots savants" dute izena. Hitz jakintsu hoik beren aparteko itxuran dute ezagun etorrki ta jatorri berezia, ezpaitira herriak moldatu-hitzen araura antolatzen. Izan ere, herriak bertze hizkuntzetatik hartu-hitzak aldatu ta itxuragabetzen ditu, lege fonetiko batzuen araura moldatuaz. Jakintsuek, berriz, beren kultur-hitzak ahal den gutiena aldatu ohi dituzte, beren leinua hobeki aditzera emaiteko eran laga nahi izaiten dituzte, batez ere hizkuntza idatzian.

Gainera, herriak erdal-hitzak albo-hizkuntzetatik hartu ohi dituen artean, jakintsuak kultur-hitzen bilha ithurrirat joan ohi dira arthez. Gure Okzidenteko kulturaren ama ta kulturhitzen moldatzeko ithurri zein hizkuntzak diren denek dakigu: greko ta latin hizkuntzak, alegia. Euskaraz ere, bada, bertze hizkuntza landu guztietan bezala, kultur-arazoetan gure lexikon oparotzeko egikizun huntan zuzenbide edo arau hoik gorde beharr direla dirudi.

Bertze hizkuntzetatik euskarak hartu beharr dituen hitzei buruz Altube'tarr Seber ta Krutwig'tarr Karol euskaltzain Jaunak hari izan dira; hura herri-bidetik sarthu direnez jardun zaiku, hau berriz kultur edo jakintza-bidetik euskarari sarthu beharr direnez (3).

Hoik, ordea, iragaitzaz bezala ukiturik (ezpaita nere hitzaldirako hartu gogo nuen gaia) eta egiteko huntan eskuak sarthu dituztenen izenak aipha ondoren, ikhus dezagun orai zein den Campioneek euskarari nabari zuen bi akatz edo hutsuneetatik bertzea, bigarrena, euskarari, hizkuntza landuen aitzinez-aitzin jartzen denean ohar-tzen zaion eri edo gaitza. Euskarari bi alboetatik gerla egiten derau-koten bi hizkuntza landuek (espainiatarra ta frantziatarra, alegia) sakon, sustraitik, sendo ta aspalditik dute ardietsia hizkuntzaren litteratur-batasuna.

Litteratur-arazoetarako hizkuntza hoietan hizkera berdin bat, erabateko bat bertzerik erabiltzen ezta. Bateratze hunek hizkun-tzari dakarkon mesedea ta irauteko emaiten deraukon barne-indarr arrigarria nik erran ahal nukean baino handiagoak dira. Linguistek aithortzen dutenez, bi hizkuntza aitzinez-aitzin jartzen direnean, baldin bi hoietatik bat landua bada ta bere litteratur-batasuna sendo lorturik ba daduka, bertzea berriaz dialektutan puskañurik eta basati-itxuran agiri bada, berehala gerihatzen da denok ikhusten dugun hau: litte-ratur-batasun hori eginik dadukana bertzeari nagositzea, alegia; litte-ratur-arazoetarako gauzak tinko ta erabateko arauekin ongi ezarririk ezitituen, berriz, galtzen, ahitzen, atzeraka joaita (4).

H. Gavel'en hitzak dira:

“El que sea indispensable establecer una lengua literaria y oficial apenas necesita demostracion. Basta recordar lo que suele pasar en los pueblos que carecen de ella: la unidad de habla va disminuyendo cada dia más, mientras van apareciendo subdivisiones dialectales infinitas que se apartan cada vez

(3) Altube'tar Seber, «Erderatiko itzak, itz barniak eta antxina-itzak», Euskera, I urtea, II zenbakia, 44'gn. orrialdean; «Izkuntz-jakintza ta euskeraren bizitzia», Euskera, II urtea (1921); «La Vida del euskera», Euskera, XIV urtea (1933), IV zenbakia, 299'gn. orrialdean. Krutwig'tar Karol, Euskaltzaindiko sarre-hitzaldia; «Euskaltzaindian igorritako Proposizioak» (1950), V'gn. parte (argitaratu gabe).

(4) «Il faut considérer en outre l'homogénéité linguistique des éléments en présence. Les Germains du V siècle qui occupèrent la Gaule, divisés en peuples de dialectes différents, Francs, Burgondes, Wisigoths, etc., étaient, a cet égard, en état d'infériorité manifeste vis-à-vis d'une population parlant une seule et même langue, le latin. Au contraire, les Romains, au lendemain de la conquête des Gaules, apportaient un langage unique a une population hétérogène parlant des langues et des dialectes extrêmement divers». (A. Dauzat, «La Philosophie du Langage», Paris, 1920, livre II Ch. III, Histoire externe des langues, p. 139).

más unás de otras, y ofrecen al mismo tiempo menor resistencia a la invasión de elementos extraños" (5).

Urkixo Jauna ere hunela mintzo da:

"Aun dejada de lado toda razón de orden sentimental, la necesidad de convertir al vascuence en lengua de cultura es consecuencia lógica del deseo de conservarlo: porque es un hecho admitido por todos los lingüistas, que allí donde lucha una lengua de civilización con otra reducida al uso vulgar y que no se cultiva literariamente, la primera acaba por imponerse a la segunda". "Es esto tan cierto que aun en nuestro propio país, mientras el vascuence cede ante el empuje del castellano, lengua de civilización, permanece estacionario en su frontera vasco bearnesa, porque allí no linda propiamente con el francés, sino con un patois vulgar e iliterario" (6).

Vendryes hizkuntzalariak frantsesaren eta Bretaña'ko hizkuntzaren arteko harr-emanak deskribitzen derauzkigu (7). Bi hizkuntza aitzinez-aitzin. Alde batetik frantzitarra, hizkuntza handia, kultur aberats baten jabe, literatura-arazoetarako bat egina. Bertetik hizkuntza tipia, landugabe ta gainera dialektutan puskatua. Zer gerthatzen da orduan? Bretañitarra gero ta frantsesetiko hitzez bethetzenago joaitea, gero ta urritzenago, ahitzenago. Gainera, dialektutan puskatu rik dagoela, alde bateko bretañitarrak bertze aldekoekin elkar aditzeko frantsesera jo beharrean edireiten dira, eta hala, Bretañan bertan ere, frantsesa guztien hizkuntza bilhakatu da, bretañitarren arteko harr emanetarako oren hizkuntza bezala erabilia da, Bretaña ko mintzoa dialektuzko bere puskatze horrekin hortarako gauza etzelarik. "De esta manera el francés ha llegado a ser para Bretaña la lengua común, lo que el bretón, con su fragmentación dialectal, no ha sido nunca" (8).

Eta Vendryes jaunak Bretaña ko hizkuntzari buruz erran dituenak, guk hitzez hitz euskarari buruz erranak bezala harr ditzakegu. Hain zuzen ere Campion jauna gaitz hunetzaz oharrtu zan. Huna hemen bere hitzak:

"La multiplicidad de dialectos, sub-dialectos y variedades que dificulta la mutua comunicación y trato entre los naturales de los diversos territorios vas-

(5) H. Gavel, «Necesidad de una lengua literaria y oficial y la unificación de la ortografía vasca»; Revue Internationale des Etudes Basques, t. X (1919), p. 137.

(6) J. de Urquijo, «Lengua internacional y lenguas nacionales. El euskerá lengua de civilización»; Rév. Intern. des Etudes Basques, t. X. p. 173.

(7) Vendrye, «El Lenguaje», Barcelona, 1943; IV Parte, Constitución de las lenguas, Cap. IV Contacto y mezcla de las lenguas, p. 377-380.

(8) Vendryes, p. 380.

cos, obligándoles a servirse, supletoriamente, del castellano y del francés, cuando las diferencias dialectales son muy hondas" (9).

Hizkuntza bat sendo ezarritako kultura aberats baten jabe denean, hizkuntza hunek berebiziko indarra agertzen du, bai irauteko eta bai bertzeai nagositzeko ere. Hunelako hizkuntza baten erdian bizitzera ethorri ohi diren arrotzek, bertze hizkuntzetako lagun-mordoez, lasterr galtzen dute jatorrizko hizkuntza, bertze hau hartzeko. Hizkuntza landuak bertzeak suntsiarazten ditu. Baina hizkuntza landugabearen erdian bertze mintzoa duten lagun-mordoa ethorr badadi, eztu jatorrizko bere hizkuntza hain errez galtzen. XVIII gn. mendean Sierra Morena alderat ethorritako alemanitarrek lasterr galdu zuten beren hizkuntza, alemanitarra Espainiko alde huntan suntsitu zan; eslovenitarren arterat joandakoek, berriz, ba-diraute oraindik alemanitar hizkuntzaren jabe (10).

Hizkuntza landua ta hizkuntza litteratur-arazoetarako bat-egina kontzeptuz ez tira behar bada gauza berdin, bai ordea bata bertzea berekin dakharrena, biak elkarrekin bethi ikusten direnak. Eta hauk hunela direlarik, erranik dago hunez gero zein ardura handiko gauza den, euskararen bizitzarako ta iraupenerako zein premi handiko den gure mintzoaren litteratur-laborantzan lan egitea. Hunetarako, ordea, litteratur-euskara baten moldatzerat jo behar dugu. Euskal dialektuen gainetik eta hoi en eskubideak ukhatu gabe, litteratur-arazoetarako, kultur-beharkizunetarako euskara mueta bat, molde berezi bat kreatu beharra dugu eta euskaldun guztien arteko harr-emanetarako litteratur euskara hori erabili. Nor bere herriko edo eskualdeko euskaramuetaren araura idazten ibiliaz eztraukogu euskarari emaiten hark, egun, bizitzeko eta irauteko behar duena.

Campion jauna euskararen premi hunetzaz ongi oharrtu zan, hunela mintzo baita:

"La unificación del euskera, o hablando más concretamente, la adaptación a los menesteres literarios y científicos de una manera de hablar euskariana uniforme... es, acaso, la más grave de las cuestiones que puedan someterse a los debates y sentencia de nuestra Academia".

Eta beherago:

"O la lengua vasca se unifica, haciéndose capaz de expresar inteligiblemente para todos los naturales de la Euskal-Erri, desde Zuberoa a Bizkaya, las ideas y los sentimientos de la cultura vasca, actual y venidera... o degenerando irredimiblemente en patué el euskera, perece. Esta es la disyuntiva. ¿Puede titubear la Academia?".

(9) Campion (lehen arphatu-lana). 17 gn. orriáldean.

(10) Vendryès, 377 gn. orriald.

Bi eginkizun hauek, lehen ukitu duguna (euskara kultur-lexikonaz aberastea) eta orai hari garen litteratur-batasuna dira, bere iduriz, Euskaltzaindiaren eginkuzunik premiatsuenak:

“La unificación de la lengua y la fecundación del vocabulario, hoy, antes que mañana, debe emprenderlas la Academia”.

Eta azkenik:

“La lengua vasca unificada y enriquecida, es la lengua de lo porvenir, de no renegar los vascos vergonzosamente de sí mismos. Si imitan el ejemplo de los pueblos que supieron levantar de la postración a sus idiomas particulares, antiguamente hermosos, pero caídos en el envilecimiento de patués rústicos, o poco menos: así los húngaros, finlandeses, bohemios, flamencos, rumanos, yugoeslavos, griegos y otros” (11).

Altube'tarr Seber euskaltzain jaunak ere, euskal-pizkundeak izan dituen makhurr eta akatzez mintzo zaikula, hauxe dirausku:

“Y esta insinuación sobre el prestigio que infunde a los idiomas su mayor difusión, nos da pie para consignar de paso, que otro de los gravísimos errores del renacentismo euskérico radica en la falta de una idea directriz que conduzca paulatinamente a la unificación de la literatura euskérica. Si no nos sirviera de enseñanza la historia de la formación de todas las modernas lenguas literarias nacionales, el instinto de conservación debiera precavernos de la imposibilidad de luchar contra idiomas tan extendidos como el francés y el español, con una literatura euskérica dividida en tantas fracciones como dialectos presenta el idioma” (12).

Hemen Altube jaunak dionez, batasun hori ezta bat-batetan sortzen, ezta egun batean egiten den gauza, bainan jo-muga horrtara nehoiz helduko bagara, zuzenbide baten beharra dadukagu, urhatsak nongo alderontz zuzendu beharr diren jakin beharra dute euskaldunek. Eta zuzenbide hori herriari emaita, nori dagokio, Euskaltzaindiari ezpada? Hauxe du, dudarik gabe, Euskaltzaindiak bere egitekorik larriena.

Horregatik Krutwig'tarr Karol euskaltzain jauna ere Euskaltzaindiari igorritako bere Proposiziñoetan era hunetan mintzo da:

“Si la Academia no logra que el vascuence llegue a ser una lengua literaria unificada (lo cual no significa que los dialectos hablados hayan de ser combatidos), por mucho que la Academia haga en pro de la conservación del euskera, por mucho que floren y pataleen los populistas amigos de que hay que escribir en vascuence en todas sus modalidades y dialectos, el vascuence seguirá su marcha de retroceso y morirá. La lengua literaria siempre es un símbolo de educación y distinción y el vascuence nunca representará otra

(11) Campión, 3-4, 18, 18-19, 20'gn. orriald.

(12) Altube, «La vida del euskera», p. 382.

cosa que la falta de cultura y rusticidad mientras no se posea una lengua literaria. Crear un tal idioma es obligación de la Academia, para lo que fué fundada" (13).

Euskarak alde huntatik zein hutsune handia duen ikusteko zilegi izan bekigu oraino Hovelacque linguistaren hitz batzu hemen gogoratzea:

"Las variedades de la lengua vasca son, por así decirlo, innumerables, y cada villorrio tiene alguna particularidad que le es propia. Ello no tiene, ciertamente, nada de anormal. Mas, al lado de la lengua espontáneamente hablada, del lenguaje local, los idiomas tienen un dialecto general, en cierta manera convencional, fruto de la educación y que muchas veces es muy vecino a la lengua escrita. Pero en vasco no hay nada de eso, y cada escritor se fabrica una lengua a su fantasía" (14).

Agiri da, beraz, litteratur-euskara baten moldatzea guztiz beharreko dela euskara beraren bizitzarako, iraupenerako. Euskarak, egun ezeñsten deraukoten hizkuntza landuekin indarrak berdinduren ba ditu, bidezko harmekin hornitua izan beharra du eta harma hauietan premiatsuen, lehenbizikoena hauxe da, litteratur-arazoetarako euskara-mueta bat hautaturik, harturik edukitzea eta alde guztietako euskaldunek litteratur-euskara hori ikasi eta erabiltzea.

Bainan eginkizun handi hori bethetzeko, beharr dugun euskarmolde bakarr berezi hori hautatzeko, zein bide hartu beharr da? Hautatzean ez huts egiteko zein kriterion edo nolako arauak gogotan eduki beharr othe dira? Hau da puntua, arloa, "aorrtxe dago unteza", bizkaitarrek erraiten dugunez.

Hain zuzen ere problemata hau, orai dela 30 urthe, Euskaltzaindia sortu-berri zelarik, biziki astindu ta eragin zan, Liburuetakoko euskara-mueta bakharr bat beharr zela, alegia, ta xede horren ardiesteko zein bidetatik sartu beharko genduken. Bat egite, unifikazino hori zela ta etzela hitz zuhurr ta gogoangarriak izkiriatu zituzten Gavel, Urkixo, Ormaetxea, Campion, Menéndez Pidal, Garitaopandia, Azkue eta berze askok (15). Oraitsuago Lafitte Jaun euskaltzainak ere gai huni buruzko here iritzia agertu du (16); eta Altube jaunak ere bai, orai dela hortz sei urte Baionan izandako konferentza batean (17). Eta

(13) Krutwig, Euskaltzaindiari zuzenduriko Proposizinoak, II gn. Partea.

(14) A. Hovelacque, «La Linguistique», Paris, 1877, p. 155 (Altubek aiphatua, 382'gn. orriald).

(15) Lan hauetatik gehienak Euskaltzaindiaren agerkarian argitaratu ziran, Euskera, III'gn. Urtea (1922) «Euskeraren batasunaz izan diran batzaldietan irakurtitako txosten edo ikerpenak».

(16) Abbé P. Lafitte, «Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)», Bayonne, 1944, Préface, p. 6.

(17) Severo de Altube, «La unificación del euskera literario» (Conferencia leída en el Congreso de Estudios Vascos celebrado en Bayona en septiembre de 1946); Eusko-Jakintza, 1949, pp. 181-204.

azkenik, Krutwig jaunak, gorago aiphatutako Proposizinoetan (18).

Guzti horiek errandako gauzak guk hemen orai berrituen ezitugu, bainan hitz zuhurr ta gogoan idukitzekoak kontuan hartu bai. Eman izan diren iritzi ta aburu nagosiak zenbait burutara bildu nahi izatez gero, ordea, hunako hirur hauk dira nire iduriz aipagarrienak:

1) Gipuzkera hartu beharr lizatekela, Gipuzkoako euskalkia bertze euskal dialektu orenen erdi-erdian jarririk dagolako ta gainerako euskaldun guztientzat hulert-erraza dela-ta, behau hautatzea izango zela egokienik uste ukhan dute gehienek, Garitaonandia, Campion, Olabide, ta batez ere Azkue euskaltzainburuak berak ere, Altube jaunak aithortzen duenez, Geographi-aldetik ekarritako arrazoiak ziran aburu hunen jarraitunak Gipuzkoako euskara-alderontz makurtzen zituztenak (19). Azkue jaunak, ordea, Gipuzkoako euskara oinharri bezala hartuaz, bertze euskalkietako edertasun ta berezitasun onurazkoak txertatú beharr zitzaizkiola uste zuen, eta berak nahi zuen gipuzkera elkhartu edo osatu hori nolakoa izan beharr litzakean erakhusteko bere "Gipuzkera osotua" ta bertze zenbait lan argitarat eman zituen (20). Aita Olabide'ren "Itun Berria" ere, Gipuzkoako euskara oinharri bezala izanarren, non-nahiko ondasun ta edergailuz aberasturik agiri da, eta egileak nahi zuen euskara orokarr hori agertzeko egina izan dela emaiten du (21). Altube jaunak ere bere aburua gipuzkeraren alde agiri du; bainan berehala ta berbertatik batasuna zero ardiestea eginkizun erraza izanen ezteela irudi zaio; beraz, atzen jo-muga hori oraidanik begien aitzinean izanik, astiro ta baratz bada ere, gure urhatsak hartara zuzentzen saia beharr gara (22).

2) Gipuzkera-zale hauei buruz eta euskararen litteratur-batasunaz bere "Grammaire Basque"aren aitzin-solhasean mintzo delarik, Lafitte euskaltzain Jaun aphezak mamiz hauxe erraiten du: Batzuk litteratur-euskararen batasun hori revoluzinoz ardietsi nahi izan dute, bertze batzuk, ordea, evoluzinoz. Bere iduriz, Euskaltzaindia, gipuzkera litteratur-euskararen oinharri bezala hartzean, beharr den baino lasterregi, arhinegi zihoan, Frantzi-aldeko Euskalherrirako behintzat. Ia senfitu ta oharritu gabe joera berezko bat somatzen omen da hango Euskalherrian litteratur-euskara bakharr baten moldatzeko.

Laphurdi ta Be-Nafarroako mintzoak nahasiz, atzen hirur hogoi urtheotan litteratur-hizkera berezi bat sor-arazi omen dute hango idazleek, eta litteratur-hizkera hau hango Euskalherri denean zabal-

(18) Krutwig, II'gn. partea.

(19) Altube, «La unificación.», pp. 189-190.

(20) Resurrección María de Azkue, «Gipuzkera osotua», Bermeo (Vizcaya), 1935; «Prontuario de la Lengua Vasca»; «Ardi galdua»; «Batasunera-bidean», Euskera, VIII.

(21) Olabide'tar Erramun, S. I., «Itun Berria», 1931, Bilbon.

(22) Altube, «La unificación...», pp. 190-198.

tzen hari omen da. Litteratur-hizkara hori “laphurtarr berri” edo “benafar-laphurtarr” izenarekin izendatzen du Lafitte berak eta hizkara huni buruz antolatua izan da bere euskal-Grammatika.

Han iritxi den batasun hau, berriz, euskara osoaren batasunerako urhats bat bertzerik izanen eztela igurikitzen du. Gainera, litteratur-hizkara hori litteratur-arazoetarako soil-soilik dela oharritzen du Lafitte jaunak; egunoroko solhastatze eta gora-beheretan, bethi bezala, toki bakoitzeko euskaramuetak erabiliren dira eta aho-hizkuntza hizi hunen aldaketa ta biraldakuntzek ethorkizuneko litteraturaren gain (orai arte gertatu den bezala) esku eta parte handia izanen dute (23).

Altube jaunak, berriz, Lafitteren hitz hauk hunela kommentatzen ditu: euskaltzainen artean gehientsuenak gipuzkeraren alde makhurtzen baziran ere, Euskaltzaindiak berak etzuen araurik ez erabakirik eman berbertatik euskal idazle guztiak gipuzkera erabiltzen hasi zitezela aginduz. Eta bertze aldetik, gai huni buruz Lafitteren aburua ta berea bat datorzela aithortzen du Altube jaunak. Hau da: Frantzialdeko Euskalherrian, berez, poliki-poliki litteratur-euskara molde bakharr bat sortu da, Lafittek dionez.

Hemengo aldean bertze horrenbertze egin dezagun gipuzkera hartuaz, eta azken-urhatsa geroago ethorriren da, bi hoietatik bat eginaz. Hurrengo urhats hori emaita possible izan dadin, ordea, atzen helburua zein izanen den oraidanik ezarri beharko gendukela uste du; evoluzino hunek non bukatu beharko duen aldez aurretik jakinez, eredu edo jo-muga hartarat ethengabe hurbiltzen hariko baitgara. Atzenengo jo-muga hori, ordea, bere aburuz, Gipuzkoako euskaran ibeni beharr da.

Batasuna lortzeko, berriz, Altube jaunak ikusten duen biderik erazkoena Eliza da. Deba ibai-ertzeko herriek, bizkaieraz mintzo direlarik, hitzaldietarako, liburuetarako giputz-euskara nahi ukaiten dute; hori entzun, irakurr ta idatzi maite dute. Alde hortan, bada, litteratur batasuna lorturik dadukagu, eta nor izan dugu mirari hunen egile? Eliza.

Elizak herri hauietara aphez gipuzkoarrak igorriaz, jendea giputz-euskara pulpitan entzutera ohitu da eta egun nahiago du beharkizun prestuetarako euskara hori erabili berea baino gehiago. Eta herri-mordoska hunetan hori bide huntatik ardietsi baldin bada, ez abal lizateke hau biderik errazena Euskalherri osoan ere berhorixe ardiesteko? Apezek beren apez eginkizunetarako euskara molde ba-

kharr bat harr dezatela, eta asko dezakete nahi dugun helbururat heltzeko (24).

3) Hirurgarren tokian Krutwig euskaltzain jaunaren aburua azalduko dugu. Hunen iritziz, euskarak ba-du bere litteratur-hizkara, laphurtarr zaharra edo klásikoa, alegia, gure idazle nagosiek moldatu zutena. Beraz, hura erakutsi ta litteratur-egikizunetarako erabili beharr genduke euskaldun guztiek. Hemen dugu ororen arteko harr-emanretarako beharreko dugun litteratur hizkuntza; huni jarraikiaz ta lotuaz bilhatzen duguna lórturik dádukagu.

Aburu hunek aurrenengo biekin duen alde handia hunetantxe datzalá erranen nuke: lehenbiziko bertze aburuek, litteratur-euskara moldatzeko, egungo aho-hizkuntza hartzen dute oinharri bezala, hura dute kontuan. Egun mintzo diren dialektuetatik edo egun erabili ohi diren litteratur-hizkaraetatik bat hautetsi nahi dute, euskal Litteraturaren Historia alde bat utzirik. Baina Krutwig jaunak dionez, litteratur hizkuntza batez ere hizkuntza idatzia da, izkiriatuá, eta hizkuntza izkiriatuak bere arau, lege ta eskubideak izan ohi ditu, tradizinoz sorthuak. Tradizino huni eutsi beharr zaio, bada.

(24) Altubé, «La unificación...», pp. 197-8, 202-204. Deba hibai-ertzeko hiriak, herriz guipuzkoarrak, elhez bizkaitarrak direla jakina da. Hiri hoik, hitzaldietarako-ta, giputz-euskara eurena baino nahiágo izan ohi dutela egia da; bikainago ta prestuagotzat jotzen batute. Zaletasun horren sustrai ta azken erroa, ordea, aphez gipuzkoarrekin hoiñan eram dituztela, ezlitzake hain erraz frogatzea. Aitzitik, hori aspalditik dathorren gauza dela dirudi, Gazteizko eliz-barrutia sortu baino lehenagokoa. Hain zuzen ere, Gazteizko eliz-barruti hori ézari zan arteraino, hiri hoiek, Bizkaiarekin batean, Calahorra'ko eliz-barrutikoak ziran; elhez gipuzkarak direnak, berriz, Irufakoak. Beraz, aphez bizkaitarrekin gipuzkoarrekin baino har eman gehiago izángo zuten, beharbada, hiri hoik; eta hala ta guztiz ere bazuten ordun ere gipuzkararen alde joera. Iklus Bonaparte Prinzeak bere guthun batean zer dión: «Cuando digo vizcaíno, y no guipuzcoano, de Vergara, sé muy bien que esta manera de hablar desagrada a los Señores Vergarés, pues se precian de ser guipuzcoanos puros. No digo que no, de la misma manera que no niego qué los sermones de sus sacerdotes más instruidos, y frecuentemente incluso el lenguaje ordinario de las personas más esmeradamente educadas, sea no solamente guipuzcoano, sino incluso de la variedad más pura de Beterri. Todo esto, en cualquier caso, no cambia en absoluto mi manera de ver. Quieran o no los Vergarés a los vizcaínos y a su dialecto, digo que no es menos cierto que la variedad vasca de Vergara, que se extiende hasta Anzuola (el guipuzcoano por este lado no comienza hasta Villarreal y Zumárraga), tal como está en uso entre el pueblo bajo y los aldeanos, pertenece, lingüísticamente hablando, al vizcaíno oriental.» (Páris, 11 de enero de 1863) J. de Urquijo, Cartas escritas por el Príncipe... RIEV, IV, 257). Aldé batetik, bada, zaletásun hunen ithurburua, hiri hauk gipuzkoarrak direlako hori alde bat utzirik ere, gipuzkarak, litteraturaz landuágo izán delako, bizkaitar beral ere berea baino dotoreago-edo agertzen zaie. Hortaz A. Cardaberaz ere ohartzen da («Eusqueraren berri onac», 13'garren orriald.).

Beraz, litteratur-hizkuntza moldatzeko, egungo dialektu biziak baino gehiago, euskara idatziaren litteratur-tradizinoa kontuan eduki behar da. Hauzi hau garbitzeko orai-arteko Litteraturaz konturik egiten ezpagendu, orai hasiko ba gina bezala erabakiz, aspaldiko mendeakin eihen bertzerik egiten eztugu, eta hala Litteratur bati joandako aldiekin lotzetik eta elkhartzetik ethorri ohi zaien kutsu veneragarria, prestutasun-usai ta balioa gureari kentzen deraukogu. Jakina, joandako mendeetan litteraturarik ezpalego, nahi ta nahiez orai-alditik hasi beharrrko genuke, bertze biderik ezlizateke-ta.

Euskal Litteratura tipi-apalak eztitu beharbada bertze hizkuntza handi-landuak bezalako ogasunak, baino dugun apurr hori ezta gutiestekoa. Beraz, hunekin elkharturik eta gure antzina-aldian omak tinko ezarririk, beldurrik gabe etorkizunerat beha dezakegu. Litteratur-euskarak euskaldun ororen arteko symbola bat behar du izan, euskaldun guztiak elkartzeko gauza izan bear du, ez Geographiaren aidetik bakarrik, Historiaren aldetik ere baita. Hortarakotz antzina-aldi, orai-aldi ta biharko euskaldunak ere kontuan eduki behar ditu, ororen artean goi-batasun bat egin nahiz.

Litteratur-tradizionari beha baderaukogu, berriz, laphurtarr klasikoa atera zaiku jaun ta nagosi. Berhau, bada, ta hizkara huntako idazlari hoberenak jarri ditzagun literatur-euskararen eredu ta kanon bezala. Litteratur-hizkarak kanon baten beharra du, aitzindari ta argi egile baten premia. Eredutzat ibenitako idazle bikainen ondoan, gure gazteak (hoik gau ta egun eskutartean dituztela) ikasiren dute nahi dugun euskara bakar eta landu hori. Nahiz ta eguneroko zereginetarako bat bederak bere euskalkia erabili, literatur-arazo eta egunkizun prestuetarako hemen dukegu euskaldun guztiak behar genuena.

Krutwig jaunaren aburua zuzen azaltzen asmatu dudala uste dut. Hala ta guztiz ere berhunehun hitzetatik pusketa batzu hemen aldatu-
ren ditugu:

“Toda lengua literaria nace de una tradición escrita. De aquí que toda lengua literaria sea arcaizante y ofrezca estadios pretéritos del idioma. Sin el cultivo de la literatura ni la lectura de los buenos maestros que nos precedieron, nunca se llegará a la formación de un lenguaje literario. La lengua escrita no coincide nunca con el idioma hablado, aunque en éste haya de basarse. La lengua literaria presupone una tradición, presupone el aceptar como modelo a los buenos maestros que nos precedieron e intentar imitarlos como buenos discípulos en aquello que tuvieron de bueno. Ninguna lengua habría alcanzado su madurez literaria, si en vez de haber tenido presentes a los que antes escribieron, cada escritor se hubiera dedicado a inventar un dialecto para sí, o a escribir en cualquier dialecto o variedad. Que se haya de escribir para el comun entendimiento del pueblo vasco no significa, ni con mucho, que se ha de escribir en todas las modalidades o que se ha de escribir en el lenguaje comprensible hasta el último gañán.”

“Este lenguaje labortano clásico es (y no llevo a comprender cómo no se ha visto esto antes), como anillo al dedo, lo que la lengua vasca necesita. Es

una lengua arcaizante, es una lengua que ya no suena a vulgar, que se diferencia ya lo bastante de la lengua comunmente hablada por el pueblo labortano para no ser tomada por el dialecto popular de esta región, y que, habiendo tenido los antiguos escritores una amplitud de miras, de las que parecen estar desprovistos los actuales, el dialecto labortano ya desde antiguo ha tendido a ser el dialecto comun de los vascos" (25).

Campion jauna ere laphurtar zaharraren balioaz ongi ohartu zan, lehen aiphatutako txosten hartan hunela mintzo baita:

"Si hubiésemos de mirar sólo a la importancia lingüística del dialecto, ni discusión cabría: habríamos de preferir el labortano antiguo o arcaico, tenido de bajonavarro oriental, y sobre todo, de suletino: el dialecto del Nuevo Testamento de Leizarraga, impreso el año 1571" (26).

Egun, Krutwig jaunaren kemenari eskerrak, euskaltzaleak, Bizkaiko alde huntan batez ere, laphurtar klasikoarekin zaletzen eta berotzen dioazela dirudi. Bilboko "Ürkixo'tar Jul Elkharrgoa" gogotik lan egiten hari da. Erkiaga, Garro ta bertze euskal idazle prestuek izena eman deraukote elkargo huni. Laphurtarra erakusteko aulki bat Bilbon jarri da, Arrutza jauna irakasle delarik. Aldizkari bat argitaratzeko asmoa ere ba-dute.

Gainera, laphurtar idazlari hoberenen edizino berri-egokien ateratzeko asmoa hartu dute, gure gazteok literatur euskararen ereduak aisa erabil ahal detzaten. Euskara hunen Grammatika bat moldatzen ere hari dira auzolanean, lankide anhitzen artean. Gero, beharbada, hiztegi bat ere ilkhiren da. Eta liburu berri ta itzulpenak ere baita, Jainko lagun, denak euskara batu hunetan eginak. Etorriko ahal zaiku abiadura huntatik Euskalherrian hain beharreko dan euskaren literatur-batasuna!

Neronek ere aburu huni begi handia deraukodala eztut estaliko. Euskalherriaren hedadura guztia kontuan eduki behar dugula eta guztiontzat literatur-euskara bakarra moldatu behar dela ezagun da. Frantzi-aldeko euskaldunek bat eurontzat edukitzea, guk berriz emen bertze bat guretzat bakarrik, kalte handia lizatekela erran beharrik eztago, Euskalherri ta euskara bat direnez gero. Guk laphurtar klasikoa harturik, hangoak aisa ta lakhet hurbilduko zaizkigula dirudi; gipuzkara edo hemengo bertze edozein mueta hartuko bagenuke, berriz, eztut uste.

Aburu hunen sustrai ta azterrenak ikertu ta azaldu nahi nituke gaurko nere hitzaldi hunetan. Beraz, hortarako, hunako pontu hauk ikuturen ditugu:

I. Litteratur-hizkuntzak nola moldatu ohi diren aztertu, Historia eta Linguistikari berri batzu galdeginaz eta handik gurekiko atera ditezken irakaspenak ezarriaz.

(25) Krutwig, II'gn. partea eta II'gn. parteari eraskina.

(26) Campión, «Informe », p. 8.

II. Aho-hizkuntzak, ezpainetan darabilgunak, hizkuntza idatziarekin dituen zer-ikusi ta harr-emanak aditzera eman. Litteratur-hizkuntzaz hari garenez gero, hunen arau, lege ta zuzenbideak eta hizkuntza soilaren ixtudirako erabiltzen diren kriterionak berdin ezti-rela ahan-tzi beharr ezta.

III. XVI, XVII ta XVIII gn. mendeetan laphurtarr klassikoa erabili zuten idazleei gain-behatu bat eman, ororen artean osatzen duten batasun ederra ta etengabeko tradizino arraitua aditzera emanaz. Idazle hoik egiazko litteratur-euskara bat moldatu zutela agirian jarriko da. Laphurdiko euskalkia oinharri-zimendutzat hartuarren, bertzeetatik ere nahasi zuten asko edo guti, eta idaztean, ez Laphurdi tipia bakharri-k, Euskalherri osoa baizik, gogotan izan zuten. Hortarakotz dira gomendagarriago.

IV. Gure euskara landu hunek Orthographi, Morphologi, Syntaxis eta Lexikon-aldetik nolakoa izan beharr duen ukitzen dugu.

V. Aburu huni jarri zaizkikeon atzerapide eragozkarri-korapiloak askatu, objektinoai erantzun emanaz.

Atzen-solhasa.

I

Linguistikak agirian jarri duenez, hizkuntza guztiak, berez, dialektutan puskatzera, zatitzera, dute joera, makurtasun eta gogoa. Etengabe aldatzen hari dira, biraldakuntza dute lege. Euskararekin ere hori gerthatu dela ezagun da. Egun aho-euskara dialektutan banaturik agiri zaiku. Zuhaitz baten adarrak enborr berdinetik ilkhî diren bezalaxe, dialektu guzti hoik ere euskara bakharr eta berdin baten galtzarretik ilkhia-k bide-dira, hizkuntzak puskatzera eta aldatzera duen lege hori dela bide. Egungo dialektu hekien artean, dirudinez, bizkaitarra geratu zaiku antzinako euskara zaharr orokarr horretatik gertuen, hurbilen, gainerako guztiak aitzinago iragan direlarik.

Bizkaiko euskalkiari bertzeai baino zaharr-usai handiago som-tzen omen zaio, kutsu arkaiko berezi bat, linguistek diotenez. Halabainan, denak euskara bakarr orokarr batera bil ditezke, eta aspaldiko euskara zaharr hori, berriz osaturik, nolakoa othe zen bilatzera eta erakhusten emaitera saiatzen dira egun hizkuntzalar-riok (27). Dena dela (jardun-hauzi hunek ni narraion pontuarekin ezpaitu zer-ikhusi handirik), egun mintzatzten diren dialektuen deskripzino eta klassifikazino zeatza bai Bonaparte Prinzeak eta bai

(27) «Une grammaire comparée des dialectes basques, visant a la re-constitution des formes originaires, c'est-a-dire des formes du *basque* commun...». René Lafon, «Le systeme du verbe basque au XVI siecle», 1943, tome premier, p. 74.

Azkue jaunak ere utzi deraukute (28). Euskarak duen dialektuzko puskatze hau ezta, bada, miresteko gauza, hizkuntza orotan gertatu ohi denez gero. Hizkuntzak, berezko lege baten indarrez, banatzera, aldatzera duten joeraren agiri ta ondore dira hauk.

Bainan lege berezko hunen kaltetan, gizonak (Historia lekhuko zaikularik), elkarr aditzeko premiak eraginda edo elkarren arteko lokarriak hertsiago herstutu nahiz, hizkuntza berezi bat ezarri ohi dute aberri-hizkera edo ororen hizkuntza bezala. Hizkuntzak, bada, bere baitarik, berezi ta zatitan puskatzera dute legea; gizonak, ordea, lege horren kontra reazkino bezala, aberri-hizkuntzak kreatzen dituzte. Aberri-hizkuntza hoik ("lenguas comunes") nola sortzen diren Historiari galdegin nahi izanez gero, bi eratakoak, bi muetakoak izan ohi direla edirenen dugu.

Lehenbiziko era, mueta edo tipuak gora-behera politikoekin zerikusi herstu-meharra agertzen du. Toki bakarr bateko mintzoa (toki hura herriburu zelako gehienetan) aberri-hizkuntza bezala hartua izan da, eta mintzo berezi hura, eskola bitartez, idazle, liburu, grammatikalarien egitez hedatu ohi da, gainerako hizkuntza-muetak (nahiz antzeko nahiz ezberdin izan) itotzeraino, edo behintzat hartarako abalak egiten dira. Tipu hunetakoak dira antzina-aldiko eta egungo litteratur-hizkuntza landu asko.

Erraiterako, antzina-aldian greko ta latin hizkuntzak, Grezia, lehenbizi, dialektutan puskatu agiri zaiku; dialektu hauietarik bat bederak nork bere litteratura zedukan (euskaran egun gerthatzen den bezalaxe); gero, ordea, dialektu hoietatik bat, Atika'koa, alegia, Grezia osotara hedatu zan, eta ez Greziara bakarrik, greko hizkuntza zabaldu zen lurralde guztietara ere bai. Lehenagoko dialektuak, berri, suntsitu ziran.

Atika'ko mintzoa bilhakatu zan, bada, grezitarr guztien mintzoa "koiné" zeritzan hizkuntza (hau da, arrunki erabili ohi dena). Hizkuntza hori, ez litteratur-arazoetan bakarrik, egunoroko gora-beheretan ere erabili ohi zuten guztiok. Nola heldu ahal izan ziran grezitarrak horren batasun handirat? Atika eskualdeak, bai politika-aldetik, bai litteratur eta ederti-aldetik Grezian jokatu zuen toki nabarmenak izan bide-zuen hortan zer-ikusi handia. Gora-behera politikoek, bada, eta Atikako mintzoari bere poeta eta idazleek ekarri zeraukoten ospe handiak ardietsi zuten mirari hau (29).

(28) Ikhus Pedro de Yrizar, «Los dialectos y variedades del vascuence»; *Homenaje a D. Julio de Urquijo*, S. Sebastián, 1949, t. I, pp. 375-424.

(29) Horren aspaldiko gerthakari baten berri zeatz atxikitzea ezta erraz, baman greko hizkuntza, beharbada, bigarren gisako litteratur hizkuntzen artean hobeki sartua. Izan ere, dialektuak suntsierazi zituelako ta bertze gabe, arrazoi bakar hori ezta, asko hizkuntza au lehenbiziko mordoska hune-tan ibentzeko. Bigarren gisako litteratur-hizkuntzak ere, berez dialektuen

Latinean, berriz, sekula ere etzaiku ageri dialekturik; latina beti agiri de bakarr eta berdin. Eta zergatik hori? Hiri bakarr bateko mintzoa delako, Erroma hirikoa, alegia. Erromako hizkuntza hori erromatarren harmak heldu ziren bezain urrun zabaldua eta hedatua izan zan, eta Europako sarthaldean batez ere nolako erro sakonak egin zituen denok ikhusten dugu. Latin horrek mila hizkuntza suntsiarazi zituen bazterretan. Harmen aldetik eta kultur-aldetik sortzen zitzaion prestutasun ta entzuteak emaiten baitzeraukon garaipena.

Gure euskarak ere latinakin izandako harr-emanen oinhatzak ederki asko agiri ditu. Eskola-maisuaren egitez, Frantzia ta Espainiako aldeetan Erroman bertan baino latin jatorrago ta jasoagoa mintzatzera heldu zela ba-dakiga. Greko hizkuntzari, ordea, latina behin ere ezin gainditu izan zitzaion. Grekoa kultur aberatsago baten jabe zan, eta hortik zethorkon prestutasunak eman zeraukon irauteko indarra. Kulturak hizkuntzei eman ohi derauen sendotasun ta botherea agirian emaiteko exemplu bikaina dugu hemen; nahiz eta harmen aldetik latinak abantail izan, Erroman bertan ere jakitunek grekoa erabili nahiago izaten zuten.

Egun munduan bizi diren hizkuntza landu aberatsen artean ere anhitz ikusten dira lehenbiziko tipu hunen araura sortuak. Erraiterako, gaztelara, Espainiako aberri-hizkuntza bilhakatu dena. Gaztelara, jatorriz, Gaztela Zaharreko zoko tipi bateko mintzoa bertzerik ezta, gure Euskalheritik oso gertu dagoen zoko batetik ilkhia, Burgosaldeko mendietatik, alegia. Baina gero "Reconquista" zeritzan gerrate luze hartako gora beherak hizkuntza huni lagundu zeraukoten eta hala Espainian-barrena hedatu zan, eta lurralde zabal handi bat estali ta beretu zuen hizkuntza horrek.

Gainera, idazleek Gaztelako mintzo hori landuaz, prestutasuna eta eginkizun goratuetarako egokitasuna eman zeraukoten eta hala Espainiako aberri-hizkuntza bilhakatu zan, Espainiako aldeetan zegoen bertze dialektu erromanikoak etziran kontuan hartu; Toledo, León, Aragoi ta bertze lekhuetan bazegoen dialektu bereziak, baino baztertuak eta utziak izan ziran, eta hala gaztelara geratu izan da nabarmen eta garaile bakarr (30).

Frantziatarr hizkuntza ere, jatorriz, herriburuko mintzoa bertzerik ezta, Paris hiriko hizkuntza, alegia. Provintzietako dialektuak han ere ez tira ezertan eduki. Herriburuko hizkuntza eskola ta liburuen bitartez zabaldu da. Anhitz dialektu ta modalitate berezi bizi dira

etsai ez izanarren, eredutzat hautetsiak izatetik etorri ohi zaien prestutasuna dela bide, demborarekin, asko edo guti dialektuak gibelarazten dituzte. Eta Grezian ere, beharbadé, horixe gerthatu zan.

(30) Ramón Menéndez Pidal, «La Lengua de Cristóbal Colón», Colección Austral, Espasa-Calpe, S. A., 1942, p. 59 y ss.

oraindik Frantzian, bainan Paristik ilkitako mintzoa gero ta nagositzenago doa.

Typu hunetako litteratur-hizkuntzetan gora-behera politikoen eskua nabari da, bada. Portugalدارra, Errusiatarra, Yugoslaviatarra eta bertze asko ere erran den mueta hunetan sar ditezke. Aberri-hizkuntzarako hautetsia izan den mintzoak gainerako dialektu ta hizkuntza guztiak suntsiarazten ditu. Aberri-hizkuntza hori ezta idazteko eta litteratur-arazoetarako soil-soilik, arrunki solasean erabitzeko ere baita.

Ikhus detzagun orai bigarren muetako hizkuntza landuak. Hauk gora-behera politikoaetik eztira sortu. Bertzeakin duten alde a hobeki ikhus dadin amoreakatik, adibide baten bitartez azalduko ditugu. Eman dezagun herri bat, hizkuntza baten jabe, bainan hizkuntza hori dialektutan puskaturik edireiten da. Idazle ospetsu batek hizkuntza hartan idazteko asmoa hartu du; hunetarako, beharbada, hizkuntza hartan diren dialektuetatik bat edo bertze auzatu du onharri bezala, bainan bertzeetatik ere asko edo guti nahasiatz. Hori egitean idazle hark literatur-hizkara baten hastapena ezarri du. Haren ondotik dathozten idazleak, nork bere zokoan mintzo den modalitatea erabili beharrean, aitzindari haren inhatz eta urhatsei jarraikitzen zaie, eta hala, harekin hasitako tradizinoari eutsi, sendotu ta indarr emaiten deraukote.

Hizkuntza hartako semeek, litteratur tradizino hunen egitez, idatzi beharr dutenean, idazle heiek erakhutsitako molde berezi haren araura egiten dute, eta era hunetan, idazteko eta litteratur-arazoetarako, hizkera-molde bakarr bat (idazleek sagaratu zuten molde jakin hura, alegia) emplegatzen dute, nahiz eta egunoroko solhastatzean nork bere jatorrizko dialektua erabili. Era hunetan, litteratur-tradizino bat eredutzat harturik, hizkuntza hartan literatur-batasuna lortua eta ardietsia dugu. Agiri denez, litteratur-hizkuntza hauk idazteko sortuak dira, idazkuntzan beharr beharreko den batasuna mintzoari emaiteko.

Solastatzeko, bat bederak bere dialektua erabili ohi du; idatzi nahi duenean, berriz, litteratur arazo edo zeregin uren eta prestuetarako, beren zoko edo sortherriko partikularismuak alde bat utzirik, hautaturik dagoen molde bakarraren araura idatzi ohi dute denek. Anhitz hizkuntza era hunetara heldu dira beren literatur-batasunera, eta guk ere bide hortatik sartu beharr genukela dirudi: idazle nabarmen batzuk eredutzat jarriaz eta hekien urhatsei jarraikiaz, alegia. Litteratur-hizkera hoik eztira, lehenbizikoak bezala, dialektu bizien etsai eta arerio.

Mintzatzeko, egunoroko zereginetarako nork bere dialektua erabiltzen du, baino ororen arteko har-emanetarako, zeregin prestu eta literatur-arazoetarako eta guztien arteko lokarri bat bezala edukitze-ko, tradizinoz ikasitako hizkera uren hori emplegatu ohi da. Haurrari,

nahiz ta etxean bere dialektu berezia ikasi, eskolan literatur-hizkuntza landua erakusten zaio. “Zuk hala edo hola erraiten duzun hitz hori, era hunetara idatzi beharr da”, erakutsiko derauko eskola-maisuak; maisuak, berriz, irakaskintzarako, literatur-tradizino jakin hura izanen du eredu ta zuzenbide bezala.

Bat bedera bere herrian mintzo den bezalaxe idaztera ohutuko ba litz, bide hortatik literatur-batasunera behin ere ezkinateke helduko.

Alemaniatarr hizkuntza dugu bigarren gisa hunetara bateratua. Alemanian literatur-hizkuntzaren moldatze edo bateratze politika-aldetik batasunik etzegoela gerthatu zan. Alemanian orduan (eta bai orai ere) anhitz dialektu bizi ziran; hala ta guztiz ere, literatur-arazoetarako hizkera bakarr bat sorthu zan, ororena. Nola heldu ziran alemaniatarrak literatur-hizkara hunetara? Literatur-tradizinoari jarraiki, Luther idazleak Biblia alemaniatarren hizkuntzara itzuli zuen. Haren hizkera eredutzat harturik, hurrengoak hunen bidetik sarthu ziran, eta hala, poliki-poliki, alemaniatarr guztek hizkara hori beren litteratur-hizkuntza bezala hartu dute, nahiz ta anhitzek bertze dialektuak izan. Erakuspen ederra dugu hemen guretzat. Aitzinago ikhusiko dugunez, Euskalherrian ere hastapen berdina izan zuen litteratur-tradizinoak, Biblia Sainduaren itzulpena, alegia. Han Luther, hemen Leizarraga (biak protestanteak) ditugu bide urratu zutenak.

Italiarr hizkuntza ere gisa horretara dugu moldatua. “Hay lenguas comunes que son de origen puramente literario” dio Vendryès hizkuntzalariak hizkuntza huni buruz (31). Italiarrek, ia gure egunetara arte, politika-aldetik batasunik ezagutu ezlute; hori gora-behera, ordea, XIV gn. mendedanik litteratur-beharkizunetarako hizkera bakarr bat hautaturik zedukaten, nahiz ta mintzoan anhitz dialektu izan. Dante, Petrarca ta Boccaciok beren liburuetan erabilitako literatur-hizkera eredutzat hartua izan zen. Idazle hoiek, Firenzetarrak izanik, hango mintzoa hartu zuten oinharritzat beren liburuetan, eta idazle hoietatik mintzo huni sorthu zitzaion ospe ta ahomena zela bide, hizkara hori italiarr guztien litteratur-hizkuntza bilhakatu zan.

XIV gn. mendean Bembo idazlariak, Veneziaarra izanik, berea utzita, Danteren hizkara-moldea hartu zuen bere liburuetarako. Firenzeko hiriak Bolonia ta Erromaren bitartean duen posizino geographikoak asko edo guti garaipen hunerako lagundu zuela ukatu gabe, bere idazleengandik zetorkon ospe eta distira bereziak eman zeraukon Toscanako mintzo huni nagositasuna. Gainera, Firenze edo Toscanako dialektu hau bertze dialektuak baino gertuago geratu zan latinetik; eta ikasiak, latin zekitenez, aisa egin zezaketen beren jatorrizko

(31) Vendryès, «El Lenguaje», 4 Parte, Cap. III Las lenguas comunes, p. 355. Athal huntan azaldu diren berririk gehientsuenak liburu hunetatik aldatu dira.

dialektutik Toscanako hizkara hunetara aldaketa. Hala, “lingua toscana” geratu zan Italian garaile bakharr. Egunoroko gora-beheretan, ordea, dialektuak erabiltzen dira.

Orai gure euskarari begia itzuliz gero, azaldu diren bi era hoitatik bigarrena dagoku guri litteratur-euskara moldatzeko eginkizun hunetan. Bigarren gisa hunetako litteratur-hizkuntzak, ordea, litteratur-tradizino baten fruitu gozoa dira, idazle entzute handiko batzuen hizkera eredutzat jarri eta hizkera hunen araura idatziaz sortu dira. Guk ere, bada, euskara idatziaren tradizinoari kontu eduki beharreraukogula nabari da. Egia erran, hanbatik hanbatean, dialektu biziak, aho-hizkuntzak, denak dira berdin, guti gorabehera balio ta jaso berdineko, itzal ta begirune berdina zorr zaie denei, eta **posizino** geographiko utsak, soil-soilik, gehiagorik gabe, egiteko huntan deus guti erran nahi lukela dirudi.

Nik nere jatorrizko mintzoa utzirik, bertze bat hartzeko, prestutasun-usai, nagositasun-agiri batekin bertze hori begietaratu beharr zaitala ezagun da, eta nagositasun hori literatur-laborantzak errendatzen derauko. Litteratur-hizkuntza hoik, batez ere idazteko, litteratur-eginkizunetarako direla ezta ahanzi beharr. Beraz, dialektu bizien gora-beherak baino gehiago, hizkuntza idatziaren legeak kontuan eduki beharr dira auzi hunen erabakitzeko. Hala, solhasak ekarririk, lege hoietaz mintzatuko gara hurrengo pontuan.

II

“Il y a quelque hypocrisie dans le dédain des linguistes pour les langues littéraires”, idatzirik utzi du Meillet jaunak. René Lafon euskaltzainak, berriz, hitz hekien aipatzearekin batean, egun Linguistika gaitz hunetatik sendatu dela erraiten derauko (32). Izan ere, joandako ehun urtekoan linguistak aho batez hizkuntza biziaren nagositasuna gorai patzen eta idatzia azpiratzen hari izan zaizkigu.

Alde batetik, arrazoi piska bat ere ba-zuten hunela egiteko: hizkarak berez utzita, bere baitarik, nolako gora-behera ta biraldakuntzak izan ohi dituen ikertu ta arakatu nahi zuten, nolako lege ta arauak zuzentzen dufen hizkuntza soilaren bizitza aztertu ta agirian eman gogo zuten, ta hortarako, xede horren ardiesteko, jakina, aho-hizkera bizia, den bezalako atzemaitea zen biderik hoberena, ahotik ilkitzen den itxura berberarekin ezagutzea, litteraturak iratxeki derauzkion soineko gezurrezko eta ibenki aizun guztiez gabetua.

Dena dela, guk orai begien aitzinean daramagun xedea ezta hau. Litteratur-hizkuntza baten moldatzera nola hel gintezken jakitea,

(32) René Lafon, «Le Systeme du verbe basque au XVI siecle» (tome premier), Chap. IV. Importance linguistique des textes étudiés, p. 71.

hauxe da guk orai aztertu duguna. Beraz, xedea guztiz berezia izanik, hizkuntzari itzul-inguru ta sayets bakharr huntatik behartzen deraukogunez gero, heiek hizkuntza soilaren ixtudirako ezarri dituzten kriterionak guretzat on ez izaita, ezta mirestekoz; ezta gureak hekientzat ere. Hori aithortzen du Vendryès jaunak hitz hauetan:

“Esta manera de tratar las lenguas antiguas —pues otro tanto podríamos decir del griego— se apoya en una confusión enojosa entre la lengua literaria y la lengua a secas, la que se habla por todos en el país y que cambia con el tiempo. A los latinistas les es fácil definir un determinado ideal de lengua latina e imponerla a los que hacen temas latinos. Es el procedimiento de la gramática dogmática, que se resume en la fórmula: decid..., no digáis... Y adoptándola, se sigue la tradición de los escritores latinos que reconocían en Cicerón un maestro y un modelo. Pero este procedimiento artificial no debe aplicarse al estudio del lenguaje” (3).

Erran nahi du: eredu bat, kanon bat ezartzea eta kanon horren aurara hizkuntza bat erakustea litteratur-hizkuntzan on eta beharreko da, hizkuntza soilaren gora-beheren berri jakiteko bide okherra bada ere.

Litteratur-hizkuntzak, berriz, aho-hizkuntza bizi bat oinharritzat izanarren, batez ere hizkuntza idatziak direla, gorago erran direnetik agiri da. Eta hizkuntza idatziak bere lege ta arauak ditu, bere esku-bideak, eta eskubide hoik kontuan eduki beharr dira, noizbait aho-hizkararen eskubideen kaltetan izango ba dira ere. Hizkuntza idatziak aho-hizkararen mirabe ta azpiko izan beharr duela uste dutenak, huni guztiz ta osotoro menperaturik egon beharr duela uste dutenak, okherr dagoz.

“Algunos se inclinan demasiado —dirausku Vendryès berberak— a considerar la lengua escrita como la humilde sirvienta de la lengua hablada. Es una idea de los foneticistas o de los profesores de lenguas vivas, preocupados en reaccionar contra los excesos de los maestros de escuela, para los que la lengua escrita es, por el contrario, el todo del lenguaje. En resumen, hay que decir: tal palabra escrita se pronuncia así; o: tal palabra hablada se escribe así. ¿Está la palabra en el sonido o en la escritura? Debemos contestar qué para todo hombre civilizado está en uno y otra. Muchos civilizados se comunican con sus semejantes más por escrito que de palabra” (34).

Egia da, hizkuntza guztiak hitz eginaz, muntzatuz, ahotan hartuz hasi direla. Eta hizkuntza bat, idatzi bai, baino egunoroko har emanetan erabili eza dadi, hizkuntza hura, nahiz ta litteratur prestu aberatsa izan, hila lizateke, eta idazle guztien ahaleginak gora behera, ezlizateke berriz biztuko, idazleen lehiak hildako hezur hekien barrenean bizia sarrarazteko ezlukete ahalik. Egia da halaber, idazkuntza, bere ethorkiz, hizkuntza bizia paperera aldatzeko eta han tink

(33) Vendryès (aphatu-liburuan), 5 Parte, C. II, La Lengua escrita y la ortografía, p. 450.

(34) Vendryès. O. C.

itsasita bezala uzteko sortua ta asmatua izan zela, eta alde hortatik aho hizkararen ispillu ta irudi zintzo beharr duela izan, dirudi. Baina asmaketa miraritsu hau sortu zenekoxe eta are gehiago gizonen artean idazteko usantzak errostatu sakonak egin zituenetik, izkuntzan bere eskubideak lortu ditu, eta eskubide hoik ezin ahantzi ditezke.

Vendryès jauna behin da berriz mintzo zaiku hizkuntza idatziaren eskubide hoietaz:

“Asi, el uso está de acuerdo con la tradición para apoyar la oposición de la lengua escrita y de la lengua hablada. A decir verdad, no se confunden nunca. Es un error creer que un texto escrito pueda ser la representación exacta de la palabra. Contrariamente a la opinión de muchos, no se escribe nunca como se habla; uno escribe (o trata de escribir) como los demás escriben. Las personas menos cultas, cuando toman la pluma en la mano, tienen el sentimiento de que usan un lenguaje determinado, que no es el mismo que el hablado, que tiene sus reglas y usos, del mismo modo que tiene su destino e importancia propios. Este sentimiento está justificado”.

“La lengua hablada evoluciona sin cesar. La lengua escrita, por el contrario, es por definición conservadora, no solamente porque es la expresión concreta de la lengua común, normalizada por los gramáticos, sino también porque no puede transformarse tan rápidamente como la lengua hablada. Ciertamente, la tradición es poderosa, cuando esta defendida por la escuela, por la literatura, por el acuerdo de las personas cultas. Y, sin embargo, la tradición no es aquí el único obstáculo para las transformaciones de la grafía. La fijeza es una necesidad de la lengua escrita; ésta representa una lengua ideal, que ha cristalizado para siempre. No puede retocarse más que cuando ya es tarde. Por interés que nos tomemos para dar flexibilidad a este manto rígido y para mantenerlo ajustado a las proporciones del cuerpo que cubre, no se logrará nunca someterla a los caprichos de la naturaleza y hacerla crecer al mismo tiempo que el cuerpo, porque es un objeto muerto cubriendo un ser vivo”.

“En el espíritu del iletrado, la palabra no tiene evidentemente más forma que la auditiva. Pero desde que el alfabetismo se desenvuelve y se impone a todos los niños, de un país el estudio de la lectura, al palabra escrita toma una importancia cada vez mayor. Hoy no concebimos el lenguaje sin la forma de la escritura. Las palabras se presentan a nuestro espíritu con la vestidura que les da la ortografía. Puede decirse que en este terreno el órgano ha creado la función, ¡qué función! Tan tiránica, que para algunos de nosotros, los llamados “visuales”, el lenguaje escrito aventaja en claridad al lenguaje hablado”.

“La lengua escrita tiene, pues, una gran importancia en la psicología del lenguaje. Mientras se enseñe a los niños a leer y escribir, será preciso tener en cuenta los derechos de la lengua escrita, aunque a veces se opongan a los de la lengua hablada”.

“La lengua escrita representa siempre una tradición y reglas conservadoras” (35).

Hitz hoietatik agiri da hizkuntza idatziaren lege ta arau hoik zein diren:

- 1) Hizkuntza idatziak bethi bat ta guztiontzat berdin izan nahi du.

(35) Vendryès, El Lenguaje, pp. 439, 443, 451, 452, 461.

2) Gerakorrtasuna bilatzen du, aho-hizkera, aitzitik, etengabe aldatzen hari den bitartean.

3) Proprietate hoik bereganatzeko, tradizinoari eusten derauko. Atzoko hizkuntza, liburuetan mamiturik eta gogorturik geratu den bezala, atzitzen du, eta hizkuntza hura kanon bezala jasoaz, bere betebeharra ardiesten du.

Izan ere, hizkuntza idatziak, bere gizarte-lana, bere eginkizunaren beteko baldin badu, bethi bat eta guztiontzat berdin beharr du izan, eta halako izango baldin ba da, anhitzetan aho-hizkuntzarekin oppozinoan geratu beharrean aurkitzen da. Aho-hizkuntza geratzeke aldatzen hari da, hizkuntz idatziak, berriz, gerakortasuna beharr du. Tradizinoz ikasitako arauai atxikia izanik, gerakortasun hori ardietsi ohi du.

Vendryès jaunak bi hizkuntza hekien arteko zer ikhusi ta har-emanak irudipen polit batekin argitan eman ditu, ur gogortu ta ur biziaren irudipen edo komparazinoarekin, alegia, Neguan izotzak ibaiko ura gogortu duanean, haurrari ura suntsitu dela iruditzen zaio, ibaiko urik gehiago eztela gogoak emaiten derauko; baino ez, han, ezkutuan, ibai-azpitik ba-doa ur bizia, beti bezala kantari, mugidan, geratzeke. Gaineko izotza idatz-hizkara da, ur mamitua, gogortua: tradizinoz hartutako arauekin idazle ta grammatikalariek eman deraukote ermotasun berarizko hori, erabateko molde hori. Izotza ur biziaren ondoan gogorr ta hotz den bezala, idatz hizkuntzak ere hotz ta gogorr emaiten du aho-hizkuntzaren ondoan, hura hila, hau berriz bizia baita; bainan gizarte-lana betetzeko, aho-hizkarak bere aldakorrtasun horrek in lortu ezin duen egokitasuna atxiki ohi du beretzeak, idatziak. Ezin utzia da, beraz (36).

Bide huni jarraikiaz, dialektu ta modalitate tipien gaintetik hizkuntza goitarr bat antolatzer a heldu ohi gara. Hizkuntza berd in bat, bethi bat, egunoroko gora-beheren ta aldakuntzen begira eztagoen hizkuntza bat, alegia. Hizkuntza prestu, uren, sendo ezarria, eginkizun ta premi goratuen jasaiteko beharr dugun lanhabes antzetsua. Hain zuzen, horixe da litteratur-hizkuntza.

Bere ermotasunari eskerrak, sendo ezarririko arauai eskerrak, hemen du giza-gogoak bere beharkizunen aditzera emaiteko tresna zorrotz-bikain-trebea. Eztut hunekin erran nahi hizkuntza idatziak aho-hizkaratik urrunduta egon beharr duenik, ez; antzina-aldiari atxikia izanarren, orai-aldiko mintzoaren astin-aldiak ere, asko edo guti, nahi ta nahiez jasan baititu.

Errege-bide huni leial izanaz etorri dira hizkuntza landu guztiak beren umotasun ta heldutasunaren ardiestera, tink ezarririko ta fin-

katu-rikok litteratur-hizkuntzaren eratzera. Ikhus Vendryès berberak frantziatarr hizkuntzari buruz dirauskuna :

“Los servicios que han prestado los escritores franceses a la constitución de la lengua común, son inmensos. El francés, tal como lo aprendemos en la escuela, lo debemos al esfuerzo combinado de los literatos y de los gramáticos. Unos y otros han forjado este bello instrumento, velando cuidadosamente para que no le altere ningún género de orin. La depuración de la lengua, perseguida durante varios siglos, puede parecer un trabajo mezquino y pedantesco; sin embargo, sacamos de él el provecho suficiente para quedar reconocidos a los que lo han realizado. Gracias a los maestros de escuela educados en el estudio de los escritores, tenemos para expresar nuestros pensamientos la forma más apropiada, una lengua cuyas palabras tienen un sentido exacto y cuyos giros están fijados en sus más minuciosos matices. Excluyendo de la lengua escrita todo lo que chocaba con la naturalidad y el buen gusto y someténdola siempre a las reglas de la razón y de la buena educación, la han hecho capaz, como dice Bouhours, “de sostener las materias más fuertes y de elevar las más débiles”; en una palabra, la han adaptado por anticipado a todas las exigencias del espíritu. Y la lengua común se ha beneficiado ampliamente del trabajo llevado a cabo. Ha ganado con esto la claridad dentro de la elegancia, la precisión dentro de la variedad y, según frase de Rivarol, “la probidad inherente a su genio” (37).

Eta Dauzat jaunak, atzoko hizkuntzak edukazinarako duen balioaz mintzo dela, hitz hauk jartzen ditu:

“Certes, on conçoit qu’il y ait un intérêt social et littéraire a ne pas admettre d’emblée dans la langue du bon et des écrivains toutes les innovations du langage populaire. Que cette langue ait des tendances conservatrices et archaïques, qu’elle s’efforce par les salons, par le livre, par l’école d’enseigner aux générations nouvelles la langue d’hier, de leur faire goûter et comprendre les auteurs des siècles précédents, de sauvegarder et de fortifier ainsi la tradition: rien de mieux, d’autant plus que ces tendances modératrices ne son pas sans effet et parviennent, dans une certaine mesure, nous aurons l’occasion de le voir, a ralentir certaines transformations” (38).

Irakaspen zuhurr hoik gogoan eduk ditzagun, bada, euskararen litteratur-batasunaz hari garela. Litteratur-euskara baien antolatuzera nehoiz heltzekotan, nahi ta nahiez bide hortatik joan beharra dugu. Atzoko hizkuntzan oinak tinko ezarririk, hizkuntza hura kanon edo eredu bezala jasoaz (atzoko hizkuntza hori orai-aldiko hizkararen eraginduraz beharrbada zerbait berriztatua atherako bada ere) eta hunen imitatuzera saiatuaz, alegia; eta gisa hunetan soil-soilik hel gintezke jo-muga horren atxikituzera. Bide hunetatik sartu ezik, dialektu ta euskara-mueta tipi jorien landuketan ibiliarren, litteratur-euskara bakharr baten eratzera sekula ere ezkinateke helduko.

(37) Vendryès, 364 orriald.

(38) A. Dauzat, «La Philosophie du Langage», Paris, 1920, Livre I, Chap. III, Le renouvellement du langage, p. 59.

“En Francia —dio Vendryès jaunak—, junto a la lengua literaria, que se escribe en todas partes y que la gente de cultura tiene la pretension de **realizar** cuando habla, existen dialectos como el del Franco Condado o el Lemosin que, a su vez, se subdividen en multitud de subdialectos “locales” (39).

Frantziak ta herri landu guztiek kreatu duten litteratur-hizkuntza bakarr; aberats, moldetsu hori, bada, guk ere sortu beharra dugu, dialektu bizien gagnetik litteratur-euskara baten premia dugu. Hauxe da euskara prestutu, ermotasunez sendotu ta irauteko barne-indarrez hornitzeko eman beharr den lehenbiziko urratsa.

Gainera, egungo egoitza negargarrian, euskara, bere indarr ahituen biztuerazi ta azkartzeko, nehoz baino premi handiagoan edireiten da aspaldiko euskararen laguntza hori bilhatzeko. Egun erdara landu-joria euskaldunen gogoetan sartzen hari den bitartean, gure aho-euskara gero ta makaltzenago doa, urritzenago. Nehondik etorr ahal dakikeo euskara huni falta zaion joritasun, izerdi ta zuku, eritasun ta heriotzetik begiratzeko osagarria? Oraino elhe jori-ederr baten jabe direnetik ikasiaz, baino atzoko idazleen liburu bikainetatik ere baita, eredu onak erabiltzetik, alegia, Ibar, “Genio y Lengua”, izeneko bere liburuan, hitz zorrotz samingarriz mintzo zaiku egungo euskara biziazaren argaltze, aultze, erkintze ta sasiz bethetze hunetzaz.

“En cualquiera de nuestras poblaciones hoy bilingues, que no lo fuesen hace treinta o cuarenta años, escojase una familia de la clase normal, en la que los padres pertenecian a la generacion netamente euskaldun y los hijos a la del periodo de transicion; y anotense, lápiz en mano, las palabras y formas verbales, giros y modismos, que, abundando en el lenguaje de los primeros, no los usan ya (aunque los entiendan) los segundos. Nosotros tenemos dedicado un mes entero a este ensayo y podemos ofrecer datos abrumadores. Anotense igualmente en el libro antes citado de Iztueta, o en las Pláticas de Aguirre (el Cura de Asteasu), o en la Historia Sagrada de Lardizabal, los vocablos y frases que sólo rara vez se escuchan ya de labios guipuzcoanos, aun en zonas prácticamente euskaldunes (descartados, por supuesto, los neologismos larramendianos del primero de los tres autores); y se verá con asombro cuánto ha engrosado en un siglo nuestra lista de arcaísmos”. “...que diferencia entre el habla recia, fibrosa y llena de garbo, que oimos aun de nuestros padres, y la enervada, anémica y contrahecha en que va degenerando en las zonas híbridas” (40).

Beraz hunelatan izerdi bizigarri hunen edoski ta guganatzeko, tradizinoari atxikiak eta hartan finkatuak izan beharr gara. Jainkoari eskerrak, euskarak ba-du litteratura bat. Litteratur hunetzaz mintzo dela, Ibar berberak hauxe erraiten derauku:

(39) Vendryès, 323 orriald.

(40) Ibar, «Genio y Lengua», Tolosa, 1936, pp. 62-64.

“Podríamos citar por docenas las obras de nuestra tan desdeñada como ignorada literatura, cuyo conocimiento y trato asiduo bastaría por sí solo para enfilarse decididamente a un crecido número de escritores renacentistas por el camino verdadero del éxito. Por desgracia, se agotaron hace años y hoy apenas se las ve fuera de las estanterías de los bibliófilos, y son como si no existiesen” (41).

Gure litteratur-tradizinoa, ordea, ezta bakarr eta erabateko izan. Antzina-aldian gure eskualdeak elkarrengandik aldentuta eta ia harremarik gabe bizi ohi zirelako-edo, euskara-mueta bakarra guztiontzat hartu beharrean, euskalki batbedera bere litteratur tipia antolatzen hari izan zen. Guk, berriz, orai, garraizkoan helburuari heltzeko, litteratur-tradiziño hoietatik bat bakarra begiz jo ta hautesi beharr dugu, litteratur-euskara bakarraren oinharri izan dadin. Denetan, bai zaharritasun-aldetik eta bai liburu bikain ospetsuen joritasun-aldetik, zein den prestuen, ardura handikoen eta gailen arakaturik, hura eredutzat ta oinharritzat hartu beharr izatzke, eta tradiziño horren aitzindari ta buruzagiak litteratur-euskararen kanon ta maisu bezala eraiki. Kanon hori gabe, litteratur-hizkuntza moldatzerik eztago.

“Mientras el euskera no tenga un canon, no pasará de ser un idioma rustico” (42).

Euskal litteraturaren Historia osoa balsan harturik, zein tradiziño nabarmentzen eta bertzeen artetik gailen atheratzen den erabakitzea, eztut uste gaitz denik. “En lo impreso nos hace ventaja a todos el labortano”, zion bere demboran A. Larramendik. Eta Ormaetxea jaunak, hitz hoiek aiphatzean, egun ere berhorixe erran ditekela gaineratzen du (43). Ormaetxea berak hirur kyklu, obo edo mendetan biltzen du gure Litteraturaren Histori osoa: hirur mende hoiek Lapurdi, Gipuzkoa ta Bizkaiaren izena daramate. Hoietatik, berriz, zein den nagosi erabakitzean, hauxe aithortzen du: “Leen-mendea dugu oraino buruenik” (44).

Arotzena Jaun, Gipuzkoako Diputaziñoan Bibliotheka-zainak ere, Frantzia-aldeko Euskalherriaz hauxe idatzirik utzi derauku:

“En Francia se da también el problema del vascuence dentro de su misma carne, es decir, dentro de su propio territorio. Y se da allí además, la particularidad de que el idioma vasco es singularmente gráfico, porque, desde que Dechepare rompió el hielo con su *Linguae Vasconum Primitiae*, las pu-

(41) Ibar, p. 255, nota 1.

(42) Krutwig, Propositiones a la Academia, II Parte.

(43) Ormaetxea (N.), «Euskal-litteraturaren atze edo edesti laburra»; Euskal-Esnalea, 1927, 195-6'gn. orriald.

(44) Ormaetxea, «Euskal-litteraturaren atze...», 149'gn. orriald.

blicaciones vernáculas, siguiendo por la Biblia de Leizarraga y los Proverbios de Oihenart, no han tenido interrupción y, lo que es más, se han extendido por todo el territorio lingüísticamente vasco, hasta llegar a los hogares todos en que la lengua indígena era familiar” (45).

Pyrene mendien haraindiala, berriz, hirur eskualde dira, nor bere dialektuarekin: Laphurdi, Be-Nafarroa eta Zuberoa, alegia. Baina euskara idatziaren tradizino-aldetik, lapultarra atheratzen zaiku jaun ta nagosi bakharr. Huna hemen Lafitte Jaun Aphez eta euskaltzainaren hitzak:

“...nous constatons un fait: le labourdin passe pour plus litteraire que les autres dialectes. Cela s'explique surtout par l'histoire de la littérature basque. Celle-ci, dans les Basses-Pyrénées, a été rédigée presque exclusivement en labourdin aux XVII, XVIII, et XIX siècles; étant donné le préjugé selon lequel bien parler c'est "parler comme un livre" quand les Bas-Navarrais et même quelques Souletins se sont mis a écrire, ils ont pris les vieux auteurs comme modeles et ont "labourdinisé" avec entrain. La tradition continue, d'ailleurs, imperturbable” (46).

Beraz, hurreneko pontuan laphurtarr klassikoa moldatu zeraukuten idazle-mordoari gain-begiratu bat emanen derauegu, hizkara hunek litteratur-euskararen oinharri izaiteko dituen abantail ta egokitasunez zerbait erraiten dugularik.

(*Jarralkiko zaiio*)

(45) Arocena (Fausto), «La Revista Internacional de Estudios Vascos», de D. Julio de Urquijo, BRSVAF, t. I, p. 60-1.

(46) Abbé P. Lafitte, «Grammaire Basque», Préface, p. 6.

TRABAJOS DE LA ACADEMIA VASCA
Euskaltzaindia-ren lanak

AITA VILLASANTE - KORTABITARTE

LITERATUR - EUSKARA

LAPHURRTARR KLASSIKOAREN
GAIN ERATUA

III

Euskara idatziaren tradizioa aztertzean, Frantzi-aldeko Euskal-herriak deramazkigun abantail ta aitzinaldea aithortu beharrean aurkhitzen gara. XVI'gn. mende edo ehun-urtekoan hastapen izanik, ethengabeko tradizino hori gure egunetara-arte heltzen da, idazle-eli ederra osaturik. Gure artean, berriz, XVIII'gn. mendera-arte ezta bihirik ageri (47). Lehen-zituak, gure baithan, giputz-nafar aldeetan erne ziran: A. Mendiburu, Larramendi ta Kardaberaz, alegia. Gure Bizkaian XIX'gn. mendera-arte euskarak ezuela bururik inharrosi erran genezake. Gainera, Frantzi-aldeko euskal-idazleak, zuberotarrez idatzi ukhan duten apur batzuk edekiz gero, bertze guztiak hizkara-molde jakin, bakharr, berdintsu bat erabili ukan dute; lehen-idazlei atxikiak izanik, literatur-hizkara berezi bat sorthu eta moldatu zeraukuten. Gathe ederr etengabeko bat bezala mendez-mende osatzen dute, idazle bakhoitza gathe horren maila bat bertzerik eztelarik, Orogen artean egin deraukuten laborantza huni eskerrak, ba dugu hemen litteratur-hizkuntza landua, moldatua, behar genduen lanhabes egoia, alegia.

Alde huntako idazleezaz bertze horrenbertze ezin erran diteke. Hemen idazleak izan genitun, erabateko tradizino bakhar bat, ordea, ez. Bat bedera bere aldetik, bakarti, bertzeren berri izan gabe ibili zirela dirudi, eta hala, jakina, litteratur-hizkarak beharr duen berdintasun eta homogeneitate hori ezin ardiets diteke. Etxegarai jauna

(47) 1609'gn. urthean Iruñien izandako sarijetan euskal-neurthitz batzuk saristatuak izan ziran. XVII'gn. mendean bertan Nafarro-aldean aurkhitu ahal izan diren bertze ale banaka batzuk Intzar Damaso Aitak bildu ditu: «Nafarroko aditz laguntzalea»; Euskera, II'gn. urtea, II zenbakia.

gure euskal-idazleen makhurr horretzaz ohartu zan (48). Eta Urkixo Jauna hunen hitzei buruz gisa hunetan mintzo zaiku:

“Dice el erudito cronista de las Provincias Vascongadas señor Echegaray, en el Apéndice arriba citado, que se observa entre los escritores vascongados hasta días muy recientes un fenómeno raro y digno de atención, y es que cada cual escribe con absoluta independencia de los demás, en el más perfecto aislamiento del espíritu. No creo, por mi parte, que esta afirmación, muy cierta, sin duda alguna, si se refiere a los escritores guipuzcoanos que existieron con anterioridad a la publicación del Cancionero Vasco del señor Manterola, pueda hacerse extensiva a los autores labortanos del siglo XVII y principios del XVIII. Porque alguna influencia ejercerían sobre Pouvreau los autores que a menudo cita en su diccionario manuscrito, y muy en especial Liçarrague, Oihenart y Axular: sin que parezca, por otra parte, aventurado suponer que Materre fuera amigo y acaso discípulo de Axular y que Harizmendi tuviera presente el Guero al hacer su traducción de l'office de la Vierge. Nos consta, además, que el famoso párroco de Sara conoció los escritos de Etcheberri de Ciboure, puesto que encontramos la firma “P. de Axular” al pie de las aprobaciones del Manuel Devotionezcoa y del Elicara erabilceco liburua; y no cabe duda de que Haramboure y Harizmendi se conocían, ya que éste dedicó a aquél unos versos, con motivo de la publicación del “Debocino Escuarra Miraila eta Oraciotegua” (49).

Idazle-sail huni eta batez ere erabateko tradizino huni eskerrak, koberatu du Laphurdiko hizkarak bere prestutasun ta nagositasuna. Zuberotarr euskalkiak bere litteratur berezia izanarren, Zuberoan bertan ere laphurtarra zaie ederr zuberotarrei; Be-Nafarroan, berri, laphurtarra soil-soilik erabili izan da bethiere litteratur-hizkara bezala. Hemendiko eta handiko euskalkien artean elkharr topo egiteko abagunerik azaldu den guztietan, laphurtarra garaitzaile atheratzen dela ohartu da. Eta nagositasun hori litteraturaz gehiago landua izaitetik dathorkola dirudi.

Huni buruz, huna hemen Orixek “Euskaldunak” Poemaren aitzin-solhasean dirauskuna:

“Napar-euskaldunekin bizi izan diran giputz amerikanoek napar-euskera artzen dute”. “Laphurtarrekin an bizi izan diran naparrak ordea, beurena utzita Laphurtarrean artzen dute... Ortza, egusk-aldera jotzen du erriak ere” (50).

(48) Carmelo Echegaray; Apéndice a la «Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa», de D. Pablo Gorosábel; Cap. IV: «Literatura vasca: reseña sintética de los escritores guipuzcoanos que han sobresalido en el estudio del vascuence hasta 1876: Mendiburu, Iztueta, Lardizabal, Aguirre, Iparraguirre, Vilinch...».

(49) «Obras vascongadas del Doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712), con una introducción y notas, por Julio de Urquijo e Ibarra», Paul Geuthner, Paris, 1907; L-LI orriald.

(50) Nikolas Ormaetxea «Orixek», «Euskaldunak», Zarautzen, 1950, hitz-aurrean, 10^{gn}. orriald.

Goiago aiphaturiko Ibarr'ek, herriz, hitz gogoangarri hauk idatzirik utzi ditu:

“El dialecto labortano ha gozado siempre de consideración y simpatía en Zuberoa, donde se le lee con especial fruición. Se suele explicar este hecho atribuyéndolo al crecido número de sacerdotes de Laphurdi que allí ha ejercido su ministerio. Baste o no la explicación, el hecho de la popularidad de los libros labortanos en Zuberoa (y no se diga en la Baja Navarra) es notorio, y ha retenido la atención de los observadores. Nosotros, por nuestra parte, atribuimos esa preferencia de los suletinos por el labortano a la misma atracción que ejerce este dialecto sobre todos los demás euskaldunes, cuando una circunstancia espontánea favorece su encuentro y competencia; atracción análoga a la que desarrolló el guipuzcoano con respecto del vizcaino, y que ya anotó el P. Cardaveraz en “Eusqueraren berri onac”, pág. 13” (51).

Litteratur-hizkara laphurtarr huni azterrenak hartu nahi nerauz-kioke hemen orai, idatz-molde hura nola sortu zen eta bere lehen-urhatsak nolakoak izan ziren ikhuskatuz. Agi denez, berri labur murrirtza jartzeko baizik eztugu hemen erarik izanen, aiphagarrienetan zerbait gehiago pausatuz. Zuberotarrez izkiriatu zutenak (Oihenart t. a.) eztira gogoratzen, aparteko saldoa osatzen baitute. Detxepare lehenbiziko izan zelako izendatu ondoren, gero hitz lauz eta laphurtarrez hari izan direnak bakharrik hartzen dira kontuan.

XVIgn. mende edo ehun-urthekoa.

Detxepare.—Gogoangarri da, lehenbizi, bide urratuz, lehen-zituak eskaini zerauzkigulako (52). Are gehiago, nabaski, euskararen alde ageri duen maitasun bizi-biziagatik. Euskarak izan duen poetarik handiena dela erran duenik ere izan da, ni hortan ez naiz sarthuko baina (53). Libururik euskaraz ez egoitea miresten du Detxeparek, eta gure hizkuntzari hortik dathorkon ahalke ta reputazino-ezaz ongi ohartzen da (54). Detxeparek, bada, bere aldetik bide urratu nahi

(51) Ibar (aiphatu-liburuán), p. 106, nota.

(52) «Linguae Vasconum primitiae per Dominum Bernardum Deche-
pare Rectorem Sancti Michaelis Veteris», Bordeaux 1545. Egun lehen-edizinoaren ale bakhar bat bertzerik ezagun ezta. Urkixo jaunari eskerrak, cr-
dea, edizino horren reproduzkizino photographiko ederra daukagu, R. I. E. B.,
t XXIV, 1933. Liburu huni buruz ikhus jaun beraren artikulua, R. I. E. B.,
denen dutela (suporturequin) cerçaz contenta».

(53) Mme. Gil Reicher. Ikhus René Lafon (aiphatu-liburuá), 46 orriald.

(54) «Ceren bascoac baitira abil animos eta gentil eta hetan içan baita
eta baita sciencia gucietan lettratu handiric, miraz nago, jauna, nola ba-
tere ezten assayatu bere lengoagé propriaren favoretan heuscaraz cerbait
obra eguitera eta scributan imeifera ceren ladin publica mundu gucietara
berce lengoagiac beçala hayn scribatzeco hon dela. Eta causa honegatic
guelditzen da abataaturik eceyn reputacione vague eta berce nacione oroc

ukan zuen, Euskara, munduko bertze hizkuntzak bezala landu eta argi zabalera ateratzeko gauza dela agirian eman nahi du, Nola bihotza ukhitzen deraukan aspaldiko euskaldun hunen hots ozen hark: “Heuskara, jalgi adi kanpora”, “Heuskara, jalgi adi plazara”, “Heuskara, habil mundu guzira”... Hitz hoik baino emblemata ederrago ta egokiagorik eztut nik uste bila ditekenik euskaltzaleon joranak, mamiturik eta hitz bakhar batean bildurik aditzera emaiteko.

Detxeparek, ordea, etzuen laphurtarrez idatzi. Bere eskualde ta sortherriko euskara-mueta erabili zuen, hau da Nafarroa Behereko euskalkia, Doniane-Garazi aldean egin ohi den gisan. Gainera, liburu hau (zabaldu etzelako-edo), ondoko idazleek etzuten ezagutu, eta hala, litteratur-euskara moldatzean parterik izan etzuela erran diteke (55).

Leizarraga (56).—Tradizino laphurtarrak hunengan du hastapen. Hau dugu, beraz, gorago erran dugun gathe luze etengabekoaren lehenmaila. Leizarragak, luma eskutan hartu bezain lasterr, askatu beharko duen korapiloaz ohartzen da: Euskalherrian, ia etxe batetik bertze-
ra ere, mintzatzeko moldean ezberdintasun handiak direla gogotan daduka. Eta idazleak, denak hobeki hultzeko bidetik jo beharr du. Huna hemen, bada, Leizarragak problemata huni eman zeraukon erantzupena: bera, sortzez be-nafarr izanik —Beraskoitz'koa (Brisous)—, laphurtarra hautatu zuen bere liburuan zimendu ta oinharri bezala erabiltzeko. Bainan berberak dirauskunez, eztu herri jakin bateko hizkara hutsa erabili nahi; aitzitik, Nafarroa Behereko hizkaratik eta are gehiago Zuberokotik nahasi du (liburu egitean lankide zuberotarrak izan zituela ere jakina da) (57).

uste dute ecin deusere scriba dayteyela lengoage hartan nola berce oroc batute scribatzen beryan».

(55) Ikhus «Introducción al *Linguae Vasconum Primitiae*...», por Julio de Urquijo. San Sebastián, 1933.

(56) «Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria», Rochellan, 1571.

(57) Ikhus René Lafon, «Le systemé du verbe basque au XVI siecle», p. 64-65. Huna hemen Leizarraga beraren hitzak: «Gaineracoaz den becembatean, batbederac daqui heuscal herrian etche batetic bercera ere mincatzeco maneran cer differentia eta diversitate den: raçoin hune-gatic sensu eguiaczotic aldaratu gabe, lengoageaz den becembatean ahalic guehiena gucley adi eraciteari iarrei qui icon gaitzaitza, eta ez choil edo-
cein leku iaquineco lengoage bereciri: eta badaquigu ecen demborarequin anhitz hitz eta mincatzeco manera, eridenen dela obra hunetan bercela hobequi erran çatenic: halacoetan, gauça ceren den daquinetic batbedera, orhoituren da, othoi, ecen hunelaco gauçac, gueiz, lengoage oraino ussatu gabe batetan, ecin behingoaz halaco perfectionetan iar daitezquela, nola behar bailizateque: guciagatic ere mincatzeco maneran anhitz arrastatu gabe, Jaincoaren hitz purari iarreiquiteco desira, dutenac, sporçu dugu eridenen dutela (suporturequin) cerçaz conténta».

Gainerakoan, bai Detxepare eta bai Leizarragak ere, euskara lan-du, prestutu eta ohoretu nahi izan dute, René Lafon'en hitzak dira:

“Dechepare et Liçarrague ont essayé l'un et l'autre de montrer que le basque pouvait s'écrire et servir à des usages plus relevés que l'expression des choses de la vie de tous les jours. “Je suis étonné, dit Dechepare (A 2r8), qu'aucun Basque n'ait essayé, en faveur de sa propre langue, de composer quelque ouvrage en basque et de la mettre par écrit, pour qu'on proclamât dans tout le monde que le basque est aussi bon à écrire que les autres langues”. Liçarrague, de son côté, pensait et voulait montrer “que les Basques, entre toutes autres nations, n'estoyent point si barbares que de ne pouvoir reconnoître le Seigneur en leur langue” (*3v27), et espérait que, grace au travail qu'il avait accompli, “la pure parole de Dieu auroit entrée et accroissement au pays des Basques” (*4r15). L'oeuvre de ces deux écrivains correspond au cas où, suivant l'expression de M. Vendryès, “la langue littéraire n'est que la langue écrite et où toutes les deux expriment la norme de la langue commune”. Dechepare a exprimé la norme de son parler; Liçarrague a essayé de dégager, de la diversité des parlers basques, la norme d'une langue commune” (58).

Oraino eredurik ezpaitzegoan, erabili beharr zen lanhabesa antolatutako beharrean aurkhitu zan Leizarraga, eta lanhabes hori gertutzeko zer anzotan moldatu zen erran dugu: basis bezala laphurtarra harturik eta bertzeetatik ere asko edo guti nahasiz. Bere hizkera ezta, bada, nehon ere hitz egin ohi den bezalakoa. Hizkera izkiriatua bertzerik ezta, litteratur-hizkuntza, handik eta hemendik hizkara biziari hartutako elementakin osatua. “Liçarrague, suivant l'expression de Schuchardt, a établi lui-même la langue dans laquelle il a écrit” (59).

Bertze aldetik, berriz, bai Detxepare eta bai Leizarragaren hizkariari ere, egungo aho-euskaraz bekaldetuz gero, kutsu eta usai arkhaiko handi-samarra somatzen zaio, handik hunerat aho-euskarak bide handia egin baitu, batez ere verbuaren aldetik.

“...la langue de Liçarrague est pour les Labourdins et les Bas-Navarrais d'aujourd'hui au moins aussi loin que la langue de Luther pour un Allemand d'aujourd'hui”. “L'archaïsme de la langue de Liçarrague se manifeste dans le verbe, comme Bonaparte l'a justement noté”. “Il est exact que les formes verbales de Liçarrague ne peuvent pas être classées de la même façon et rangées dans les mêmes cadres que celles d'un parler basque moderne”. “...la structure du système s'est profondément transformée entre le XVI siècle et l'époque actuelle. La même remarque vaut, d'ailleurs, pour Dechepare, dont l'archaïsme ne le cède en rien à celui de Liçarrague” (60).

XVII'gn. mende edo ehun-urthekoa.

Mende hunetan idazle-sail ederra azaltzen zaiku. Leizarragak hasitako moldeari jarraikiz, egituraz laphurtarra izanen da hekien litte-

(58) René Lafon, Le systeme... 71-72 orriald.

(59) René Lafon, 63 orriald.

(60) René Lafon, 60-61 orriald.

ratur hizkara ere. Bertze aldetik, ordea, aho-euskararen biraldakuntza, gora-behera ta astin-aldiak galdegiten duten beharrezko aldaketak asko edo guti idazle hekien euskarari ohartzen dira, ezpaitute arkhaisu-usai hura, Leizarraga eta Detxeparek adina behintzat. Izan ere, hizkuntza idatziak bat ere aldaketarik ez izaitea, egundaino ardietsi ezten gauza da. Hizkuntza idatzia, ondotik eta berant bada ere, hizkara bi-ziari jarraitzen zaio, eta hala, nahi ta nahiez beraren astinaldiak eta eragindurak jasaiten ditu. Ezer ere aldatzen ezten hizkuntza idatzirik ezta, guztiz hilak diren mintzoak izan ezik. Ahotan gehiago hartzen ezten mintzoa, ezpainenetan jadanik erabiltzen eztena (erraiterako latin edo grekoa), huraxe soil-soilik bethierekotzat berdin eta erabateko finkatua geratzen da. Heriotzaren iduriko gerakortasun ta aldatu-ezin hori, ordea, euskararentzat nahi ezkenduke. Beharr dugun batasunaren lortzeko, aspaldiko idazleei behatu, baino egungo euskara bi-ziari alde guztiz gibel eman gabe: huna hemen zuzenbiderik hoberena, nere aburuz.

Mende huntako idazlerik gehienak itzulpen batzuk bertzerik ezte-razukigute utzi; bainan litteratur hasi-berri huni lasterr sorthu zitzaion beharrezko zuen aitzindari ta buruzagia ere, Atxularr ospetsua. Ordu-danik ba du euskarak kanon bat, eredu bat, litteratur-hizkuntza guz-
tiak beharrezko duten eredu eta aitzindari hori, alegia. Idazle hekien berri murritza jarriko dugu ondoan.

Materre, o.f.m., 1617.—Frantziskotarr mixiolari hau sortzez etzan euskaldun, baina Laphurdiko Saran euskaraz ikasi zuen eta euskal herrietan Jainkoaren hitza zabaldu ondoren, girstino ikasbide ta debozinotegi den liburu bat eratu zuen. Berberak dirauskunez, Saran ikasitako euskara-mueta darabil, eta hango Erretore Jaun zen Atsularr handiarekin har-eman eta adiskidego izan zuela dirudi. Liburuko "examinatzailearen aprobazionea", behintzat, P. de Axularr'ek, Saran, 1616 urtean emana da. Gainera, aitzin-solasean Materrek erraiten dituen gauza batzuk antz-iduri handia, Atsularrek urte guti-barru bere *Geroan* erranen dituenekin. A. Larramendiren aburuz, Materre'ren Doktrina "en bascuence hermoso" idatzia da (61). Girstino doktrina euskaldunei erakustea izan zan A. Materrerren asmo nagusia, baino bertze xede bat ere ba du, euskaldunei euskaraz nola edo zein anzotan izkiria eta irakurr ditekean irakastea, alegia (62).

(61) M. de Larramendi, S. J., *Diccionario Trilingüe*, ed. 1853, p. XXXI.

(62) «Euskaldunei. Miretsico duzue aguiam nic (Euscal-herrico ez nalcclanc) Euscáraz esquiribatceco ausartziaren hártcea. Baiña baldin considera badadi edirenen duzue éztela gauza hunetan ausartciaric, eta ez cer miretsiric: aiticic bertcela eguin banu miretsi behar zatequeyela, eta errán ahanci citzaitala neure eguinbidea. Ceren Jaincoac niri hitzeunza hunen ickástecco ance appur bat eman derautanaz gueroz, iduricen zait hoben nu-

Ohargarri da Sarako herrixka tipiak litteratur-euskararen historian duen lekhu nabarmena, A. Materre eta hurrengoetatik ere agiriko denez.

Ettxeberri Ziburukoa.—Hirur libururen auktore da: *Manual devotioezkoa*, 1627; *Noelak*, 1631 (63), eta *Elizara erabilizeko liburua*, 1636. Lehenbiziko eta hirugarrenak Axularren izena daramate aprobazinoan, Materre'renak bezala.

Haramburu, o.f.m. Cap., 1635.—Euskaldun Kaputxin hunek "Devotino eskuara, miraila eta orazinotegia" izeneko otoiz-liburu bat utzi derauku.

Axularr (64).—Detxepare eta Leizarragak eraindako hazi tipi hark lasterr ekarri zuen. Axularrekin eman zeraukun zeruak idazle nabarmen eta goitarr bat, gure euskal-litteraturaren aitzindariako sorthua. Litteratur-hizkara orok kanon, eredu eta zuzenbide bezala hartua izaiteko beharrak idazle buruzagi garaia. Izan ere, idazle ospetsu izen handiko bat eredu bezala eraikiz, eta ikasleak haren hizkara-moldearen usantzarekin ohituz, hunela, eta hunela soil-soilik, hel gintezke batasunerat, litteratur-hizkuntza normalizatu baten kreatzera; aitzindariatza jarritako idazlearen hizkara-moldea litteratur-euskara kanoniko bezala deklaratu eta aitortuz, alegia. Eta egikizun handi hunen betetzeko, Axularr bide-dugu erazkoen. Alde batetik, zaharr-samarr da, eta hunek veneragarritasun berezia bihurrtzen derauku. Arno eta leinuak bezala, idazleek ere, zaharr izaitiaz, ohore, presutasun eta berebiziko balioa koberatzen dute; gazteen edukazinarako orai-aldikoek ez tuten egokitasun bere moduko bat izan ohi dute. Bertze aldetik, idazle bezala, haren jario gozo, ekarri jori-berezko ta mintzaira arraiak ez tu parerik. Hemengo aldean sorthua eta hangoan loratua, bi Euskalherriak lotu eta elkhartzen ditu eta hortarakotz Euskalherri guztiaren batasuna adierazten eta egiten duen symbola eta lokarri bezala dugu Atsularr.

Atsularrek ere aho-euskararen ezberdintasunekin bere kezka izan

queyela eta ezagutza gutitako eta esker gabe izanen nincela, baldin Euskalherrian ikassia euskalherriko probetchutan emplegatu ezpanu... Eta nola lanac cimendutic behar baitu assi, eta gure salbamenduco obraren cimendua baita Dotrina Christiana, halatan nic ere, handic hasten naicela, hartu dut gogo liburutto hunen eguiteco, eta iendartera atheratceco, humetan (bertce eraculeric eztenean) ikus dadin laburzqui cerere sinhetsi, obratu eta escatu behar baita; eta guero ikus dadin halabe nola behar den Euscara esquiribatu eta iracurtu. «Bouqueta lore divinoena bereciac eta Duronea apezac Aita Materren liburuari emendatuac», Bayona, 1693 (Urkixo jaun zenaren bibliothekatik, Gipuzkoako Diputazioan).

(63) «Noelac eta berce canta espiritual berriac. Jesus Christoren bi-ciaren misterio principalen gafean. Eta sanduen ohoretan besta buruetacoz».

(64) «Guero, bi partetan partitua eta berecia...», Bordelen, 1643.

zitzen. Eta problemata huni soluzino emaiteko, aitzinekoei jarraiki, Laphurdiko euskara hartu zuen basis bezala, baino hiztegian eta bai verbuan ere anhitz gauza nahasi ditu laphurtarr ez-tirenak. Eztu Laphurdi tipia soil-soilik gogotan, Euskalherri osoa baizik. Beraz humelatan, alde huntatik ere bertze nehor baino gomendagarriago dugu Atsularr euskaldun guztien aitzindarizat hartua izaiteko, bere hizkarak, provincialismu huts baten kutsu izan beharrean, euskaldun ororentzat, baltsan emanik, hulterrezena baita. Gorago erran dugunez, euskaldun guztientzat idazteko ardura hori aspaldiko idazle laphurtarr denetan nabari da, eta izan ere hekien euskara hemengo euskaldunentzat egungo laphurtarreana baino errezagoko ta adikorrago bihurtzen zaiku. Laffitte Jaunaren “Euskaldunen Loretegia” harturik eta hango idazle zaharren eta Lafitte beraren oharrak bekalduz nabari da hori (65). Egungo idazle laphurtarrek, aspaldikoen oro-ardura eta zabaltasun hori ahantzirik, nor bere zoko ta eskualdeko berezitasunei lothuak hari direla dirudi, baino nahi dugun xederat heltzeko bide okherra lizateke hau.

Axularrek egiten deraukun zazpi eskualdeen enumerazino hura, euskaldunei bihotz-ukigarri zaiku; Homerok Troyako gudaketan parte izandako untzien egin duen enumerazinoa grezitarrentzat gozo ta kilikagarri zen bezalaxe (66).

Detxepare, Leizarraga eta Materrek bezala, Axularrek ere ba du euskara landu eta jasotzeko xede aberkoia. Huna hemen bere hitz gogoangarriak:

“Orai badirudi euskara ahalke dela, arrotz dela, eztela jend’artean ausart, eregu, bitore eta ez trebe. Zeren are bere herrikoen artean ere, ez paitakité batzuek nola eskiriba eta ez nola irakurr.

Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain abèrats eta komplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ez pada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak” (67).

(65) Pierre Lafitte, «Euskaldunen Loretegia, XVI’garren mendetik hunateko liburuetarik bildua. Lehen zathia (1545-1800)», Baionan, 1931.

(66) «Badàquit halaber ècin heda naitequeyela euscaraco minzatce molde guztietara. Ceren anhitz moldez eta differentqui minzatcen baitira euscalherriin. Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Zuberohan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian, eta bertce anhitz leccutan. Batak erraiten du behatcea, eta bertceac so eguitea. Batac haserretcea, eta bertceac samurtcea, Batac ilquitcea, bertceac ialguitea. Batac athea, bertceac bortha. Batac erraita, bertceac esatea. Batac irakurtea, bertceac leitcea. Batac liscartcea, bertceac ahacartcea. Batac hauzoa, bertceac barridea. Batac aitonen semea, bertceac zalduna. Finean batbederac bere guisara, anzora eta moldera. Eztitutze euscaldun gurziec legueac eta azturac bat, eta ez euscarazco, minzatcea ere, ceren erresumac baititutze different». (Iracurtzailleari, 17).

(67) Iracurtzailleari, 19 orrialde

Axularri buruz erran diren gorapen eta laudorio denak hemen orai ezin gintezke gogora eta bildu. Bat edo bertze bakarrik aipaturen dugu. Eta lehenbizi, gure A. Añibarrok Axularren liburua Bizkai-ko euskararat aldatu eta bizkaitarrei eskaintzean dirauskuna:

“Irakurle Bizkaitarra, Ona emen zeure eskuetan ta zeure euskeran Axularren libru famaduna, Euskaldunen Ciceronen izenaz izentaturik eta aitaturik ibilli da beti Axular; bada Aita Larramendi euskaldun guztien Maissuak diñolez “bere euskerea da ederra, nastubagea, uts-garbia ta ugaria: baieztu ta erakusten ditu egia Eskritura, Elexako Aita Santu, gertaldi, antz-irudintza adigarri argiakaz; agertzen ditu bekatuak bizi ta argi euren ezaintasun itsutsi baltz guztiaz. Beregaitik, diño, euskaldun guztien eskuetan ibilli bear leukela libru onek” (68).

Ormaetxea jaunak, berriz:

“Axularren idaztankera bizia da, arraia, garbia, ta zainduna. Naiz bitxikeri edo axekarako, naiz funtsez eta gogor mintzatzeko gai dago beti. Orrek eman dio Laphurdiko euskalkiari bere joera ta aria. Onen atzetik etorri da idazle-sail ederra Laphurdira. Laphurdiz esan diteke bere denboran Larramendik ziona: “en lo impresso nos hace ventaja a todos el labortano”. Gaur bertan ere irakurri beintzat an egiten da geienik” (69).

Eta Axularren ondoko idazle laphurtarrak, “Axulararak” idazpuruaren azpian sartzen ditu Ormaetxea berak, Axular buruzagi ta maisutzat hartu zutela nabari baita.

Huna hemen, berriz, Lafitte jaunaren ephaia:

“Doctrine abondante, passionnée, précise, colorée, saveur et originalité du style, voila ce que l'on ne peut pas ne pas y aimer. L'ouvrage est tout a fait “renaissance” par l'énorme place qu'y occupent les citations antiques, profanes et chrétiennes, mais tout a fait basque aussi par les allusions au pays, la tournure d'esprit, les proverbes, la syntaxe, la connaissance d'un vaste vocabulaire. Axular a eu le mérite de révéler aux Basques abasourdis les hautes possibilités d'expression de leur langue. Il y aura peut-être un jour quelques écrivains à mettre sur le même rang que lui, mais ils lui devront tous honneur et reconnaissance comme a leur ancêtre et a leur modele: il a le premier compris qu'il y a un génie du basque et le premier aussi il l'a laissé rayonner savoureusement dans son oeuvre” (70).

Ibar ere, gure idazle hunek euskarari egin derauzkion mesedeaz gisa hunetan mintzo da:

(68) «Gueroco Guèro edo gueroco luzamenduetan ibilteac eta arimaren eguitecoac gueroco ichiteac cembat calte dacartzan», R. I. E. V., 1923, p. 297-8.

(69) Ormaetxea, «Euskal literaturaren atze...», 195-6 orriald.

(70) P. Lafitte, «Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule», p. 42.

“En efecto, Axular tiene contraído el triple mérito: 1.º de haber despertado en su jurisdicción dialectal (Laphurdi y Baja Navarra; y, por diversas causas, también Zuberoa) el gusto de la lectura. 2.º de haber suscitado una brillante y ya nunca interrumpida serie de escritores que con sus nuevas obras incrementaron aquella afición, logrando arraigarla definitivamente. 3.º de haber enseñado a los futuros cultivadores del euskera a escribir con sujeción a tres normas, soberanamente objetivas, que, junto con la antigüedad, el volumen, la variedad y amplitud de los temas, y el culto progresivo de la forma estética, caracterizan a la literatura vasca continental: a) con la vista fija en la masa del público, y no en una minoría de aficionados... b) con el fin de prestar a los lectores un servicio positivo, al ofrecerles con la obra literaria un fruto maduro del pensamiento (doctrina y amenidad)... c) sin menoscabo de la mentalidad y sensibilidad del euskaldun...”

“No se nos ha ocurrido comparar el euskera del Guero con la joya elaborada, sino con el oro de la mina; y puede muy bien, sin dejar de ser oro, arrastrar escoria de voces y hasta construcciones erdéricas en cantidad bastante para defraudar a un observador superficial. Los orfebres y joyeros vinieron después de Axular a hacer primores con el metal precioso depurado y bien bruñido, y siguen viniendo cada día. El mérito de Axular consiste en haber dado con la mina, y en haber enseñado a estimar su valor” (71).

Frantzi-aldeko euskal litteraturak Axular buruzagi ta maisutzag aithortu duen bezala, hemengo euskaltzaletasunak, ostera, A. Larra mendigandik izan zuen hastapen, ithurri eta baita zuzenbidea ere. Bi movimendu hoik, ordea, beren zuzendariek markatu zeraueten bitetik egun arte joan direla erraiten derauku Ibar berberak:

“Del Guero de Axular (1643) y del Diccionario Trilingüe del P. Larramendi (1745) arrancaron, uno en pos de otro, y con cien años de intervalo, los dos movimientos literarios de las vertientes septentrional y meridional de nuestro Pirineo. Su influencia es todavía sensible; y lo más característico de las dos literaturas tomadas en conjunto es, aun hoy, la contrapuesta orientación que les marcaron sus respectivos iniciadores. En aquellas dos obras puede decirse además que estaban virtualmente contenidos, como el fruto en el germen, los aciertos y equivocaciones básicos de la ulterior producción euskaldun. Por una parte, ninguno de los méritos relevantes de la literatura ultrapirenaica, sin exceptuar el admirable cultivo renacentista de que desde antaño se hace allí objeto a la lengua, es ajeno al Guero. Por otra, en el autor del Diccionario Trilingüe debe de tener su principio el error capital de que, según se ha visto, adolece nuestro renacimiento cispirenaico. El fué al menos quien sentó las premisas; si bien la deducción de las consecuencias y su desarrollo sistemático hayan sido obra casi exclusiva de las actuales generaciones. El rector de Sara escribió con el fin didáctico, objetivo, de instruir a su público euskaldun en la forma más apropiada. Y con realizar cumplidamente su designio guió los primeros pasos de los discípulos por el mismo sendero de la objetividad, que es el camino del éxito. El jesuita guipuzcoano sintió la preocupación de la “honra”, del “prestigio ideal” de la lengua ofendida; y persiguió con su Diccionario el fin apologético de autorizarla o acreditarla en teoría ante los extraños. Y al hacer así del euskera instrumento de tesis y tema de debates acalorados, abrió incautamente la puerta a la prevención teorizante

(71) Ibarr (aiphatu-iburuæn), 106-108 eta 110 orriald.

que, andando el tiempo, habia de imponerse de tan extraña manera a nuestros espiritus" (72).

Atsularren biographia bat idazteko lanari nehor ere oraino loturik ez izaita miresten du Urkixo jaunak (73). Jainkoak nahi baldin ba du, hori edo horren iduriko zerbait demborarekin antolatzeke asmoa ba dugu. Biographia ez ezik, idaztankera-aldetik hark dituen edergailu eta bikaintasunak agirian emango dituen lan bat; bere mintzairerik ta hizkara-moldearen istudi antzeko lizateken zerbait egin gogo nuke, Atsularrek litteratur-euskararen kanon eta eredu bezala hartua izaitzeko dituen mereziak erakustera emanaz. "Gero"ren edizino berri bat argitaratze-lanean ere, Bilboko Urkixo'tar Jul Elkhargoarekin batean eskuak sartzeko asmoa dakargu. Hain zuzen ere, nehoiz zerbaitera helduko bagara, hortik hasi beharra dugula dirudi: eredu batzuk hautatu eta eredu hekuen liburuak gure gazteen eskuetan jarri, alegia, iturburu hunetatik litteratur-euskara edan dezaketen. Hauxe dugu litteratur-euskara baterat joaitzeko errege-bidea. Bertzela, hizkara normalizatu horrtara heltzeko biderik ezta magu. Euskara hedatu, prestu, bikain hori barik, provincialismuekin hariko gara bethiere, bat bederak bere anzorako euskara bat sortuaz, edo gehienaz, bi hizkara-molde sortzera etorriko ginateteke, bat Espaini-aldeko euskaldunak, bertze bat hangoak, eta bitaratze hori okerr handia lizateke.

Pouvreau.—Idazle hau ere sortzez etzan euskalduna, gero euskaldundua baizik. Hirur liburu asketikoek itzulpenak utzi zerauzkigun: Gristinoen doktrina 1656, Philothea 1664, Gudu Izpirituala 1665. Gainera bertze gauza asko paperetan utzi zituen, batez ere Hiztegi bat. Hiztegi horretan maiz izendatzen ditu bere aitzinetik idatzi ukan duten idazleak, eta guztiz ere Leizarraga, Oihenart eta Atxular (74).

Harizmendi, 1658.—"Sarako jaun bikario eta predikari zen Harizmendi apheza, hamazazpigarren mende erditsutan" (75). Beraz, Ama Birginaren Offizioko bere itzulpena egitean, Atsularren Gero konturako hartuko zuelako ustea ezta doarik eta errogabe asmatua (76).

Gazteluzar, S. J.—"Egia Katholikak" deritzan liburu ederra antolatu zuen, 1686. "Laphurtarra zela ezin ukha. Haatik asko hitz bade-rabilta Laphurdiz bertze eskual-herrietakoak" (77).

(72) Ibar, 103-4 orriald.

(73) «Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri», LXIX.

(74) Lafitte, Eskualdunen Loretegia, 42 orriald. —Urquijo, Obras vascongadas del... p. LI.

(75) Lafitte, Eskualdunen Loretegia, 46 orriald.

(76) Urquijo, Obras vascongadas del... p. LI.

(77) Lafitte, Eskualdunen Loretegia, 51 orriald.

Mongongo Dassanza.—Abere-sendakintzaz traktatu bat utzi zeraukun, 1692.

XVIII^{gn.} mende edo ehun-urthekoa.

Etxeberri, 1712.—Joannes Etxeberri, Sarako Dotor Mirikua dugu bigarren idazle garaia, Atsularren ondo-ondoan jartzekoa. Atsularren jarraitzaile bero-kartsua eta hura bezain idazle bikain bilakatua. Hizkara-molde berdintsua dutenez gero, bi-biak dira literatur-euskararen eredutzaz jarriak izaiteko egoki. Atsularr, Espaini-aldeko euskaldun eta hango aldean bizi izana, Etxeberri, ostera, sortzez laphurtarr izanik, Gipuzkoan mirikuntza exerzitua; beraz, bi Euskalherrien anaitasuna aditzera emaiteko, hura bezain haukerako. Atsularrek bere liburuan erlegino-gaiak traktatu zituen, Etxeberri jakin-gaietarako egoki zuen euskara, eta alde hortatik ere goragarri da. Lan gaitza eta eskerga benetan euskararen alde burutu zuena, ia A. Larramendik egingakoa bezain luze ta zabal, eta gainera dena eta osoki euskaraz (Larramendik erdaraz idatzi zuen bitartean).

Lau dira Etxeberriren operak:

1) Lau-Urdiri gomendiozko karta edo guthuna. Baionan argitaratu zan, 1718.

2) “Eskuararen Hatsapenak”. Euskararen apologia bat bezala da, “une imposante apologie de notre vieille langue”, dio Lafittek (78). Gure mintzoaren etorki, bikaintasun, nobletasun t. a. ukitzen ditu. Jakitate eta erudizino hedatu baten jabe ageri zaiku (egilea), hizkuntzarekiko gaiak erabiltzean, berriz, asko zentzudun ere baita, aldi hartarako.

3) “Eskual Herri eta Eskualdun guztiei eskuarazko hatsapenak latin ikasteko. Lehenbizirik izenen deklinazinoez eta verboen konjugazinoez. Azkenean izenari eta verboari dagozten gauzak”. Agiri denez, latin hitzkuntzaren gramatika bat duzu, eskuaraz. Lan hau sasoz argitaratu ezpazan ere, A. Kardaberazek haren herri zekiela dirudi, hitz hoik idatzi baitzitu: “Gramatikako maisu famatu bat gure egunean izan zan, Latin gauzak ere euskaraz erakusten zituen; ta Franzes euskaldunai Gramatikako erreglak euskaraz adirazi ta erakusten diez-kate” (79).

4) Hitztegi bat lau hitzkuntza hoietan: euskara, latin, frantzitarr eta espainiarr. Hitztegi hau galdu da. A. Larramendik bere eskuetan izan zuela dirausku (80).

(78) Lafitte, *Le Basque*... p. 45.

(79) Kardaberaz. «Eusqueraren Berri Onac», ed. 1898, Tolosa, p. 17-18.

(80) M. de Larramendi, S. I., *Diccionario Trilingüe* (S. Sebastián), *Prólogo*, § XX, p. XXXII; «El doctor don Juan de Echeverría, natural de Sa-

Lan hoietatik lehenbizikoa soil-soilik agertu zan bere demboran. Bertzeak argitaratzeko Laphurdiko Biltzarraren laguntza eskatu zuen, baina etzeraukoten eman. Damurik, etzuen A. Larramendiren zoria izan, huni Gipuzkoako Diputazioak bere lanak athera baitzeraukion. Tamalez, Altube jaunak dionez, mende heietako euskaldunik geienak antsikabe ta axolakabeak izan ziran euskarari buruzko zeretan, eta antsikabetasun horren ondore txarrak guk orai jasaiten ditugu (81). Beraz, Azkoitiko miriku prestuaren operak, argia ikusi gabe, Zarauzko frantziskotarren konventuko atea jo beharr izan zituzten eta hango arkhivuan gordेरik egon dira, arik eta Urkixo jaunak argitaratu dituen arte (82).

Etxeberrik, bere liburuetan, aitzineko euskal-idazleak aiphatzen ditu sarri eta heietan finkatzen du zangoa. Bereziki Etxeberri Ziburukoa, Pouvreau eta Axularr ahotan hartzen ditu. Euskal verbuaren paradigmatak ere idazle hekien lanetatik atereak ditu. Eskuararen Hatsapenak kapitulu bat dadukate alde guztiz ohargarri, Atsularri dagozana, alegia. Bertan gogotik ospatzen du Etxeberrik Sarako erreto-rea, euskal-idazlerik famatuena bezala, "Theologiaren mami hautua bildurik eskuaraz ederkienik argitara eman darokuna" (83). Eta ni narraion pontuarekin geiago hurbiltzen dena, hitz ageriz erraiten de-rauku bertan euskarak aitzindari baten beharra duela eta aitzindari hori Atsularrek beharr duela izan. Huna hemen bere hitzak:

"Zein nezesario den egiteko guztietan aitzindari eta gidari on baten eta behar bezalako buruzagiaren izaitea, egiaz ezta gaitz aditzera emaita; zeren bat bederak baitaki gauza guztietan beharr dela aitzindari edo gidari on bat bide onerat gidatua eta ongi gobernatua izaiteko, bertzela maiz, eta gehienez egitekoak makhur, eta-errebulu ibiliko dirateke, hala-nola ibiltzen ohi baitira zurtz triste jabegabeen egitekoak, eta unzi Pilotu gabe galdu ordean dabilzanak. Halatan bada gure Eskuara zurtz jabegabeko, eta hainbertze mendez arrokapean, itsaso, eta uhuinpean galdu ordean bezala dabilan hunentzat, nahi nuke bilhatu aitzindari eta buruzagi on bat bakharra; erran dut bat eta hura bakharra, zeren asko-orduz haintz aitzindari eta buruzagiren izaitea baino,

ra, en Labort, hoy médico de la villa de Azcoitia, muy docto y amante de su lengua, tiene años ha, compuesto un diccionario cuádrilingüe de bascuence, castellano, francés y latín, que impreso pudiera servir para entender los pocos libros que hay en bascuence, aunque no con toda extensión. Hábrá diez o doce años que estando de paso en Azcoitia, me lo fió por dos días. y entresaqué muchas voces del dialecto labortano, para ponerlas después en las correspondientes del castellano. Harto me hubiera alegrado que hubiera precedido la impresión de este diccionario, para valrme del trabajo ageno, sin ofensión de su autor, en cuanto digese bien con la idea del mío).

(81) Altube, «La unificación», p. 184.

(82) «Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712) con una introducción y notas por Julio de Urquijo e Ibarra», Paul Geuthner, París, 1907.

(83) «Obras vascongadas...», p. 61 § 6.

hobe bailizate ossoki batere ez izaitea” (“P. de Axular Sarako errotera eskuarazko autoretarik hautuena eta famatuena”) (84).

Zin-zinez, biziki bihotz-ukigarri da egungo euskaldunarentzat, Etxeberrik duen euskal konszientza argi eta maitasun kartsua nabaritzea. Euskararen balio eta bikaintasuna bihotz-bihotzean zekarren gure idazleak. Agiri bezala pusketa bat edo bertze erakutsiren dugu:

“Baildin grekez eta latinez izkiriatu diren gauzak eta zeruko izpiritu bi-ziarekin kantatu eta erran direnak, erran eta ezarri izan balira eskuaraz eta eskual-herrian; diot berriz ere munduaren artean etzela hek baino estimu gu-
tiagokoa izanen, aitzitik uste dut ezen abantail eramanen zerauela” (85).

Loiola ta Xabier Sainduetz mintzo dela, gisa hunetan deskribitzen ditu:

“Hauk dira bi eskualdun, bi izar argi, eta bi aingiru zerutik igorriak Jesu Khristoren lege sainduaren hedarazteko, eta heresien iraungitzeko” (86).

Mintzoak herri baten bizitza eta iraupenerako duen gora-beheraz hitz alde guztiz ohargarri hauk idatzirik utzi zituen:

“Guziek baino hobekiago ezagutu zuten Greziarrek zein estimu handitan idukitzeko eta begiratzeko duten zeinek bere Erresumetako hitzkuntzak; bai halaber galtzera eta erortzera uzteaz, zembat kalte heldu den Erresumetara, eta estimutan idukitzetik zembat ontasun eta progotxu. Ezen ikhusi zutenean bere Imperioa edo Erresumak eroriz eta galduz zihoaztela: Egin zuten lege bat zeinetan manatzen baitzuten, Greziako muthilko eta eskolau guztiak eskola zitezila Erresuma bereko hitzkuntzan, bai halaber lege eta zuzen guztiak irakhats zitezila hitzkuntza hartan berean, eta hala dio Justinianok” (87).

Grammatika-gaiak zein aisa darabilan ikusteagatik, zilhegi bekit oraino zatitxo hau aldatzea:

“Bertze hitzkuntzek izenari aitzinetik finkatzen dioten emendailua deitzen ohi dute preposizinoa; ordea eskuarak ondotik eratxekitzen dio hain manera ederrean eta miragarrian, non blez egiten baitu gorputz bat edo izen soil bat, v. g. in Ecclesia; Elizan. In Gallia: Franzian. Ad civitatem; hirirat. Ex coelo: zerutik. Ab hominibus: gizonetz, gizonetarik, gizonenganik, etc.” (88).

Euskarak bertze hizkuntzetatik ethorkia etzuela hunela probatzen du:

(84) «Obras vascongadas...», p. 59 § 1.

(85) «Obras vascongadas...», p. 110 § 9.

(86) «Obras vascongadas...», p. 38.

(87) «Obras vascongadas...», p. 322.

(88) «Obras vascongadas...», p. 5.

“Nahi dut hori hala den (oraino jakiteko delarikan ala bertze hitzkuntzek eskuaratik hartu ote tuztentz gehiago) halarikan ere gainerako hitzak, izenen deklinazinoak eta verboen konjugazinoak eta mintzatzeko manerak Eskuararenak dira, eta hauk hunela direnaz geroztikan, ezin erran diteke bertzetarik duela bere ethorkia; zeren hautan baitago hitzkuntzaren gora-behera guztia; zembait hitz arrotzen errezibitzea ezta aski hitzkuntzari ethorkiaren emaiteko, ez eta ere izaitearen gambiarazteko...” (89).

Etxeberriz eman diren epai-iritzi batzuk ere gogoratuko ditugu, idazle bezala duen goibe eta balioa hobeki neurtu eta agirian eman dadin amoreagatik.

Urrkixo jaunarena izan bedi lehenbiziko:

“...trabajo original y digno de estudio, escrito en vascuence suelto y elegante, que en nada desmerece del de Axular, modelo de prosistas vascongados” (90).

Ormaetxea jaunak, herriz:

“Karmelo Etxegarai zenak esan izan zuen, euskal-idazleak beren buruz edo beren gisa joan oi zirela, bakarturik, bata besteren berririk gabe, ta kutsurik gabe. Laphurtarrentzat beintzat ez dirudi ala denik, esanen dut Urrkixo Jaunarekin. Etxeberrik, beste asko laphurtarrek bezala, Axular hartu zuen bere buruzagitzat eta gogotik ospatu ere”. “Axular irakurri eta Etxeberri irakurri, ezin uka diteke antza badutela”. “Laphurdiko literaturan ezinutzia da Etxeberri” (91).

Eta azkenik, Lafitte jaunaren elhe urregorritzko hauk:

“...on y admire une sérieuse érudition latine, une connaissance précise des anciens auteurs labourdins, un sens tres délié de la syntaxe populaire. Grand admirateur d’Axular, ce disciple n’est guere au-dessous de son maître. Il est aussi savoureux, aussi abondant, aussi harmonieux. Axular est plus profond, car il remue des vérités éternelles; il est plus entraînant, car il est avant tout orateur; mais Etxeberri est plus minuticux, plus élégant: c’est un écrivain, un styliste” (92).

Labaien jaunak, orai berriki, Etxeberriren edizino berria eskatu izan du (93). Hain zuzen ere, Bilboko “Urkixo’tar Jul Elkhargoak” ba du eskabide legezko horren bethetzeko asmoa. Biak, Atsularr eta Etxeberri, alegia, euskara-molde bakharr bat dutenez geroztik, eta laphurtarr klassikoaren tradizinoan nabarmendu diren idazle nago-

(89) «Obras vascongadas...», p. 44 § 6.

(90) «Obras vascongadas...», p. XLI.

(91) Ormaetxea, «Euskal literaturaren atze...», 206 orriald.

(92) Lafitte, «Le Basque...», p. 45.

(93) Antonio M. Labayen, «Joannes d’Etxeberri»; Eusko Jakintza, vol. III (1949), 103 orriald.

siak izanik, litteratur-euskararen kanon eta eredutzat izendatuak izaiteko biak ditugu haukerako eta egoki.

Etxeberrri berak erran derauku aitzindari bat eta bakharra beharr duela euskarak, eta ainhitz izaitea baino hobeki lizatekela osoki bat ere ez izaitea. Egia handia auxe, Hain zuzen ere, hortarakotz bilhatu dugu guk litteratur-euskararentzat oinharri bakhar bat, laphurtarra, alegia. Eta laphurtarr tradizino horren artetik, Axularrekin batean Etxeberrri ere buruzagirako hautatzeak, buruzagigoak beharr duen batasun eta bakhartasunari ezterauko kalterik ekharriko, bi idazle hoik bat eta bakharra osatzen baitute. Gainera, erakrustun izaitera ethortzeko, nehoren eskolan eskolatua eta diszipulu molderraz izaitea, ez-tela egundaino eragozkarri izan agirian emaiten derauku ederki asko Etxeberrrik. Aitzitik, hauxe dugu maisutzerako errege-bidea.

Xurio, 1718.—“Jesu Kristoren Imitazionea” itzuli zuen. Egilea hilez gero argitaratu zan (1720).

Haraneder, 1749.—Doniane Lohitzungo aphez jakintsu hunek ere lan gaitza burutu zuen euskaraz. 1749’an “Philotea” agertarazi zuen, eta hurrengo urthean “Gudu Izpirituala”, liburu hoik Pouvreauk lehenago euskaratuak izanarren (94). Testamentu Berri osoa ere itzuli zuen, baina lau Evangeliaik soil-soilik agertu ziran 1855’gn. urthean. Huna hemen itzulpen huni buruz Orrmaetxeak diona:

“Laphurdin ba ditue lau Evangelioen itzulpen ederrak; baino katolikotan.. Haranederrena da aurrena, Leizarraga protestante baitzen, alegia. Euskera ederra, ugaria, garbia du” (95).

Itzulpen hunek hitztegito bat dakarr eraskin bezala, “eskualdun gehientat adibidea”. Hiztegi horretan euskal-hitz asko jartzen dira, Laphurdiz bertze dialektuetan erraiten direnak aldamenean ezarriaz. Mende hartako idazle euskaldun guztiak gogotan zedukatela ikhusteko, agiri ona dugu hau.

Larregi, 1775.—“Testament Zaharreko eta Berrico historiao” fran’zitarretik itzuli eta euskaraz argitara zuen. Hunek ere, Laphurdirako ezezik, Euskalherri guztirako idazteko borondate hori zuen, berberak aithortzen deraukunez: “Ene artharik handiena izan da klarki mintzatzea, eskal-herri guzian adituren nauten bezala” (96). Testamendu

(94) 1750’ko Gudu Izpirituala, Daranutzen aburuz, Haranederrena bari, Duvergier’ena omen da. Ikhus R. I. E. B. t. IV (1910), p. 478.

(95) Ormaetxea, «Euskal literaturaren atze...», 207 orriald.

(96) Larreguy, «Testamen Zaharreko eta berrico historiao, M. de Royaumontec eguin azan duenetic berrico escararat itzulia; exemplu eta reflexione sainduequin; bi liburutuan ezarria», Bayonan, 1775-1777. Ikhus Irakurtzaileari abisua X’gn. orriald.

Berriko voluminari Sainduen bizitza batzuk eratzeki zerauzkion. Gipuzkoako euskaraz hainbertze zabaldu zen Lardizabalen “Testamentu Zarreko eta Berriko Kondairak” ere huni asko edo guti zorr deraukola nabari da. Lardizabal berberak Larregiren lana aitzin-solhasean aipahtzen derauku.

Mihura.—1778'gn. urthean “Andredena Mariaren Imitazionea” frantziarr hizkuntzatik euskararat itzulia agertu zan. Izenik gabe argitaratua izanarren, garai hartako Mihura aphez donibandarra liburu ederr hunen euskeratzaile dela Daranatzek erakustera eman du (97).

Baratziart, 1784.—“Giristinoki bizitzeko eta hiltzeko moldea agerrarazi zuen. Medtazino-liburu ederra da, makina bat edizino ikhusi izan dituen.

...Eta hunez gero, XIX'gn. ehun urtekoan gara. Mende hortan ere litteratur laphurtarrak izen-errenkada ugaria ezagun du: Intxauspe, Duvoisin, Joannateguy, Arbelbide, Lapeyre t. a. Eta behin gure egunetara helduz gero, “Eskualduna” eta “Herria” astekariaren ondoan hazi eta prestatu den idazle-saldó biphila. Bainan ni narraion ponturako eztaut aitzinerat luza-beharrik.

Litteratur laphurtar hori Frantzialdeko Euskalherrian ezezik, hemen ere asko edo guti zabaldu eta ezagun zela ba dakigu. Nafarroari buruz, behintzat, huna zer dion A. Kardaberazek:

“Nafarroan leñ, ta orañ bertako, ta are geiago Franziako Liburuén soko-ruaz, nolerabait errazago beren izkera gorde izan da” (98).

Frantziako liburuak erraitcan, A. Kardaberazek euskal-litteratur laphurtarra erran nahi duela nabari da.

* * *

Litteratur guztiek, erabateko hizkuntza baten sortzea possible izan dadin, kanon eta eredu baten premia dutela gorago ikusi dugu. Kanon-eredu huni atxikiak izanik lortzen dute litteratur-hizkuntzak galdengin oi duen berdintasuna.

Kanon-eredu hori, herriz, ez egungo aho-hizkaratik, euskara idaziaren tradizinetik baizik, hartu beharr gendukela dirudi. Litteratur-hizkuntza idazle eta grammatikalariak moldatzen dute. Grammatikalariek, eredutzat jarritako idazleen liburuetatik beren erreglak athera daroe, eta gisa hunetan eratu eta bere umotasunerat heldu izan dira izaitte hori, alde gutiz ezin konpontze hori. Idaz-hizkuntzarako zuzen-

(97) Daranatz, «Duvergier et Mihura, traducteurs ecclésiastiques basques du XVIII^e siècle»; R. I. E. B., t. IV (1910), p. 478-80.

(98) Cardaberaz, «Eusqueraren berri onac», ed. 1898, p. 12.

litteratur-hizkuntzak. Guk ere, bada, bide hortatik sarthu behar genukela dirudi, aho-hizkararen gora-beherai hainbertze jaramon egiten ibili gabe. Eta hala egitetik aho-euskara berari mesederik handiena eginen generaukeo, huni bere aldakortasunean premia duen euspen, sostengu eta habe sendoa emaiten baitzaio.

Laphurtarr klassikoa, gure idazle zaharrek sagaratu duten euskara-molde uren, zindo, prestua lizateke, bada, egungo euskararentzat habe sendo haukerako hori. Gure idazle zaharrena diogu. Egia erran, egungo idazle laphurtarrek, anhitzetan, tradizionorik ez tuten forma asko sartzen hari direla dirudi; adibidez, verbuan *gire*, *zire* ta horrelakoak. Zergatik egiten othe dute hori? Hango herri batzuetan populuak hala erraiten duelako, nabaski, bainan gisa horretara sekula ere ez ginateke litteratur hizkuntza baten jabe izaitera helduko. Herriatik herrirat different mintzo da euskalduna, aho-hizkararen berezitasunak kontaezinak dira.

Idatz-hizkarak, berriz, orentzat beharr du izan, eta oro-berdintasun hori ardiesteko bere arau eta lege tinkoak beharr ditu, ta heiei leial iraun, aho-hizkararen etengabeko jario eta eguneroko aldaketa zoroiez kontu egiten ibili gabe. Gaztelaraz nahiz frantzitarraz idazten dugunean, eskola eta liburuetan ikasi dugunaren arauaz idaztera saiatzen gara, hemengo edo ango jende arruntak nola erraiten duen begira ibili gabe. Eta eskola ta liburu hoiek irakasten duten hizkaramoldea idazle ta grammatikalariek antolatatu deraukute. Guk ere bertze horrenbertze egin beharra daukagu, bada.

Heredutzat hartutako idazleetarik litteratur-euskararentzat erabateko arau tinkoak atera eta halatan euskara-molde berdin batetara jo. Eta erran dugunez, litteratur-euskara erabateko hortan, aho-hizkara berberak habe eta eusgarririk sendoena izanen luke.

Eguno frantzitar hizkuntzan nehon baino hobeki nabari da, beharr bada, aho-hizkuntza eta idatz hizkuntzaren artean dagoen alde. Idatzi ohi den frantzitarra, toki guztietan berdin da, bere arau tinkoak sendo ezarririk ditu, aitzin-gibel orotatik nolako beharr duen izan erabakirik daduka. Hizkuntza hori, ordea, hila da, XVII^{gn}. mendean mintzo zen bezelaxe mamitua eta befiko gogortua molde jakin batean geratu da. Hau da eskolan erakutsi ohi den frantzitar mintzoa, liburu eta litteratur beharkizunetarako alde orotan erabil ohi dena.

Herriak, ordea, eguneroko solastatzean bere bidetik jo zuen. Lexikon, Syntaxis eta Morphologia aldetik ere mintzo den frantzitarra idatzi ohi denarekin bat eztago (99). Horrenbertzeraino ezpada ere,

hizkuntza idatziak nahi ta nahiezko du aho-hizkuntzarekin bat ezin izaitze hori, alde guztiz ezin konpontze hori. Idaz-hizkuntzarako zuzenbidea tradizionotik har dezagun, bada, eta hala idatz-hizkuntza euskaldun orok bat izanen genduke, nahiz ta mintzatzean ezberdintasunak izan.

Zori onetan dago litteratur-tradizino baten jabe den hizkuntza. Nahiz ta tipierna izan, tradizino hori ezta gutiestekoa; hari lotuak eta atxikiak izanik, aitzinerat fidantzarekin begira dezakegu. Tradizino hori zokoratuz eta alde batera utzirik egungo aho-hizkuntzatik hastapen hartu nahi izaitze, hamaigabeko hauzian sartzea eta bide txarretik jotzea lizatekela dirudi. Gure idazle zaharrek moldaturik, eginik utzi deraukuten litteratur-euskara hartu hutsarekin, bilhatzen dugun xede aitzemana genduke.

Hizkuntza hunek zaharr usaia, kutsua duela? Gure beharrietan beregisako emaiten duela? Hala obe. Litteratur-hizkuntzak, idatz-hizkuntzak, tradizionotik ilkhi denez geroztik, beti dakar antzina-aldiko kutsu berarizko hori, oiharzun hori, eta horrek, arno zaharrari bezala, prestutasun bihurtzen derauko. Egun eztugula hizkara hori hitzegiten? Ta zer? Idatz-hizkuntza eta ezpainetan erabili ohi dena behin ere eta nehon ere eztira alde guztiz berdin. Aho-hizkara etengabe aldatuz doa, nondik norat dabilen ezin asma dezakegularik. Idatz-hizkuntza, berriz, beti bat eta ororentzat berdin izaiteko gogo eta lege du, eta xede horren aitzemaiteko, eguneroko aldaketa hoi ei jaramon egiten ibili beharrean, tradizinatorat behatzen du, han erroak egiten ditu, han finkatzen da, eta hala aho-hizkara berari ere lehengo oinean egoiteko indarr egiten derauko.

Aho-hizkararen nagositasuna dogmata bat bezala eraikitzean, nahaspil eta konfusiorako bideak zabaltzen direla dirudi. Zenbat eta perfekzino handiagoz aho-hizkararen gora-behera, itzul-inguru eta aitzin-gibel guztiak litteraturak aitzeman, hanbat eta hobeki bere egikizuna betetzen duela uste ohi da sarritan. Baina gorago erran dugunez, litteratur-hizkuntza ezia aho-hizkararen azpiko huts bat, alde guztiz haren mirabe izan beharr balu bezala; aitzitik, bere lege ta eskubide bereziak beharr ditu izan. Bai Euskalherrian eta bai mundu guztiko hizkuntza denetan ere, jende arruntaren aho-hizkara mila dotoreri, ederrigailu eta bitxikeriz aphaindua da.

Ezpainetan darabulgun mintzoak bethiere bizitasun gehiago izaiten du, periodu luzerik gabe, gauzak askaturik, artetz eta zuzentki erraiten daki; hitz batean erraiteko, molderraz, arin, bizkor izan ohi da, eta berezkotasun bere moduko bat ukan ohi du. Idatz-hizkuntzak, aldiz, hotzago emaiten du, bainan gauzak ordenatuago eta zeaztasun ta tinkotasun gehiagoz azaltzen daki, eta molde hunetako beharr du

izan, bere bethebeharra betheko baldin bada (100). Gauza bere erroetatik ateratzea lizateke, bada, idatz-hizkuntzaren perfekzioa aho-hizkara alde guztiz imitatzean jarriko bagenu, bat bederak bere lege ta arau bereziak dituan ez gero.

Atzoko idatz-hizkara kanon bezala eraikitzeak ezterauko, bada, euskarari behaztoparik jartzen. Aitzitik, litteratur-beharkizunen beteitzeko egun bizi diren dialektuetatik bat hautatzea baino hobe, dela, erranen nuke, nehon ere mintzo ezten, baino litteraturan mamiturik geratu den euskara-molde bat hautatzea. Eta horixe da, hain zuzen ere, laphurtarr klasikoarekin egin nahi dena. Egundak hizkara horrek zaharr-usai eta antzina-kutsu arin-samarra daduka are laphurtarren beharrietan ere, bainan horrek egungo euskaldunen begietan prestutasun eta ohore bihurtzen derauko. Herriak berak ere, bere-berea den hizkara-moldea nabaritzean, arlote, baldres ta balio gutikotzat jotzen du anhitzetan. Egundak hizkaratik zerttobait aldendurik egoiteaz dotore-antza ta prestutasuna bereganatzen du, bada, mintzoak, eta prestutasun-usai hori bereganatzen, ardura handieneko egikizuean bezala, saiatu behar da gure litteratur-hizkuntza.

Behin eredu bat begiz jota izanik, bada, litteratur-euskara bat-egin hunek nolako izan zitekean zeetasun gehitsuagotzaz azaltzeko orena heldu zaigu jadanik. Hurrengo puntuari harikoko gara hortan.

IV

Axulararren aroko idazle laphurtarrek erabateko litteratur-hizkuntza molde jakin bat eratu zeraukutela erran dugu. Halabaina, are heuren artean ere, alde guztizko berdintasun eta homogeneitate osoosorot heldu etzela erran behar da. Litteratur-hizkarak galdegin ohi duen batasun eta berdintasun horren ardiesteko, bada, itunezko erabaki batzuk hartzea nahi ta nahiezko da. Hain zuzen ere, grammatikalariek dute hemen aldi eta arlo. Litteratur-hizkuntza orotan grammatikalarien egikizun eta eskua handia izan da. Izan ere, hizkuntza denetan berez molde batera nahiz bertzera jarri litezkeien anhitz gauza izaiten dira eta hizkuntza kilikolo, loka, aldakorr, ezbaia eta baitzepadako itxuraz agertuko ezpada, hoik behin betiko tinkotu eta erabaki behar dira. Erabateko arauak gauzak oin batean eta tinko ezarririk edukitzeak berarizko errotasuna bihurtzen derauko hizkuntzari.

Aitzina ere, laphurtarr tradizionoko idazle hoik (litteratur-euskararen eredutzat hartu gogo ditugunak, alegia), euskarari dagozten legeak egun hobeki arakatuak izan direnez geroztik, anhitzetan urri,

100) Vendryes (alfabetu-liburuan), *El lenguaje afectivo*, p. 196-7.

gabe eta hutseginak edireiten dira. Eta jakina, nahiz ta idazle bikain izan, onean soil-soilik imitatu ta jarraiki beharr zaiela nabari da, eta ez makurr egin zutenetan. Gainera, laphurtarr kiassiko huni bertze dialektuetan edireiten diren berezitasun ta obari batzuk eraixikitzeke asmoak (litteratur-hizkuntzako batasunaren kaltetan ezteanean, nabaski), asmo zuzen ta egokia iduri du. Gauza guzti hoik, bada, begien aitzinean izaki, litteratur-euskara unifikatu hunek izan litezkeien arau, erregela eta zuzenbide nagosi batzuk ukituren ditugu hemen. Bilboko "Urkixo'tarr Jul Elkargoak beretzat harturik dituenetatik aldatuaz. Litteratur-hizkarak dituen lau alhorretan banaturik joanen dira: Ortographia, Morphologia, Syntaxis eta Lexikonari buruzko zuzenbideak, alegia.

1. *Ortographia*.—Erabaki zorrotz eta tinkoz, lehenbizian eta behin betiko garbiturik utzi beharr den alhorra, Orthographia da. Litteratur-hizkuntza batez ere hizkuntza idatzia dela ezta ahantz beharr, eta hizkuntza idatzari jauntzia, soinekoa Orthographiak emaiten derauko. Hitzak, Orthographiak emandako itxuraz sartzen zaizkigu begien barrena, eta behin idazte-molde bati ohitu ondoren, herabe izaiten dugu aldatzea. Orthographiak duen gora behera handia ikhusteko, bi liburu, hizkuntza berean baino orthographia ezberdinaz eskutan hartu bertzerik eztugu: lehenbiziko kolpean behintzat, bi hizkuntza diferenteak direla emaiten dute.

Idazte-molde bakar jakin batera denak ohituak egoiteak eta molde hautatu hori aldatzen ez ibiltzeak mesede handia egiten derauko litteratur-hizkuntzari, eta gizonaren aztura eta setak on hartu, eskatu eta are maite duen gauza da. Beraz, nahiz ta azalari, gain-aldeari dagokon gauza dela uste izan, Orthographia gora behera tipiak zeatz eta zearo erabakitzea ardura handiko egitekoa da eta litteratur-hizkuntzaren batasunerako beharrenetakoa. Euskaldun guztiak idazte molde bakharra har dezatela lortu beharr da, nahiz ta gero, idatziriko hitz oriek ahoz ebakitzean ezberdintasunak izan. Hizkuntza idatzia ororentzat egina da, eta orthographian ezberdintasunak izaitetik behatopa ez tipia sortzen da litteraturaren oro-lehia eta xede horren ardiesteko.

Orthographiaren bateratze hunen egiteko, hibe plaun eta zabala, herriz, Euskaltzaindiak onetsi eta gomendiotan eman duen izkiribatzeke moldeari jarraikitzea dela erran beharrik eztago. Jainkoari eskerrak, molde hori gauzarik geienetan behintzat hartu eta hedatu dela erran diteke. Hala ta guztiz ere, ba dira oraindik Frantzi-aldeko euskaldunen eta hemengoan artean alde batzuk, ezberdintasun batzuk, erraiteko, *x* eta *ch* idazteko pontuan; guk *x*'i emaiten deraukogu soinu eta balioa *ch*'rekin adierazten dute heurak (ichildu: ixildu), eta beraz, guk *tx* jartzen dugunean, berak *tch* ibeni daroe, adi-

bidez *etchea*, guk *etxea*. Lehen erran dudanez, gauza hauietan batasunaren ardiesteko, Euskaltzaindiak hartu duen moldeari jarraiki beharr gatzazkio. Beraz *x* eta *tx* euskaldun guztiek, hemengoek eta hangoek, erabili beharr genukela dirudi.

Alderdi handiena, ordea, hangoen eta hemengoan artean, *h* aldetik sortzen da, eta ponñu hunetan, alde erantziz, guk haien eredura jo beharr dugula derizkiot. Nolako nahaspil ta behaztopa dathorren hunetan usantza ezberdina izaitetik, eztu nehork ukaturen. Euskaraz *h*'rik ez jartzeko usantza duenari, *h* dun euskal idatzi bat ikustean, lehen kolpean bertze hizkuntza arrotz dela-edo gogoak emaiten derauko; eta horrenbertze ezpada ere, bethi gaitz eta beregisako bihurtzen zaio. Euskara idatzian, bada, denok molde batera jo beharr genuke. Frantziko euskaldunek *h* hori pronunziazten, ahoz ebakitzen dute; gainera, euskara idatziak duen tradizinerik hoberenean (litteratur-euskararen oinharritzako hautatu dugun tradizinoan) usantza horrek erro handiak eginak ditu. Beraz, tradizino horren arauz, guk ere *h* horiek jarri beharr genitukela dirudi.

Hunetan, bada, guk heien molderat jo beharr dugu. Denok zerbaitetan amor eman ezik behin ere ezta batasunik eginen, eta hemen amor emaitte hori guri dagokula dirudi. Eztugula guk *h* hori erraiten, ahoz ebakitzen? Eta zer? Paperean jartzeak ezterauku kalterik eginen eta bai mesede handia euskara idatziak beharr beharreko duen batasun hori lortzeko. Hizkuntza orok idazteko moldean, idazkuntzan, finkatzten dute zangoa batasunaren egiteko; idazkaran bateratze hori egiten dute, nahiz ta aho-mintzatzean ezberdintasunak izan; idazkuntza da, bada, litteratur-hizkeraren gogogarririk eta euspenik ziurrena. Behin betiko ikasi ta jakin beharr genituke, bada, *h* daramaten hitzak eta betiere hala idatzi. Hauzi hunen erabakitzeko bertze bide onik ez tut nik ikusten.

Goazen orai bertze pontu berri baten ukitzera, *r* gogor eta samurraren hauzia, alegia. *Donostiarr*, *gogorr*, *samurr*, *arztega*, *arztean*, *harrigin* t. a. erraiten, euskaldunak *r* gogorraz ebakitzen ditu hitz horiek, *garra*, *zorro*, *lurra* erraiten darabilgun *r* berberarekin; beraz, idatzi ere *r* gogorra adierazteko hautatu ikurraz (hau da, makiladun *r* -*r*' edo bi *rr* kin) egin beharr lizatekela dirudi. *R* samurr erraiten den guztietan, berriz, *r* bakunaz idatzi: *paper*, *nor*, *erakutsi*, *ur bedeinkatua*. Litteratur-tradizinoan eztela zuzenbide edo erregela hunen berri ba dakit; bi vokalen erdiko *rr* gogorra soil-soilik idatzi izan da bi *rr* kin, erdarak egin ohi duen bezala: *garra*, *zorro*, *lurra*; bertze guztiak *r* bakunaz: *samur*, *lur*, *hargin*.

Erdarak, ordea, arrazoin du hala egiteko, intervokaliko hori izan ezik, ezpaitu bertze *rr* gogorrik ebakitzen: *comer*, *fresco*, ta hekien

idurikoak erdaraz samurrak baitira. Beraz hunelatan, euskaldunaren Phonetikari zuzenki eta hobekiago doakon idazte molde hau, *rr* gogorra eta *r* samurra zeatz distinguitzeko usantza hau, hartu beharr lizatekela dirudi. Alemanitarr hizkuntzak ere hala egin ohi du: *Herr*: jauna, ta bere idurikoak *rr* kin idazten ditu; *irren*: iruzurr egin, eta hortik sortzen den *Irrtum*: okherr, bi *rr* kin idazten dira; guk, berriz, *lurra* bai ta *lurr* zergatik eztugu bi *rr* kin idatzi beharr? (101).

Gavel jaunak urregorritzko erregela bat erakusten derauku orthographia koropilo hoik askatzeko. Hitz batbedera norberaren dialektuan erraiten den gisan idaztera joanen bagina, nahaspil handia sortuko lizateke; adibidez, *jauna* borte sei erara idatzirik izanen genuke: *yauna*, *jauna*, *xauna* t. a. Erregela, bada, hauxe izan bedi: hitz berbera euskaldun guztiek berdin, era batera idatzi dezatela, nahiz eta hitzaren pronunziazinoan bat egon ez. Idazte-molde bakar hori haukeratzean, ordea, zeri behatu beharr ote zaio edo nolako kriterioiak eduki beharr othe dira kontuan? Gavel jaunak honako hau proposatzen du: Euskaldunik gehienek erraiten dituzten otsak, nahiz eta eskualde batean erran ere, idatzi bitez toki denetan: adibidez, *jaunaren*'go *r*, *naiz*, *nauzu* eta *zerbait* hitzetako *a* Be-Nafarroako aldean ez tira erraiten, baina idazkuntzaren berdintasunari behatuz jarri beharr dira are Be-Nafarroan ere. Bertze batzuetan, berriz, bertzeza ere gertatzen da: bazterr banaka batzuetan tokirik geienetan ezagun eztiren ots batzuk entzuten dira: *buruba*, *zorijona*: berezitasun hoik idazkaran ez bitez jarri (102). Gavel jaunak dionez, bada, amets dugun idazte molde baxharra euskaldunik geienek pronunziatzen duten araura hartu beharr da; eta bertzeak bertze direla, litteratur-tradizino hoberean erabili ta hautau duen moldea gorde bedi.

Aho-sabaiaz ebakitzen diren eta erran nahirik eztakarten otsei buruz (palatitzakuntza asemikoak), idazkaran ez jartzea Urkixo'tarr Jul Elkargoak erabaki du. Hunen arauaz jantzita, baiña, oillo idatzi beharrean, jantzita, baina, oilo jartzen dugu. Hots hori deminutivua adierazteko denean, berriz, orduan soil-soilik jarri bedi: edo marra bat litteraren gain-aldean ezarriaz edo littera bera bi aldiz idatziaz (liburutto, gazetto).

Herriak anhitzetan hitz-zati batzuk jan egiten ditu, hitza laburtzera edo itxuragabetzera jotzen du. Idazkuntzan, berriz, hitz horiek bethi osorik eta diren bezala idaztera jo beharr genukela dirudi: *lehen*, *zaharr*, ez *len*, *zar*.

(101) Ikhus Azkue, Diccionario Vasco-Español-Francés, Bilbao, 1905, t. II, p. 189, «De la r fuerte».

(102) H. Gavel, Necesidad de una lengua literaria y oficial y la unificación de la ortografía vasca, RIEB t. X (1919), p. 137 ss.

Orthographiari dagokon atal hau amaitzeko, euskal-grammatikan ere, hizkuntza orotan bezala, zuzen, jaso eta korrektuaren idea hartu beharr dugula nabari da. Anhitz gauza izaiten dira hizkuntzetan berez era batera nahiz bertzera jarri ditezkenak; hoietan, bada, idazte molde jakin eta bakharra hautatu beharra dadukagu. Idazkara hautatu hori zuzen eta jaso bezala eraikiz, bertzeak okherr eta makhurtzat jo bitez. Erraiteko, *harri, ederr, zaharr* (ongi); *arri, eder, zar* (gaizki). Erdaraz ere nehork “hablar” *h* gabe edo “conveniencia” *b* rekin idatzi ba leza, halakoa makhur eta hobendun jotzen dugu. Euskaraz ere bertze horrenbertze egin dezagun arteino eztira gauzak bide zuzenean jarriko.

2. *Morphologia*.—Behin baratze hunetara helduz gero, verbuaren hauzia dugu hemen koropilo nagosi eta buruenik. “Euskerearen batasuna aditz-yokatzean bakarrik dago”la (103) gehiegi erraita bada ere, ardura handienetako puntu bat behintzat hauxe dugula ezin ukha. Orai arte erran direnak erran ondoren, ordea, koropilo hau aisa aska ditekela derizkiot. Behin laphurtarr klassikoa litteratur-euskararen oinharritzat ibeniz gero, verbua ere tradizino hortan erabili dena haukeratu beharr dela dirudi. Ez, ordea, Leizarraga eta Detxeparek dakarten bezala, hekien euskal verbua, egungoaz elkar jota, oso bertzelako agiri baita, eta alde hori ezta azaletikoa soil-soilik, konjugazino systemata osoak biraldakuntza handia egin baitzuen XVI'garren mendean.

Aldakuntza horren azken erro eta kausak René Lafon'ek bere opera bikainean zorrotz hauteman ditu (104). Beraz, Axularr eta bere saldoko idazleak hartzen dira eredutzat; heken liburuetatik ateratako verbua jartzen da, bada, litteratur-euskararen verbu bezala. Idazle klassiko hoik, ordea, heuren artean ere beti bat egon ezpaitira, hemen ere itunezko arau ta erabaki batzuk hartzea beharreko zaiku, zein forma hautatu beharr lirateken behin betiko garbiturik uzteko. Bilboko Urkixo Elkhargoak beretzat hartu dituenetik, arau banaka batzuk aiphaturen dira hemen:

Laguntzaile aldakorra: Indikativuan, sustraitzat *erau* dadukaten formak hautatzen dira: *deraukot, derauku, nerautzun...* Nauzu, nau ta hoiek, *a* ta guzi erabili bitez. Subjunktivuan, berriz, *ieza* kin eratuformak: *diezadan, ziezadan...*

(103) *Madariaga'tar Angeru Aba, O. F. M., Euskerearen bakuntzaz; Euskerea, III ur'hea (1922), 60'gn. orrialdean.*

(104) *Rene Lafon, Le systeme du verbe basque au XVI siecle, 60-1 orrialdetan, 523 orriald. (lehenbiziko volumina). Bigarrengoan, berriz, ikhus 160 orrialdetan.*

Laguntzaile' aldakautza. Gara, zara ta hoik hautatzen dira, ez egun-go laphurtarrek sartu dituzten *gire* t. a.

Heurenez jokutzen diren aditzei buruz (verbu synthetiko edo gogor-rak), gure idazle hoberenek erabili zituztenak orai ere erabiltzea zilhegi bedi. Dirautso, daragoio ta ikhusi daroat, nahiz ta bizkaitarr izan, hartzen dira.

Ikhusi bai tut'en ondoan, hemengo euskaldunen *ikhusi dut-eta* ere bidezko ta zuzen bezala aithortzen da.

*Ethorri den ezker*o eta *ethorri denaz gero*, bi-biak hartzen dira, baina bat bederari erran nahi berezia erantsiaz: lehenbizikoa kausa-litatearen adierazteko gordeko da (propter hoc), bertzea, berriz, ba-ta bertzearen ethortze hutsaren adierazteko (sukzessino soila; post hoc).

Laphurtarrek *-tako* eta *-riko* atzizkiak kentzen dituzten okkasinoetan kentzea haizu bedi, baina zeaztasun edo argitasun premiak ibentzea gomenda ba leza, jartzea ere sori litzake (ekharri-liburuek, ekharritako liburuek).

Aditz aldakaitzean forma batzuk daramaten *a*, *e* bihurtzen da, verbuari atzizki edo emendailurik eratxekitzen zaion guztietan. *Ethorri zan* gizona: vino el hombre. *Ethorri zen* gizona: el hombre que vino. *Gara* (forma hutsa); emendailuz, *garen*, *garela*. *Orobat*, *da*: den, *dela*, *delarik* t. a.

Halaber, bukhaera bezala *kean* duten formei ere bertze horrenbertze gertatzen zaie, bukaera hori *keien* bihurtuaz. *Ikhusi zezakean* gizona: pudo ver un hombre. *Ikhusi zezakeien* gizona: el hombre que pudo ver.

An bukaera dutenek, berriz, *n*, *la*, *nean*, *neko*, *larik*, *lakotz*... emendailua daramatenetan, *a* hori *e* bihurtzen da. *Zinan*: zineneko, *ziran*: zirelakotz.

Infinitivuko atzizkiak (*-tu -i*), edin ta ezan laguntzaileen formetan edekitzen dira: ikhus dezaket, ethorr dadin. *-tu* atzizkiaren *u* bakharrik zenbait verbutan galtzea, laphurtarr usantzaren arauaz eginen da: orhoit, laket, ezagut...

Verbuari dagokana garbituz gero, Morphologian eztago bertze kopipilo handirik. Laphurtarrak genetikoa erabili ohi du, sartaldeko euskaldunek akkusativuarekin erraiten duguna adierazteko: "bekhatu haren estaltzeagatik" (Axularr): bekhatu hura estaltzeagatik: bitara erraitea zilhegi bedi.

Izenen deklinazinoan, plural ergatikoa adierazteko *ek* erabil bedi, bertzela berriz *ak*: Gizonek egin dute hori; Gizonak etorri dira.

Pronominak, laphurtarrenak izan bitez. Singular pairuzkoa: hau, hori, hura. Ergatikoa: hunek, horrek, hark. Plural pairuzkoa: hauk, hoik, hek. Ergatikoa: hauiek, hoiek, heiek. Bertze kasuak ergatikoe-tatik eratxi ohi dira: hauien, hauientzat, hunen, horren...

Arau generala, behin laphurtarr klasikoa oinharritzat hautatu den ezkerro, haren berezitasun ta joerari hurbiltzea.

3. *Syntaxis*.—Egia erran, gure idazle zaharrek baratze hunetan eztira guztiz imitagarri athera; maiz erdal ereduz likisturiko joscara agiri bai tute, erdal kutsuzko syntaxis, alegia. Egun, euskarari zorr zaion joscara edo syntaxis bereziaren azterketa zorrotzago eta sakonago bat egina izan da, eta, beraz, heiek izan etzituzien argi eta zuzenbideak ditugu beharr bezalako syntaxis hori erabiltzeko. Altubertarr Seber euskaltzain jaunak ixtudi egin-egineko bat eta alde guztiz zorrotz burutu du, euskarak galde egiten duen syntaxis nolako edo zer moldezko den gaingiroki, sustraitik eta sahets orotarik frogatu eta sendo ezarririk utziaz (105). Lege hoik litteratur-euskaran kontuan iduki beharr direla erranik dago onezkerro.

Orazinoaren elementa galdetua (inquirido) zeharo eta tinko nabarmentzea euskararen seta eta barren-barreneko gogoari dagokon lege berarizkoa da. Euskaldun jatorrak zalantzarik gabe daki hunako phrasis hekien arteko alde eta erran-nahi ezberdina atzemaiten: *Aita* datorr gaurr: (el padre es quien viene esta noche); *Gaurr* datorr aita: (esta noche es cuando viene el padre); *Ethorri egin da* gaurr aita: (venir es lo que ha hecho esta noche el padre); *Ba* datorr aita edo *Ethorri da* aita: (ya viene el padre, ya ha venido el padre). Perpaua molde batera nahiz bertzera jarri, erran nahia aldatu egiten da. Elementa galdetu horren tokia zeatz gordetzea ardura handiko gauza da, beraz, euskal joscara zuzenaren arauaz idatziko bada. Exempla hoietatik legeak aisa eratxi ditezke. Verbua edo baietza ta ezetza ez, orazinoko bertze elementa guztiak, galdetuak direnean, verbuaren aitzinetik eta hunen ondo-ondoan jarri beharr dira. La tierra es redonda: Lurra *biribila* da edo *biribila* da lurra. La iglesia de este pueblo es grande: herri hunetako eliza *handia* da. Kalizean zer dago? Kalizean Jesukristoren *odola* dago. Ama, neri *ziba bat* bidali. Trinitate Sainduko Personak *hirur* dira. Jainkoa *gizonen aita* da". "*Bekhatuak* dira zorrak" (Ax., 3 ed., 531 orr.). "Eta hauk guztiok, bere egitez eta izanez *obra onak* dira" (Ax., 3 ed., 528 orr.). Membra galdetua eta verbua elkharri iratxekirik, hura aitzinetik eta hau hurrenetik josi beharr dira, beraz.

Galdetua verbu berbera ba dadi, ordea, eta laguntzaile-bitartez jokatzen direnetakoa bada, *egin* erantsi beharr zaio, era hunetara: Zer gerthatu zaio aitari? Gaisotu *egin* dela. Soineko guztia apurtu-apurtu *egin* du. Verbu galdetua indartsu edo synthetiko deithu hoitatik denean, berriz, birretan jarri ohi da, molde hunetan: Gizon hori joan doa ala ethorri dathorr?

(105) Altubertarr Seber, «Erdersmos», Bermeo (Bizkaya), 1930.

Atzenik, galdetu hori verbu berberaren akzinoa izan beharrean, verbuaren qualitate affirmativu nahiz negatibua denean, ezezkoan verbuari ez iratxekitzen zaio bethiere aitzinetik; baiezkoan, berriz, verbu indartsuei *ba*, eta laguntzaile bitartez jokutzen direnei agerizko aldaketarik etzaie egiten, “Nere dirurik eztuk ikhusiko”. “Badator aita”. “Alako baten jcten gaitu aize bunbada batek...” “...ckharri zuen solhasak” (Ax. Irakurtzaileari) (106).

Orazino nagosi eta sehikoaren (principal y subordinada) artean diren gora-behera eta legeak ere oso kontuan idukitzekoak dira, euskararen senaren arauaz idatzi nahi baldin bada. Orazino sehikoa galdetu denean, aitzinetik bota beharr da, nagosia gibelerako utziaz, eta orazino sehikoaren verbuak bere perpausaren barrenean atzen tokia gorde beharr du. Euskaldun eskolagabeek, erdaraz mintzo direnean, ederki asko azaltzen dute lege hori euskal kutsuzko beren erdaraz: “La perla del medio de la más grande de Bilbao que es dicen”. “Moda que es me dijo”. Beraz, gaizki ordenaturik doa Axularren perpausa hau: “Ezteratzu prometatzen eta ez segurantzarik emaiten igurikiko deratzula garizumaraino” (3 ed., 532 orr.). Ordena zuzena bertze hau lizateke: Garizumaraino igurikiko deratzula ezteratizu prometatzen eta ez zegurantzarik emaiten (107).

Perpaua luze eta sehiko askodun denean, hekien arteko gora beherak nola edo zer moldez zuzendu beharr othe dira? Nagosi edo prinzipala gehienetan gibelean jarririk doa hobe (ez ordea bethi). Sehikoak elkarren artean ordenatzean, erdarak eta euskarak lege alde guztiz bertzelakoa dutela ezta ahantzi beharr: euskarak systemata gorakoa, erdarak, berriz, beherakoa du. “Maisua aspertu egin da erakhusten ibilten” (se ha aburrido de andar enseñando). “Haurrari ibilten erakhusten hari gara” (enseñando a andar). Huna hemen Balmes'en textu bat, Zinkunegi jaunak zuzentki euskararat itzulia: “Creo que nadie pondrá dificultades en que las frutas dan señal de sabrosas cuando han adquirido cierto tamaño, figura y color”: Igalia alako aunditasun, arpegi ta margua bereganatzen dituztenean gozoak diran ezaupidea dutela siñisteko zailtasunik iñok ez duala izango uste det (108).

Gure idazle zaharrek anhitzetan eztituzte erregela hoik ongi gorde, erdal ereduaren arauaz josten baitzituzten beren orazinoak. Ez ordea bethi. Euskal sen bizi-bizia zutelarik, beharriak edo euskal sen horrek eraginik, erregularik gabe zuzentki jostera ere asmatzen dute. Arestian aldatu dira Axularren orazino batzuk, zuzentki josiak.

(106) Altubetar Seber (aiphatu-opera), lehenbiziko hirur kapituluetan.

(107) Altube, V'gn. kapitulua.

(108) Altube, VI'gn. kapitulua.

Ikhusagun orai bertze batzuk makhurr eta hutseginak, aldamenen orazino hoik egiazko euskal konstruzinoaren araura zuzendurik emaiten ditugularik.

“Eta bertze guztien artetik hasi zeizkidan niri neroni aditzera emaiten, lehenbizian kheinuz eta aieruz eta gero azkenean klarki eta agerriz, nik beharr nituela egiteko hartan eskuak sarthu”: Eta bertze guztien artetik, lehenbizian kheinuz eta aieruz, eta gero azkenean klarki eta agerriz, egiteko hartan nik eskuak sarthu beharr nituela niri neroni aditzera emaiten hasi zeizkidan.

“Eta nahi nituzkeyen bi parteak elkharrekin eta batetan athera; baiña ikhusirik zein gauza guti edireiten den euskaraz eskribaturik...”: Eta bi parteak elkharrekin eta batetan athera nahi nituzkeyen; baiña euskaraz zein gauza guti eskribaturik edireiten den ikhusirik .

“Badakt anhitzek miretsiko duela eta edirenen arrotz eta extraiño ni lan huni lotzea”: Ni lan huni lotzea anhitzek miretsiko eta arrotz eta extraiño edirenen duela ba dakit (109).

Ezen, zeren, hain... non ta bertze holako erderakadak, nahiz eta eredutzat jarri ditugun idazleetan aurkhitu, onetsi beharr eztirela errian beharrik eztago.

Agian, eredutzat hautatu diren idazleen liburuak, berriz argitaratzekoan, syntaxis aldetik zuzenduak atheratzeko asmoa ezlizateke okherra. Hunelako liburuetan eskuak ibentzea arriskuz betheriko egitekoan sartzea dela ba dakit. Baina euskara zuzen eta kanonikoaren ithurri eta maisu izaiteko egiten diren edizinoetan horrenbertze haizu litekela dirudi.

4. *Lexikon*.—Lexikon edo Hiztegia hizkuntzaren zathirik aldakorra izan ohi da, ethengabeko gora beherak paira eta jasaiten dituen, alegia. Hitz berrien hartzeaz eta bertze zaharren zokondorazteaz ethengabe erraberrituaz dabilen parteak. Cervantes aroko erdarak, oraingoaz elkharr jota, vokabularian nolako gambiadurak eman ez othe ditu? Gauzen adierazteko legea hobekienik bethe dezan amoreagatik, hizkuntzak horn-hemen bilhatzen dituen hitzak hartu ohi ditu, erran nahi, expressino eta indarr gehienik duena hautatuaz. Hitz askoren expressinorako gaitasuna, ordea, egunoroko erabiltzeaz lasterr makaldu, ahuldu eta are suntsitu ere egin ohi da, eta orduan hitzunak bertze berri baten bilhan joan beharr izaiten du. Hala hizkuntza baten hiztegiak gora-behera handiak jasan ohi ditu.

Guk, ordea, gure litteratur-euskarak, lexikonaren baratzean nolako arau nagosiak izan litzaken ukitu nahi genuke orai hemen.

Lehenbizi, euskalki guztietako hitzak hartu. Denak dira euskal-

dunak, euskararenak; beraz, litteratur-euskarak oinharritzat laphurtarr klassikoa edukiarren, lexikon-aldetik non nahiko hitzei atheak zabaldu beharr derauzte (hitzok hitz beraren variante soil bat bertzerik ez tirenean behintzat). Adibidez, “ganora” hitza alde guztiz bizkaitarra da; orobat, “errari”, “sein” t.a.; hunelakoei, bada, litteratur-euskaran abegi eta harrera on eman beharr zaiela nabari da. Eta hori are bertze hitz synonymuak lapurtarrez dagozela ere. “Erori” ta “jausi”, “igorri” ta “bidali”, “jagon” eta “zaindu”, denak har bitez, eta bat bederari bere erran nahi izpitto berezia erantsi bekio. Gainerakoan, batasunerako beharreko diren arau nagosiak gorde ba litez, vokabularian bizkaitarr nahiz bertze edozein eskualde-usaina agertzea ez-lizate kaltegarri euskararen batasun horretarako. Alemanian ere, litteratur-hizkuntzarako emanik dagozen arau buruenak orok gordearren, idazle bat bedera nongoitarra den igartzea maiz gerthatu ohi da eta ezberdintasun horrek batasunari ezterauko kalterik egiten.

Hitzok variante soil bat bertzerik ez tirenean, erran dugu. Orduan bai, orduan molde bat bakharra hautatzea nahi ta nahiezkoa da, gainerako guztiak litteratur euskaratik kanpora egotziaz. Zein hautatu ordea? Laphurtarr klassikoaren litteratur tradizinoan erabili izan den molde jakina. Adibidez, erran ta esan, bertze ta beste, eliza ta eleiza, ediren ta idoro, zaindu ta zaitu, burdin ta burni, bidali ta bialdu. Agi denez, hitzok, hitz bat, bakharr eta beraren varianteak bertzerik ez tira; beraz, bikote bakhoitzaren buruan jarritakoa harr bedi, huraxe baita laphurtarr tradizinoak harturik dadukana. Azkue jaunaren Hiztegi Nagosia zerbait arakatu eta aztertu duen edozeinek daki gure hizkuntza nolako Babelgo Dorrea den hunelako variante alpherrikakoen erruz. Batak edan, bertzeak eran; hunek euri, bertzeak, berriz, ebi; hunek euli ta hark elbi, t. a. Hunelako huskeri ta ezertarako ez tiren varianteak khendurik, hitzok bateratu beharr dira litteratur-euskararen, molde bat bakharra ezarriaz.

Eta hitz bat bederaren erran nahi ezberdinez bertze horrenbertze erran beharra dadukagu. Hemendik ere Babelgo Dorre ta nahaspil ez tipia sorthu ohi da. Erraifeko, “lepho” Bizkaian sorbalda (“espalda”) da, bertze dialektuetan, berriz, bizkaitarren “sama” (“cuello”); “gaurr” sartaldeko euskaldunentzat “hoy, durante el día”, eguzkialdekoentzat, ostera, “hoy, durante la noche”... Gauza guzti hoik ere behin bethiko erabaki ta era batera jarri beharr direla ezagun da. Beraz, laphurtarr klassikoan hitz bat bederak duen erran nahi nagosia, hitzaren erroan datzana, huraxe harr bedi erran nahi kanoniko bezala, eta hitzaren akzeptzino gainekoak lehenbiziko zuzentki erakharr bitez.

Litteratur-euskara hiztegi egoki baten beharrean aurkhitzen da. Hiztegi hunetan hitzek molde bakharr batera, hautatu orthographia-

ren arauz idatzirik, agiri beharr lukete; eta hitzen erran nahiak ere, litteratur-euskarari dagoztenak sol-soilik ekharri beharr lituke hiztegi horrek. Gauza ez-tiren variante ikol guztiok, ordea, eta basis bezala hautatu den erran nahiaz bat eztathorrrzten gainerako akzeptzinoak, nahiz ta toki batzuetan usantzan egon, hiztegi horretatik kanpora egotzi beharr lirerateke edo makhurtzat jo, behintzat.

Eta bertze hizkuntzetatiko hitzak? Nolako kriterionak izan beharr othe ditu euskarak gai huni buruz? Hizkuntzaren egitekoa bethetzeko bere baithako elementa hutsez asko izan duen hizkuntzarik munduan ezta egundaino sorthu.

Lehenbizi, herriak antzinatik harturik eta euskaldundurik daduzkan atzerri-hitzak bakean utzi beharr direla eta euskal garbiekin nahasian erabili, frogatu beharrik ez-tuen gauza da. Batez ere latinetik harturik, hunelako ugari ditu euskarak: aingeru, eliza, zeru, balakatu, pago, bake...

Herri-bidez sarthu zaizkigun hitz hoietaz gainera, kultur bidez eta jakintsuen egitez etxeratu hitzen premian eta beharrean edireiten da oraino gure euskara. Kulturaren mundu zabal jori goratua expressatzeko gauza izanen bada, hamaikatxo hitz jakintsu bidez hartu beharr ditu gure mintzoak. Hortarako, Europako hizkuntza orotan hedaturik dagoen kultur terminologia greko-latindarra guk ere euskararat ekhar-tzea beharr beharreko derizkiot. Hitzok, ordea, herri bidez sartutakoen antzera itxuragabetzen ibili beharrean, ahalik eta gutiena aldatuz, latin edo grekotik euskararat zuzen eta arthez erakhartzea dirudi hobe. Eta hortarako zuzenbide edo arau batzuk opha lirerateke. Arazo hau erabakitzea euskarak duen lanbiderik larrienetako eta gora behera handienetakotzat jotzen dut.

Eta kultur terminologia erraitean, jakintzetako teknizismuak ez ezik, kulturak non nahi beharr dituen bertze hitz asko ere erran nahi ditut, batez ere kontzeptu izpiritualak eta abstraktuak expressatzeko beharr ohi diren hitzak. Hunelako kontzeptuetarako hitzez euskara zein urri, landerr eta gabe edireiten den ezagun da, eta ezta mires-teko, herri-mailatik jakintsu mailarat igan ez-tiren hizkuntza orotan gerthatzen baita hori. Gure euskara maila hortarako gaitu eta egokitu beharr dugu, bada. Adibidez, erdarak arrontki darabilzkian *calidad*, *cantidad*, *causa*, *condición*, *fin*, *circunstancia* eta bertze mila hitz abstraktuak euskarak ere beharr beharreko ditu, kontzeptu hoik edozein eskolatuk, nahiz euskaldun nahiz edozein herriko izan, buruan bai titu, eta zuzen expressatzeko hitz egokiaren beharrean edireiten baita. Euskara hondamenditik begira nahi baldin badugu, egungo gizon ikasi, jakintsu eta kulturdunen gauzak expressatzeko hizkuntza egokitzea bertze hiderik ez-tugu.

Kontuzko gai hau evolutu edo hedatsuki azaltzea eztagot niri.

ordea. Dissertazino hunen aitzin aldean erran dugunez (110), Krutwig jauna hari izan zaiku kultur terminologia hori euskararat aldatzeko molde ta arauetz. Eta terminologi grekolatindarra hartu beharr dela erraitean, komposizino ta derivazino bitartez euskal hitzez era ditezken formazino tajuzkoak eragotzi nahi ez ditugula erran beharrik eztago.

Gure idazle zaharrek erderatiko hitzak esku betheka hartzeko kezka eta antsi handirik izan etzutela jakina da. Guk beharbada bertze alderat jo dugu, gehiegizko garbitasunerat, alegia, Euskal sustraiez eratu hitzak bertzerik nahi izaiten eztitugu, eta hala anhitzeian gauzak aisa ta egoki adierazi ezin izaiteko hersturan ibentzen dugu euskara. Euskal hitza atzerrikkoa bezain egoki etxean dugularik, kanpoko erabiltzea euskarari bidegabe egitea eztenik ez tut erranen; baina, bertze aldetik, nere gogoa zeatz erpressatzeko, hizkuntzan tajuzko eta erarako hitzik bilhatzen ez ba dut, atzerrikkoa zergatik hartu ez? Hunela etzaio hizkuntzari mesede bertzerik egiten; mintzoa edozein realitate ta kultur zer guztiak expressatzeko egokitze lan hunetan saiatzea bertzerik egiten ez tugu. Pontu hunen bukhatzeko, Urkixo jaunaren elhe zuhurrak ez tira gaizki ethorriko:

“No es escaso, ciertamente, el número de vocablos de origen latino que Etcheberri emplea en sus obras, ni es este un hecho que deba sorprendernos. Nuestros contados escritores de los pasados siglos, no tenían reparo en echar mano de una palabra extranjera a falta de un vocablo indígena, del mismo modo que los ingleses no se paran a considerar, cuando hablan o escriben en su lengua, si las voces de que se valen para expresar sus pensamientos son de origen sajón o de importación francesa. Sabido es que los autores que escriben en lenguas que gozan de vida próspera y lozana, no incurren en esos excesos de purismo, que hoy observamos en algunos autores, y que han de ser causa, si Dios no lo remedia, de la completa ruina del vasconce. Y entiéndase bien, que no trato de absolver con esto a Lizarraque, Axular, Etcheberri y demás autores antiguos del grave pecado que cometieron al servirse de palabras extranjeras para significar objetos o conceptos que con gran propiedad podían expresarse con vocablos indígenas: lo único que aquí deploro es el afán inmoderado que se ha desarrollado de algunos años a esta parte en ciertos vascófilos nacionales, de inventar palabras a troche y moche, y de sustituir, sin necesidad alguna, no pocos términos de uso corriente, y que son los que emplearon nuestros antepasados durante largos siglos, por otros de moderna creación y de mérito dudoso: de tal manera que de seguir por ese camino nos harán creer que hemos vuelto a los tiempos de Aristarco, y que, a semejanza de los analogistas, quieren corregir a su antojo cuanto se opone en su propia lengua a las leyes filológicas que previamente se han forjado” (111).

* * *

(110) Cfr. supra, §'gn orriald.

(111) J. de Urquijo, «Obras vascongadas del Dr. labortano Joannes de Etcheberri», Introducción. p. LII ss.

Litteratur-hizkuntzaren lau baratze hoietan hunelako edo heken iduriko arau nagosi batzuk gorderik, batasuna errotikan eta sendo eginik genuke. Hizkuntza idatzia itxura eta begitartez (Orthographia), eta are barreneko mamian ere (Morphologia, Syntaxis, Lexikon), berdin eta erabateko genuke. Idazkuntzan zangoa finkatzea: huna hemen horretarako orgabidea. Hurreneko atzen pontuan plan huni jarri zaizkikoen koropilo objezinoak askatzera saiaturen gara.

V

Sarritan theoria eder-ederrak asmatu ohi dira paperetan, alde guztiz liluragarri, oso eta egin-egineko iduri duten teoriak, erroan, barreneko mamian, aldiz, gaitz ezkutu bat dakhartelarik: ezin realiza ditezkeela, egi bihurtzeko on ez izaita, alegia. Gurea ere min horrek jota ote datorr? Edozein modutan ere arerioaren sahetsetik hauziari begia edukitzea ta haren argumentak kontuan hartzea beti izan ohi da on ta gomendagarri, problemata sahets eta aitzin-gibel orotarik astinduaz, argi osotan ager dadin. Plan huni ene iduriz jarri zaizkikoen eragozpen ta koropilo nagosiak jarriko dira ba hemen eta berai, ahal den neurrian, erantzun emaitera enseiatuko naiz.

1. *Hizkera-molde hau ikasi egin beharko genukela* (112).—R. Bai orixe. Litteratur-hizkuntza non nahi ta betiere ikasia izaiten da. Guk idazten dugun erdara ez ahal da ba ikasia? Arren, ez eskatu euskarari nehongo hizkuntzari eskatzen etzaion gauza bat (ikasi gabe jakin dezakegun alegia). Hizkuntza orok izan ohi dituzte tajuzko arauak grammatika gora-behera asko erabakitzeko eta idaztean denak batera jo ditezen amoreagatik jarriak; arau hoik, ordea, ixtudiatu ezik eta hekien betetzera lehiatu gabe, hizkuntzaren bateratzea behin ere eta nehola ere lorturen ez lizateke.

Hortarakotz hizkuntza orok dituzte eskolak. Egungo egunean euskarara hekietatik egotzita edireiten dela ba dakit, eta hain zuzen ere hortik datorrko gure mintzoari kalte eta hondamendirik galgarriena. Euskarari eskolan toki bat bihurtu dakion lan egin beharru dugu, bada. Baina hunako hau ere dezagun aithorr: eskola bagenuke ere, zer irakatsiko genuke bertan? Euskararen irakaskintza bateratu eta erabateko arauekin sendo ezarririk othe dugu? Hortarako litteratur-euskarara erabatekoa beharru dugu moldatu, Euskalherriaren hedadura guztian dagoon hizkera-molde bakharra, gure Litteratur Historian erroztaturiko hizkera uren zindoa.

(112) Ikhus «Informe de los Sres. Académicos A. Campión y P. Brousseau a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera», Bilbao, 1920, 9^{gn}. orriald.

Bitartean, eskualde bakoitzeko dialektua irakatsiz eta herrixka bat bederako usantza, aztura eta ohikuntza zuzenbidetzat harturik, halako eskoletatik ezluke euskarak onura handirik izanen (113). Oronen euskara, litteratur euskara erabateko hori beharr dugu, bada, lehenbait-lehen antolatua. Euskaldun guztiak erabili beharr duten litteratur hizkara nolako edo zer moldezko diteken erabakitzera etorr ditezela euskaltzale ikasiak: huna hemen oren hunetan euskarak galde egiten deraukun lehen gauza. Aurrenik lanhabesa beharr dugu gertu.

Hortarako, beharbada, eskolaz gainera, Universitate edo Kultur Elkargo garai baten beharrean gagoz, egiteko handi hunen beregain hartu eta burutu lezakeien Kultur Elkargo baten premian. Kultur kentra ahaltsu batek, hartara jarririk, litteratur hizkuntza arau egokiz sendo ezarririk eta bateraturik eman diezakegu, beharr lirateken laguntza ta ikasbide guztiak bere itzal ta burupeaz argitara emanaz: Grammatika, Hiztegi, liburu t. a. Gero azkenik, eskola bitartez euskara molde hautatu hori orotara hedaraziko lizateke. Lan hunetan eskuak sartzea, ordea, orai beretik eta berantegi izan dadin baino lehen jardun beharr dugu.

2. *Euskara ikasi hori gezurr-hizkara genukela, arima, gozo eta barren-izerdi gabeko mintzoa. Litteraturak berezkitasun ta hezatasuna galde egiten du eta hortarakotz amaren ugatzaz batera edoski genuen euskara modua bezalakorik ezta.*—R. Litteratur genera batzuei norberaren dialektuan haritzea ta are gauza guztiak herri xeak erraiten dituen molde bereborean ezartzea ere egokiago zaiela eztut ukha-

(113) Altube, La Unificación del Euskera literario (Eusko Jakintza, vol. III, 1949, p. 182): «En los últimos años, la enseñanza literaria del euskera se practicaba en todo el País, en tres o cuatro docenas de escuelas, pero empleando en ellas dialectos particulares propios. Así en Vizcaya se enseñaba el euskera vizcaíno y no siempre en la misma variedad dialectal; en Guipúzcoa el guipuzcoano y en Navarra el navarro. Total, tres o cuatro variedades del euskera para tres o cuatro docenas de escuelas. En cambio, el idioma español, además de otras incomparables ventajas, disfrutaba la importantísima de que en todas sus innumerables escuelas de Álava, Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra era enseñado en su forma literaria unificada, común... Hay que tener en cuenta también los problemas editoriales, cada vez más importantes dado el constante progreso en todo el mundo de las ciencias y de las artes y la difusión de ellas por textos literarios... Considerese a ese respecto la gran desventaja del idioma vasco, si a pesar de su necesariamente reducida población dedicada al estudio y a la lectura, se le impone la obligación de publicar textos editados en variadas formas dialectales».—Tauer jaunak ere horixe aithortzen du (ikhus Euzko Gogo, 11'gn. urthea, Uztaila-Dagonilla, 7-8 zenbak., 39 orrialde.): «Euskeraren ez-batasuna beste eragozpen aundi bat da euskerazko idaztiak Euzkadi osoan zabaltzeko; izkelgiak irakurgaiet ipintzen dizkioten mugak gauza beltza da irakur-zale ta idazleentzat».

tuko: horr dira Gabriel y Galán'en "Extremeñas" ororen hizkuntzan egindakoen aldamenean; baina giza-mintzoak expressa ditzakeien gai eta beharkizunik gehientsuetarako ororen hizkuntza dela egokien ta haukerakoienik edozeinek daki. Hau, bada, moldatzen eta ikasten lehiatu beharr gara. Hizkuntza, bere izanez ta egitez, ikas eta alda ditezkeien, har eta utz ditezkeien zeretara bihurtzen da. Domingo Agirrek, bizkaitarr izaki, *Garoa* gipuzkeraz idatzi zuen, Axularr be-
ra ere bere jaioteuskalkiz etzan hari izan. Gainera, guk amets du-
gion ororen euskara hau amagandik hartu hizkara bera, baino edu-
kazinoz osatu eta umotasunerat ekarria bertzerik ezta.

Litteratur euskara hau euskaldun guztien arteko lokarri bat be-
zala eta batez ere beharkizun uren eta goratuetan erabiltzeko dela ezta
ahantzi beharr. Ez dialektu bizien aurka joaiteko. Egungo egunean
hoik ere erabiltzea nahi ta nahiezko dela aithortu beharr da. Bizkaiko
baserriararentzat sermoi egin edo idatzi nahi baldin ba dut, hark
hulertzeko gisan egin beharko dudala nabari da. Bainan dembora be-
rean dialektuen gaintik ororen euskara, euskara soila, erabateko
arauekin ezarririko litteratur euskara hedarazten ere lehiatu beharr
gara. Egiteko hunetan jardun nahi dugu. Berea bertze euskara mueta-
rik eztakienak edo arrotz zaion moldean tajuzko gauzarik egitera as-
maturen ezuela uste duenak, hartan egin beza: "ez naiz ni hargatik
bekhaiztuko", erranen dut Materre eta Axularrekin batean. Nehori
ere etzaio atherik hersi nahi (114).

3. *Euskarak eztu oraindik bere loratze-aldia, bere urre mendea
ikhusi. Jasoaldi hori hel dadinean berez izanen genuke batasuna, po-
liki-poliki eta erabakirik bage ehorria, gainerako euskara muetak ber-
tzeen artetik burua ailtza eta nabarmendu denerat bihurturen lirate-
ke-ta. Beraz, bitartean horren begira egon bertze egiterik eztugu.*—
R. Bai, gure euskara gaisoa guztiz eskuetatik joan dakigun arteino
begira egon gindezke. Buru ernez, adimenduz eta indarr guztiz joka
gaitzezela eskatzen derauku euskararen biziak berak; eta geroke begi-
ra egon gabe, aitzin-gibel guztiak kontuan edukiz eta gure lehen-litte-
raturak irakasten deraukunaren arauaz, zuzenbide jakin bat orai be-
retik hartu beharr dugu. Axularrek errana da: *gero dionak bego dio,*
eta euskararen baratzean ere horixe gertatzen hari ote zaikun bildurr

(114) J. de Urquijo, *Lengua internacional y lenguas nacionales. El eus-
kerá, lengua de civilización*, RIEB, t. X (1919), p. 165 ss. «Tomando al pie de
la letra esta solución —la de adoptar uno de los dialectos existentes como
lengua común— se cerraría el camino a escritores de natural talento y ap-
titudes que no se decidieran a escribir en un dialecto que no fuera el
suyo, y en el que se verían privados de la frescura y lozanía, cualidades muy
apreciables, sobre todo en una literatura espontánea y popular como la
nuestrá».

naiz. Litteratur hizkuntza erabateko hori ezta berez egiten (gora behe-
ra historikoak ondore gozo hori sort dadintzat anhitz laguntzen ba
dute ere); beraz, eta ethorkizunaren berri eztakigun ezker, joandako
menden irakaspenaren arauaz, guk beharr dugu ororen euskara hori
landu. Gure artean elkharr adituz eta ahal liteken neurrian aburu
batetarat ethorritz, ariadura eta eragindura bat sorrarazi beharr da,
piskaka-piskaka bada ere, jo-mugarat hurbiltzeko.

4. *Gure antziñako litteratur-tradizino horrek oso tipi, eskas eta
balio gutiko emaiten du. Beraz, ororen hizkuntza moldatzeko, hartan
zangoa finkatu bidean, egungo euskalkietatik hastea dirudi hobe, hoie-
tatik bat hautetsi, ta kito. Gainera, egungo hizkara biziaz hertsu ba-
turik eta hari ahal den gehiena alboratsetik, litteraturaren erraberri-
tzea ethorri ohi da. Herriko hizkarari gibel eman eta atzoko hizkara
idatzari bakharrrik behatsetik, makaltze, ahultze ta heriotza bertzerik
ez (115).—R. Litteratur hizkuntza oro tradizino bati atxikiak izanik
sorthu direla gorago erran dugu; guk ere, bada, gurea, nahiz ta den
tipiena delarik ere, kontuan eduki beharr dugu ta hartan zangoa fin-
katu, bide galtzerik gabe aitzinerat joan ahal gaitezen.*

Tradizino horren gibeletik egungo euskalkietatik hastapen hartu
nahi izaitokotan, amaigabeko lanbidean sartuko ginateke, berez eus-
kalki guztiak berdintsuak baitira eta bat hautetsi eta gainerakoak zo-
kondoratzeko arrazoin argi eta kontuzkorik ezpaita edireiten. Beraz,
litteratur tradizinoaren bidea hartu ezik, nahi dugun helbururat da-
raman bidea nehoiz ere asmatzeko arriskutan jartzen gara; bat be-
dera bere euskara moduan beti bezala hariko bait lizateke. Gainera-
koan, litteratur tradizinoari jarraikitzeak egungo euskara bizia alde
batera utzi beharr dela ezta erran nahi; haren lege ta arauak gogo-
tan izanik, litteraturaren erraberritzeko egungo aho-euskarari begi-
ratzea ta are huni ahal den gehiena hurbiltzea ere on dela ta egin
beharr dela uste dut.

5. *Litteratur-euskararen oinharrizat euskalki bat hartzekotan, gi-
puzkara hautatu beharr lizatekela dirudi. Euskara mueta guztien erdi-
erdian jarririk aurkhitzen delarik, dialektu hunen posizino geographi-
koak eginbeharr hunetarako berarizki gaitasuna emaiten bait derau-
ko; gainera, gipuzkara euskaldunik gehienentzat bertze euskalkiak baino
hulerterrazago da, eta, edozein modutan ere, errazago da erdikoa be-
re inguru edo alboetara zabaltzea, ertzak bat egitea baino (116). —
R. Amets dugun litteratur hizkuntza hori batez ere hizkara idatzia de-
la, erran direnetarik ederki asko agiri da. Beraz, litteratur beharkizu-
netarako sorthua den ezker, bere izaita ta egitez ezta nehongo aho*

(115) J. de Urquijo, *Lengua internacional...*, p. 178-9.

(116) Garitáonandia. Ikhus Gipuzkera, Osotua, II orrialde.

hizkaraz nahasi beharr. Kausa hunegatik, bat bertzeen artean zabal-
tzeko bilhatzen zertan ibili beharr ezta, eta egoitza geographiko
hutsak hauzi hunetan deus guti erran nahi duela dirudi. Hizkuntza
idatziaz dugu arlo ta solhas.

Hizkuntza hunek bere lege ta arauak ditu litteratur-tradizinetik
ekharriak: huni bada, egungo dialektuei baino gehiago, behatu beharr
zaio, hauzi hunen erabakitzeko. Eta problemata sahets hunetatik
behatzu ta planteatuz gero (eta hala planteatu beharr dela ziurtzat
dadukat), ephaia zeinen alde eror diteken ezta ezbaieko, laphurtarr
klassikioaren alde, alegia. Nere usteak zuzen ala okherr liren jakin
nahirik, René Lafon euskaltzale jakintsuarengana argitasun bilhan
jo nuen, eskutitzez nere aburu hoik hari zabaliz. Eta huna hemen
hark igorritako erantzuna:

“Parlons d'abord de la constitution d'une langue littéraire. Je crois comme
vous que le labourdin littéraire est ce qui peut le mieux servir de base. Et
vous avez raison de penser avant tout a Axular et a Etcheberri. Mais je pense
qu'il ne faudrait pas négliger certains écrivains du XIXe siècle, comme Elis-
samburu” (Arcachon, 30-1-1952).

6. *Egungo egunean hemengo eskualdeak, eta garbiki erraiteko, Biz-
kaia ta Gipuzkoak, gainerakoak eta guztiz ere Frantzi-aldekoak baino
norberatasun eta heldutasun handiagorak ethorri izan dira. Aberatsa-
go dira, oikonomi aldetik ahaltsuago, bizi-lagun kopuru goratuagoa iri-
tzi dute, uri azkarr joriagoak dituzte, aberkoiago dira. Beraz, euskal-
untziaren aitzindariagoa berengan hartzeko izendatuak dirudite. Eta
beraz hunelatan, hori hunela izaki, guztien euskara horren ondope-
tzat, hemengo dialektu bat zergatik hartu ez? Gipuzkararen biran,
erraiteko, laphurtarraz bezin ongi edo hobeki bil liteke, agian, ororen
hizkuntza.—R. Litteratur euskara, amets dugun ororen euskara hori,
era askotara eta anhitz gisan egin litekela aithortzen dut. Aurrenena,
eta are gora-behera guztia ere, hunetan datza: denok aburu batetara
ethorr gaitzela, alegia; denok hartara jarri ezkeru, denok lehiaturen
bagineke, ez gipuzkara, bai bizkaitarr eta erronkaritarra hera ere
on lizateke horrtarako, hobekiago edo gaitzago, baino asmatuko ge-
nuke. Hau da, orde, pontua: gure litteratur historiaren arauz jokatu
nahi baldin ba dugu, gure lehenaren irakaspenari jaramon eginen
ba deraukogu, ea zein liteken biderik hoberena, izendatuena hort-
rako, ea zeinekin balia gindezken hobekienik ondope ta erro bezala
erabiltzeko. Nik, azaldu diren argumenta guztiak direla kausa, la-
phurtarr klassikoa dugula hartarakoenik ziurtzat dadukat.*

Gure antziñako ta behiko gaitza provincialismu tipiak izan
dira. Euskalherri osoa batasun bat bezala hartu beharrean eta haren
hedadura guztiari begi eduki ordeaz, partikularismuetan sarturik ibi-

li izan gara, eta berezikeri kaxkarr itsuek ikhusbide zabal hedatua galerazen deraukute. Partikularismu hori goitutzera asma ezik, galdurik gagozela, gureak egin duela erranen nuke. Erromatarrek Espainiko lurraldeaz jaundu zireneko gerthakizuna orai berriz ere gerthatu-ko ez othe den gurekin bildurr naiz. Garai hartan Espainiko herriak kabyla iduriko leinutan puskaturik zebiltzen eta gainera elkharren etsai izaiten ziran. Herri edo leinu hoitatik bat erromatarrek, agintepean hartzeko, eraso ta oldartzen zuten bakhoitzean, han joaiten ziran albo-herrietakoak pozarren eta txaloka, erromatarrei laguntzera; etzuten zozo heiek asko uste biharamonean berei ere zorigaiztoko patu berbera burugainerat eroriko zaienik; eta hala, batasun-ezak denak zituen honda eta gal. Irakaspen sarkorr hau bethi gogoan izan dezagula!

Egun sartaldeko euskaldunak indarr eta norberatasun handiagoren jabe gara? Ba liteke, hori ordea ezta arrazoin tradizinoak irakasten duenaren gibeletik, nor bere dialektu bereziak aitzinerat eramaiten saiatzeko. Tradizino argi bat dagoelarik, hari loth eta elkartzea, hura luza eta jarraikitzea, huna hemen zuzenaridagokana. Hala lehenaren ereñoitz zaharrak erraberri eta birlorcturen genituke, heiei agian hemengotarr kutsu arin samarra erantsiaz. Hemengo eskualdeak aberkoiago direla, euskal konszientza aldetik umotasun helduagorat bilhakatuak? Ba liteke. Hain zuzen ere horregatik behartuago gagoz, berekoikeri ta kazkarkeri tipi guztiak alde batera utzirik, Euskalherriaren onurak galde egin ditzan amorr emaita eta sakrifizi guztiak egi-teko. Seiari, umotasun hortarat heldu eztenari, ezin eska holakorik, hark "nik nereaz" bertzerik erraiten eztaki; adinetara heldua denari, ordea, bai.

Biharko egunean, gauzen gora beherak irauli edo aldaturik, jaso-aldi hunek hemendik bertze alderat ihes eginen ba luke, edo ta nahiz Nafarroa nahiz bertze edozein eskualde euskal-untziaren buruan jarriko balitza, on othe lizateke orduarteko tradizinoaz kontu guti eginik, eskualde hori bere euskalki berezia hizkuntzaren oinharritzat jartzera hasiko ba litz? Eztut uste, ta nehon ere ezta holakorik egi-ten. Espainitarraren oinharria Gaztelako hizkarak eman du, eta abe-rriko aitzindarigoa bertze eskualdeetarat iraganarren, hori gora behe-
ra, hizkuntzari ukitzea ezterauko nehoi ere gogoak emaiten.

Dena hitz batean erraiteko: egungo egunean dialektuak beharkizun anhitzetan erabil ditezela ongi ikhusten dut eta beharreko dela aithortu beharr da. Baina hekien gainetik eta elkharren arteko lokarri bezala erabiltzeko, ororen euskara ere moldatu beharra dadu-kagu, eta hortarako oinharritzat hobekien joka daitekena laphurtarr klassikoa dela uste dut Laphurtarr klassiko hortan idazle garaienak

Axularr eta Etxeberri direlarik berak dirudite litteratur euskara hunen kanon eta eredu bezala jartzeko egokienak.

EPILOGU

Gure lan hunen gaina atzemana dugu jadanik. Orai, ohi den bezala, errandako guztien muin eta guna buru banaka batzuetan hertsita mamitu nahi izatez gero, hunako proposizino murrizt hoietara bihur litekela uste dut:

1) Litteratur-arazoetarako euskara-molde bakharr eta jakin bat hautatzeaz dugu arlo. Orai arte litteratur egikizunetarako nahiz bizkaiera, nahiz gipuzkera, nahiz laphurtarra t. a. erabili uknan ditugu; euskara idatzia ere euskalkien arauz puskaturik darabilgu. Euskarak, ordea, bere bizitza eta iraupenerako litteratur-hizkuntza bakharr baten edukitzea beharr beharreko du: ororen euskara, euskara soil sorthu nahi dugu, orai arteko euskalki berezien gainetik. Hortarako ibili beharr den bidez, haukera beharr den oinharriaz eta hautatze egitean kontuan eduki beharr lirateken kriterion eta arau nagosiz dugu hemen autu ta solhas.

2) Litteratur-hizkuntza, bere izate ta egitez, guztiz ere idatzia izan ohi da, eta hizkuntza idatziak bere lege, arau ta zuzenbideak litteratur-tradiziotik edoski ohi ditu, mintzo diren hizkera bizietatik baino gehiago. Beraz, guk ere, gure litteratur euskara hori antolatzeke, egun mintzo diren dialektu biziei baino gehiago, euskara idatziaren tradizinoari begia eduki beharr deraukogu.

3) Euskara idatziaren litteratur-tradizinoa arakatur, ordea, gure mintzoa erabateko tradizino bakharr baten jabe eztela aithortu beharr. Lau euskara-mueta edo litteratur-euskalki landu izan dira gutienez eta bat bedera bere idazte-molde herezi edo litteratur-tradizino berarizkoari lotua bizi izan da.

4) Beraz, orai amets dugun euskara soil hori sorrarazteko, litteratur-tradizino hoietatik bat hautatu beharr da, litteratur-euskara bakharr horren erro eta ondope bezala izan dadin. Zein hautatu, ordea? Gainerakoan artean buruen, nabarmenen eta gailen agertzen den litteratur-tradizinoa. Hau begiz jo ta hartu beharr lizatekela nabari da.

5) Bai antzina-aldeetik eta bai idazleen kopuru, bikaintasun eta denen artean osatzen duten batasun ederragatik ere, laphurtarr klasikoak irudi du egikizun hunetarako egokienik.

6) Laphurtarr klasikoak hautatzearen gain, ordea, idazle batzuk eredu edo kanon bezala izentatu beharrean ere aurkhitzen da litteratur euskara, heken hizkera molde jakina euskara zuzen, jaso eta era-

bili beharr denaren ispillu bezala harr dadin eta grammatikak eredu hoietatik idatz-euskararen arau eta erregelak athera ditzan amoreagatik. Egikizun hunen bethetzeko, Axularr eta Etxeberri, laphurtarr klassikoaren idazle garaienak iduri dute haukerakoenak.

7) Aitzina ere, litteratur-euskara hunek zer moldezko izan beharriko luken zeaztasun handiagoz azaltzeagatik, idatz euskararen atal edo baratze bereziei gain-begiratu bat eman derauegu. Lehenbizi, Orthographia-aldetik batasuna lortzea beharr beharreko zeregina dela ikhushi dugu, idatz-hizkararen gora-beherarik handienetakoa Orthographia-tik sortzen baita. *H'*ren hauzia dugu baratze hunetan buruenik, eta behin euskara soilaren ondopetzat laphurtarra jarriz gero, littera hori hartu beharr litzakela dirudi.

Morphologiarekiko, berriz, eredu bezala laphurtarrarena jarririk, gainerako euskalkietako berezitasun banaka batzuk ere ontzat eman ditezke. Verbua, bat eta bakharra beharr dugula nabari da, laphurtarr idazle klassikoek erabili zutena, alegia.—Syntaxis aldetik, ordea, idazle zaharren joskera makhurra arbuatuz, euskarari hobeki doakon eta gure egunetako grammtikalariek gaingiroki arakatu ta alde guttiz ezarririk utzi deraukutena, hartuko lizateke.—Hiztegiarekiko, berriz, euskalki guztietako hitz oro, denak euskararenak bai tira; baina hitz berbera anhitz gisatan aldaturik dabilenean, molde bakharr bat hautatu, hitz hark laphurtarr klassikoan dadukan molde jakina, alegia.

8) Azkenik, litteratur euskara eratzeke plan edo bide huni jarri zaizkikeon objektzino eta koropiloak askatzen saiatu gara.

9) Plan hau aitzinerat eramateko, ordea, eskolak eta kultur Elkhargo nagosiak ere beharr bide ditu gure euskarak. Egungo egunean ez bat ez bertze ezititugularik, eginbeharr askotarako dialektuetara jotzea bertze biderik eztugu, baina euskarak hartu beharr duen molde bakharr, tinko, ororen eta bethiko hori sortzera ere enseiatu beharr gara, problemata aurpegiz aurpegi oldartuz eta galde egiten duen ephaia behin bethiko emanaz, Euskalkien gainetik eta behar-kizun goratuagoetarako euskara orokarr hori gertutzen orai beretik jardun beharr dugu.

10) Batasun-aldeko lan hunetan eskuak sartzera beharturik gagoz, asmo eta ahalegin hauk ezpaitira amets zoro bat asetzeagatik edo euskara alferrikako apainkeri ta ezertarako ezten dotoreriz jaunzteagatik asmatuak; aitzitik, gure mintzoaren bizi eta iraupenak bultzatzen gaitu hartara, litteratur egikizunetarako erabateko euskara bakharr

Eta hunekin nire dissertazino hunen azken bururat heldua naiz. baten moldatzea alde guttiz beharr beharreko zaiku-ta.

Problemata itzul inguru, sahets eta aitzin gibel orotarik astintzera enseiatu naiz; murriztasun soilean, aurpegiz aurpegi eta den bezalatsu oldartu nahi ukhan dut. Eta gogoeta egiteko lanean bihotzaren

hotsak sarritan ikhuste zuzena galerazi ta egiaren argia lausotu bertzerik egiten eztuela gogoraturik, gure euskara ta Euskalherriaren ona soil soilik kontuan hartu nahi ukan ditut. Adimenduaren lekhuari bihotza gogoeta egitera sarr ba ledi, ezkenuke bide onik aurkhitzerik, adimendua baita, ta ez bihotza, egiaren ikhusteko goiko Jaunak eman deraukun indarr bakharra.

Eta orai nire lantto hau Euskaltzaindiari gomendiotan emaita bertzerik eztut. Hari dagoko, bethi bezala, agintzeko hitza ta ephaia arazo guzti hoietan. Bere argi ta zuzenbideen begira dago Euskalherria. Jainkoak eman zeraukun gure mintzo maitagarri hau bizirik athera, begira, ederzta ta argi zabalerat ekhartzeko egikizun handian zuzen joka ta bide ona asma dezagun, Berberak goi argi ta laguntza eman diezakula!

(Arantzazuko Sanktuarian, 1952 ephailak 6)

